

**INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN LEGEARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA**

DNCG_LEY_479/18_05

I.- SARRERA

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak, Tramitaguneren bidez (espediente-zk.: DNCG_LEY_479/18_05) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Aholkularitza Juridikoari eskatu dio Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektuari buruzko txosten juridiko bat egitea. Legearen aurreproiektuak dokumentazio hau du:

- ✓ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko otsailaren 13ko Agindua, Euskadiko Ingurumen Administrazio Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea onartzen duena.
- ✓ Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua egin aurreko kontsulta publikoa.
- ✓ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko maiatzaren 25eko Agindua, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua aurrez onartzen duena.
- ✓ Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren testu-zirriborroa, 2018ko maiatzaren 25ekoa.
- ✓ Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren Justifikazio eta Ekonomia Memoria, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak sinatua 2018ko maiatzaren 25ean.
- ✓ Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektuaren Genero Inpaktuari buruzko txostena, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak sinatua 2018ko maiatzaren 25ean.
- ✓ Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren 2018ko maiatzaren 28ko ebazpena, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektua

jendaurreko informazioaren mende jartzen duena (EHAA, 106. zk., 2018ko ekainak 4).

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena) 7.3 artikuluan honako hau ezartzen da: *«Kasu guztietan, prozeduraren instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak txosten juridiko bat egin beharko du alderdi hauek aztertzeko: arauaren oinarri objektiboa, haren edukia legearen eta zuzenbidearen arabera den eta teknika arauemailearen gidalerroak bete diren, baldin eta halakorik balego»*.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko 2017ko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.1 artikulua hau adierazten du: *«Prozedura bideratu duen saileko aholkularitza juridikoak edo zerbitzu juridikoak egingo du Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan adierazitako nahitaezko txosten juridikoa»*.

Azkenik, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak egin du txosten hau, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren 5.5 artikulua esleitutako eskumenekin eta Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4.a) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10. artikuluan Zerbitzu Juridiko honi esleitzen zaion eginkizunarekin bat eginez.

II.- AURREKARIAK

20 urte pasatu dira 1998ko otsailaren 27an Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege orokorra onartu zenetik, eta kontuan hartuta ingurumen-ordenamendu juridikoaren konplexutasuna eta aldi honetan izan dituen aldaketak, gaur egun dugun araudia egokitu egin behar da gaur egungo egoera sozialera eta, beraz, lege berri bati heldu behar zaio ingurumenaren alorrean, gaur egungo egoerei erantzuteko.

Aldi honetan guztian, ingurumenari buruzko legeen corpus handi bat garatu da, Europar Batasunak bultzatuta, eta corpus hori estatu-mailako oinarritzko araudira

eraman denez, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren esparru arauemailea egokitu behar da.

Ingurumenaren arloko lege berri honek 1998ko otsailaren 27ko Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea ordeztuko du, autonomia-erkidegoko ingurumen-politika berritu baten oinarriak finkatuko ditu, eta ingurumenaren arloan dauden erronka aldakorrei eta gizarte-eskaerei egingo die aurre.

Arauaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko esparru arauemaile eguneratu bat ezartzea, eta pertsona fisiko zein juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehazteko. Legearen aurreproiektua helburu hauekin planteatzen da:

- ✓ Herritarrak babestea, ingurumen-presio eta arriskuen aurrean.
- ✓ Baliabideak efizienteki kudeatzea, ekonomia jasangarri eta hipokarboniko bat sustatuz.
- ✓ Klima-aldaketaren eragina mugatzea.
- ✓ Ingurumenaren babesean publikoaren eta pribatuaren arteko erantzukidetasuna sustatzea.
- ✓ Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua arintzea eta sinplifikatzea.
- ✓ Ingurumen-eragina duten jardueren gainean esku hartzeko teknikak erregulatzea.
- ✓ Ingurumenari buruzko ezagutza eta informazioaren oinarria hobetzea.

Arau berrian, honako hauek jasoko dira: EAEn ingurumenaren arloko politika zuzenduko duten printzipioak; pertsonen eskubideak eta betebeharrak ingurumen-arriskuen aurrean; Administrazio Publiko bakoitzari dagozkion eskumenak eta horiek gauzatzeko koordinazio-mekanismoak; eta informazioa eskuratzeko, jendeak parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubidea guztiz baliatzeko bermea ingurumenaren arloan.

Arauaren alderdirik berrienetako bat da ingurumen-eragina duten jardueretarako esku-hartze administratiborako eredu berri bat diseinatu dela, «Ingurumen baimen bakarra» izenekoa, honetara bideratuta: ingurumenean eta pertsonen osasunean izan ditzaketen eraginak murriztea eta kontrolatzea; ingurumena babesteko behar-beharrezkoak ez diren karga administratiboak arintzea eta murriztea, eta jarduera horien antolakuntzan esku hartzen duten organo eta administrazio publikoen arteko koordinazio-mekanismoak bultzatzea. Neurri honen bidez proiektuak eta jarduerak

martxan jartzea erraztu nahi da, ingurumenaren eta osasunaren babesa gutxitu gabe, eta erantzukidetasun publiko/pribatua sustatuz ingurumenaren babesean.

Lege-aurreproiektuaren helburua da baliabideak era efizientean kudeatzea, ekonomia jasangarri eta hipokarboniko bat eta klima-aldaketaren eragina mugatzen duena sustatuz eta, horretarako, hainbat tresna arautzen ditu ingurumen-hobekuntza sustatzeko. Horien artean daude borondatezko eta merkatuko tresna klasikoak, esaterako, akordioak, ingurumen-kudeaketako sistemak eta eko-ziurtagiriak, baita ingurumen-fiskalitatea ere.

Azkenik, aurreproiektuak eguneratu egiten du otsailaren 27ko 3/1998 Legean jasotako diziplina-araubidea, eta ingurumen-legezketasuna berrezartzeko prozedura berri bat dakar, desberdina eta autonomoa, prozedura hastea eragin duen pertsona fisiko edo juridikoari ezarri ahal izango litzaiokeen zehapen-prozedurarekiko.

Lege-aurreproiektuak erabat indargabetzen du Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, eta eskumenen birbanaketa bat egiten du autonomia-erkidegoko eta bertako Lurralde Historikoen Foru Organoen Erakunde Komunen erlazioei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen esparruan (LHL); izan ere, ingurumenean esku hartzeko proposatutako araubide berriek aldatu egingo dituzte lurralde historikoen eskumenak erakunde komunetatik eratorritako arauak garatu eta betearaztean sailkatutako jardueri (lehen jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak) lotutako zuzenketa-neurriak, ikuskapena eta zehapena ezartzeko alorrean.

Era berean, aurreproiektuan jaso dira Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeko zenbait artikuluko zehatzen aldaketak.

Azkenik, aipatu behar da, jendaurreko kontsulta-dokumentuan adierazten den eran, ez dagoela beste alternatiba arautzailerik edo ez-arautzailerik; beraz, ingurumen-administrazioan neurri arauemaile espezifiko bat lantzea ezinbestekoa da, dagoen araudia eguneratu behar baita.

III.- APLIKA DAITEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA, ESKUMENA ETA LEGITIMAZIOA.

III. A) Eskumena eta legitimazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 11.1.a) artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio eskumena ingurumen- eta ekologia-gaietan Estatuaren oinarritzko legeria garatzeko eta oinarritzko legeria hori Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean betearazteko.

Espainiako Konstituzioaren (EK) 149.1.23 artikulua, bestalde, Estatuari esleitzen dio ingurumena babesteko oinarritzko legeria egiteko eskumena; dena dela, horrek ez die eragozten autonomia-erkidegoek, oinarritzko legeria horren gehigarri, babes-arauak emateko dituzten ahalmenei.

Manu biak elkarrekin interpretatuz gero, uler daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak ingurumen-mailan araudia sortzeko duen gaitasunari esker, Estatuak agintzen dituen oinarriak garatu daitezkeela, eta horrek, gainera, ez diola kalterik egiten babes-arau gehigarriak ezartzeko duen ahalmenari.

Hala ere, eskumen-banaketen esparru teoriko horretan, Konstituzio Auzitegiak (KA) Estatuaren ahalmen araugile zabal-zabala balioetsi du, beste hainbat gaietan oinarriak jasotzen dituzten eduki arrunta baino zabalagoa dena, eta aukera eman dio funtsezko zein prozedurazko erregulazio ia osoa arautzeko.

KAk ingurumenaren gainean eman dituen epaiak benetan ugariak dira (berrehun baino gehiago), eta ia denak eskumen-banaketa gainekoak dira (EKren 149.1.23 artikulua) eta oso gutxi lantzen dute funtsezko edukia (EKren 45. artikulua).

Gainera, azkeneko urteetan, Estatuak ingurumenaren gaineko lege asko eman ditu, batez ere Europako araudira egokitzeko, eta horietan oinarritzko arauen irismenak gero eta interpretazio zabalagoa du, bai alderdi materialetan bai erabat prozedurazkoak diren alderdietan. Hortaz, emandako araudian arautu beharreko eremu ia osoa jaso da, eta horrek automatikoki zailtzen du autonomia-erkidegoek arau horiek garatzeko izan dezaketen edozer aukera. Horren ondorioz, inkonstituzionaltasun-errekurtsoak jarri dira ingurumenaren gaineko ia diziplina guztietan; izan ere, ehun auzi baino gehiago jarri dira, eta horietako gutxi ebatzi dira erabat edo partzialki autonomia-erkidegoen alde.

Esparru honetan, azken urteetan Estatuak aurreko testuak ordeztzeko emandako ingurumen-araudia gero eta zentralistagoa da, eta gehiago eta intentsitate handiagoarekin heltzen die edukiei. Horretarako, nahikoa da lege hauek aztertzea: Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea edo ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea.

Horrela, autonomia-erkidegoek oinarrizko araudiaren babes maila soilik handitu dezakete, baina ezin dute murriztu (156/95 KAE, zehapenetan; 89/00 KAE ingurumen-inpaktua ebaluatzeko (IIE) formuletan, 109/2017 KAE ingurumen-ebaluazio estrategikoaren (IEE) salbuespenengatik edo 196/1996 eta 16/1997 KAE), ezta kontrakoa esan ere (15/98 KAE edo 166/2002 KAE n debekatzen duen merkaturatze bat baimendu).

Gainera, babes-arau gehigarriak ezartzeko eskumen autonomikoari esker, autonomia-erkidegoek «Estatuko legeriak aurrekusi gabeko baimenak eta emakidak emateko baldintzak eta kargak» ezar ditzakete; hala ere, exijentzia horiek, beti ere, «arrazoizkoak eta proportziozkoak izan behar dira, proposatutako helburuaren araberrakoak», eta ez dute «oinarrizko ordenamendua aldatu behar» (106/2014 KAEak, 8 a. OJ), 73/2016, 8. OJ eta 8/2018 KAE, 3.f. OJ).

EAEko barne-artikulazio instituzionalari dagokionez, Autonomia Erkidegoko eta Lurralde Historikoetako (LHL) Foru Organoen Erakunde Komunaren arteko erlazioei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak foru-organoei betearazteko eskumenak ematen dizkie LHLren 8.3 artikuluko baldintzetan zuzenketa-neurriak, ikuskapenekoak eta zehapenekoak kalifikatu eta adierazteko bizitegi-lurzoru hiritarrean ezar daitezkeen jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei dagokienez, betiere ez badie eragiten lurralde historiko bati baino gehiagori (LHL 7.b.6 art.).

Halaber, lurralde historikoei dagokie eskumen eskusiboa beren foru-organoen antolamendu, araubide eta funtzionamenduaren alorrean (LHL 7.a.1. art.) eta LHLren 7.d) artikulua araberan Estatuaren oinarrizko legediaren garapen arauemailea eta hori betearaztea dagokien eskumen eskusiboari esleitutako gaietan.

lido horretan, Euskadiko Arbitraje Batzordeak aukera izan du epaia emateko eskumen hauetako batzuen irismenaren inguruan eta, horrela, merezi du nabarmentzea, lehenik, 1/2016 Erabakia, «Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Antolamendu Institutuzionalari

buruzko Lege proposamenari» dagokionez; bertan azterketa zehatz bat egiten du apirilaren 28ko 76/1988 KAE 6. OJ (foru-araubidearen nukleo eztabaida ezina) eman zenetik identifikatu denaren inguruan, eta hori zehazteko beharrezkoa da jotzea EAEEra, zehaztu eta espezifikatu egiten baitu foru-araubidearen gutxieneko edukia (KAK azpimarratu zuen bezala 76/1988 ebazpenean, 5. OJ *in fine*), gutxieneko eduki horrek «autogobernurako erakunde eta instituzio pribatiboak» ezartzeko lurralde historikoei dagokien eskumena jasoko luke.

Erabaki horren arabera: *«Foru-araubidearen edukiaren nukleo ukiezinaren osagai hori honako manuetan zehazten da: 1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 3. eta 24.2 artikulua, erakunde-dimentsioan dagoeneko aipatu direnak. Horien arabera, Euskadi osatzen duten lurralde historikoen, soilik autogobernurako diren antolamendua eta erakundeak kontserbatu ahal izango dituzte, eta, dagokionean, lehengoratu eta eguneratu; hori 37.1 artikuluan islatzen da, zeinaren bidez lurralde historikoetako foru-organoak haietako bakoitzaren erregimen juridiko pribatiboaren arabera eraenduko baitira....»*

Erabaki berean, Arbitraje Batzordeak iritzi argia ematen du foru-eskumenen kategoria bien gainean: *«Horrela, garrantzi juridiko ezberdineko bi eskumen mota ditugu. Batetik, foraltasunaren muin ukiezina osatzen dutenak eta horiek, estatutu-agindua dela eta, EAEEK berariaz esleitzen dizkien eskumenak dira, baita araubide pribatiboetan oinarritzen direnak eta lurralde historikoetan baliatu izan direnak ere, Estatutua onartu aurretik; eta bestetik, foraltasunaren hedapen-alorreko eskumenak; horien edukia beste organo batzuen jarduketaren mende dago baina ez dute osatzen EAEEK duen gutxieneko murriztezin hori eta, beraz, alda daitezke, betiere eskumenak banatzeko sistemaren aldaketa ikuspuntu formal batetik egiten bada lege-lerruneko arau batekin. Arau hori Eusko Legebiltzarrak emango du eta zuzenean, berariaz eta era oinarrituan artikulatuko du aldaketa hori, Batzorde honek mahastizaintza eta ardogintzari buruzko 5/2003 erabakian zehaztu zuen bezala».*

Bestalde, ingurumen-arloan erakunde komunen eskumenetan eragiten duten gaietan lurralde historikoen dituzten eskumenen irismenari dagokionez, Arbitraje Batzordeak iritzia emateko aukera izan du berriki, azaroaren 8ko 2/2011 Erabakiaren bidez, Klima Aldaketaren Legearen Proiektuaren kontra planteatutako eskumen-gaietan, eta hau adierazi du: *«Honi dagokionez, garrantzitsua da ingurumenaren gaineko eskumen-tituluaren zeharkakotasunari buruz jada aurreratu dugun Konstituzioaren doktrina gogora ekartzea, natura-baliabide guztien gainean duen proiektzioa kontuan hartuta.*

Zeharkakotasun hori agerian geratzen da esku artean dugun gaia -mendiak- jarduera desberdinen zerbitzura egon daitekeen eta eskumen desberdinen xede izan daitekeen euskarri fisikoa dela ikusi eta gero.

Hori dela-eta, eragindako eskumen bakoitzaren eremua mugatzen saiatzeko orduan, berezitasun-printzipiora jo behar da, modu horretan, arautu asmo den gaiarekiko lotura zuzen eta berehalakoaren ondorioz, gailentzen den eskumen-titulua zein den zehaztu ahal izateko. Aipatu Konstituzioaren doktrinak adierazi bezala, printzipio horrek bi irizpide-mota hartzen ditu kontuan: objektiboa eta teleologikoa. Lehena, manu bakoitzaren eduki materiala kalifikatzeaz arduratzen da; bigarrena, haren xedea asmatzeaz; hala ere, inongo kasutan, aztertutako eskumena erabiltzeak ez du adierazten inplikaturako beste administrazio batzuei sektoreko eskumenak kentzea (102/1995 KAE)».

Udalerrietan, bateragarri egin behar dituzte honako eskumen hauek: tokiko erregimenari dagokionez Estatuak daukan arautzeko eskumena (KE-ren 149.1.18 artikuluzatia); hortik datorren Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (aurrerantzean TAOL); ingurumen-arloan erkidegoak daukan eskumena (EHAeko 11.1.a letra); eta tokiko autonomiek berez duten tartea, Konstituzioak udalerriei ematen diena (KE-ren 137., 140. eta 141. artikulua).

Estatuak eta autonomia-erkidegoek tokiko antolamendua arautzeari buruz duten eskumen orokorra alde batera utzita, legegileari dagokio tokiko erakundeei gai horren baitako zereginak banatzea (legegilea estatukoa edo erkidegokoa izango da, eskumenak banatzeko zerrendetan jasotakoaren arabera).

Udalerrietan, bateragarri egin behar dituzte honako eskumen hauek: tokiko araubideari dagokionez Estatuak daukan arautzeko eskumena (KEren 149.1.18 artikulua); hortik datorren Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (aurrerantzean TAOL); ingurumen-arloan erkidegoak daukan eskumena (EHAeko 11.1.a letra); eta tokiko autonomiek berez duten tartea, Konstituzioak udalerriei ematen diena (KEren 137., 140. eta 141. artikulua). 3/1998 Legeak Udalei esleitzen dizkie jarduteko lizentzia sailkatuen alorreko eskumenak eta horiez baliatzeari eragingo dio izapidetzen ari den araubideak.

Gainera, Euskadiko tokiko erakundeek eskumen garrantzitsuak dituzte, berezko izaerarekin, ingurumenaren eta garapen jasangarriaren antolamendu osagarriaren,

sustapenaren, kudeaketaren, defentsaren eta babesaren gainean (Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (aurrerantzean ETEL) 17.1.8 artikulua).

Kontuan izanda aipatutako eskumen-erregimena, XI. legegintzarako (2016-2020) Gobernu Programak ezartzen du 43. konpromisoaren barnean, 1. ekimen gisa, «*Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Natura Zaintzeari buruzko Lege Orokor baten proiektua onartu, arlo honetan dagoen legedia integratu eta eguneratuko duena, igorpenen murrizketa-helburuak jarriko dituen eta klima-aldaketaren aurkako borroka bultzatzeko neurri arautzaileak ezarriko dituen*».

Aurreikuspen hau, era berean, XI. Legegintzaldiaren (2016-2020) Legegintza Programa osatzen duen lege-proiektuen zerrendan jasotzen da. Programa hori 2017ko otsailaren 28ko Gobernu Kontseiluaren akordio bidez onartu zen. Zehazki, aurreikusten da Ingurumen, Klima Aldaketa eta Natura Kontserbatzeko Lege Orokorren proiektu bat onartzea. Lege horrek gai honetan dagoen legeria integratu eta eguneratuko du, igorpenak murrizteko helburuak finkatuko ditu eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzeko neurri arauemaileak txertatuko ditu.

Kontuan hartuta legegintza-botere eskudunetatik eratortzen den ingurumen, klima-aldaketa eta natura kontserbatzeari buruzko arau-ugaritasuna eta kontuan izanda teknika juridikoari buruzko kontsiderazioak, badirudi egokia dela hiru legetan banatzea gobernu-programaren ekimeneko edukia; izan ere, araubide orokorra testu arauemaile bakarrean gauzatuko balitz, araubidea tresna erabilgaitz bihurtuko litzateke testu horren bolumenarengatik eta hiru gaiak desberdinak izateagatik, nahiz eta komunean zenbait elementu izan. Aipatutako gai bakoitzean araubidea horrenbeste eguneratu behar denez eta horrenbeste elementu berri sartu behar direnez, gai horiek hiru testu desberdinetan landu behar dira.

Bestalde, aipatu behar da ingurumena zeharkako eskumen-titulu bat dela, hau da, ingurumena babestea xede izan arren, haren babesean emandako arauak ezinbestean dute eragina autonomia-erkidegoaren eskumen eskusibokoak diren beste gai batzuetan: Euskadiko jarduera ekonomikoaren sustapena, garapen ekonomikoa eta plangintza (EAEEren 10.25); industria (EAEEren 10.26); eta lurraldearen nahiz itsasertzaren, eta hirigintzaren nahiz etxebizitzaren antolamendua (EAEEren 10.31).

Eskumen formala dela eta, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikulua ezartzen du Eusko Jaurlaritzak gauzatzen duela legegintza-ekimena, Autonomia Estatutuaren eta Legearen arabera, honela: Jaurlaritzari dagokio (xedapen horren 18. artikulua) Lege Proiektuak onestea, Legebiltzarrera bidaltzeko, eta proiektu horiek Jaurlaritzari proposatuko dizkio arautuko den gaien eskumena duen saileko titularrak (aipatutako Legearen 26. artikulua).

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren esku-hartzea oinarritzen den eskumen-tituluei dagokienez, sailaren eskumen funtzionala honetan oinarritzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 9.1. artikulua; ondoren garatu dena Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren bidez.

III. B) Aplikatzekoa den araubide juridikoa

Lege-aurreproiektu hau ingurumen-alorreko Estatuaren oinarritzko arau ugariaren eta autonomia-erkidegoko ingurumen arauzko araubidearen mende aztertu behar da, baita aplikatu daitekeen eta jarraian adierazten den araudien mende ere:

- ✓ 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumena Babestekoa.
- ✓ 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.
- ✓ 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- ✓ 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- ✓ 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- ✓ 26/2007 Legea, urriaren 23koa, ingurumen erantzukizunari buruzkoa.
- ✓ 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- ✓ 212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baitira ingurumen-lankidetzako erakundeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen baita.
- ✓ 211/2010 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

- ✓ 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- ✓ 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, industriako isurien Erregelamendua onartzeaz gainera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.
- ✓ 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.
- ✓ 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanari buruzkoa.

Administrazio-izapideari eta testu arauemailea onartzeari dagokienez, kontuan izan behar ditugu hauek:

- ✓ 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena.
- ✓ 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatearen Legearen testuategina onartzen duena.
- ✓ 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren arloko barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituena.
- ✓ 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia; Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Ebazpenak egiteko irizpideak onartu dituena (EHAA, 71. zenbakia, 1993ko apirilaren 19koa).
- ✓ 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituena.
- ✓ 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- ✓ 16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeko.
- ✓ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa.
- ✓ Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legea.
- ✓ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- ✓ 233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskara-erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena.

- ✓ 8/2012 Dekretua, maiatzaren 17koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.
- ✓ Azaroaren 24ko 9/2004 Legea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzkoa.
- ✓ 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- ✓ 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzaren Legeari buruzkoa.
- ✓ 27/2006 Legea, 2006ko uztailaren 18koa, ingurumen-alorrean informazioa eskuragarri izateko, partaidetza publikorako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzeko dena.
- ✓ Gobernu Kontseiluak 2010eko otsailaren 9an onartutako Akordioa, Dekretu mailako xedapen orokorrak gauzatzeko prozedurako izapidetze-jarraibideak eta prozedura antolatzeke beste neurri batzuk onartzen dituen (Legesarea).
- ✓ Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an onartutako Akordioa, izapidetze-jarraibideak onartzen dituen xedapen orokorrak egiteko prozeduran.
- ✓ Gobernu Kontseiluak 2012ko otsailaren 27an onartutako akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zehapen-prozedurak elektronikoki izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen.
- ✓ Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioa, Lege, Legegintza Dekretu, Dekretu edo Aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dituen.
- ✓ Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Akordioa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura aplikatzeari buruzko Jarraibideak onartzen dituen.

III. C) Bestelako gai intzidentalak:

III.c) 1.-*Justifikazio-memoria.*

Gobernu Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko Akordioaren bigarren gidalerroa, Legeak, Dekretuak, Aginduak eta Ebazpenak lantzeko gidalerroak onartzen dituenak (EHAA, 71. zk., 1993ko apirilaren 19koa) hau adierazten du: *«Ez dira nahastu behar, Zioen Adierazpena Legebiltzarrean izapidetzeko berekin izan behar dituen Memoria eta aurrekariekin. Memorian arauari buruzko azterketa zabalagoa egiten da. Izan ere, Zioen Azalpenean jasotzen diren alderdiez gain, hauek guztiak hartzen ditu kontuan: zein egoera edo fenomenori erantzun behar zaion, zein alternatiba dagoen eta zergatik*

komeni den proposatzen dena aukeratzea. Horrez gain, memorian aurreikusi egiten da proposatzen den arauketak antolaketan eta finantzetan izango duen eragina, bereziki erakunde berriren bat sortzeko orduan».

Bada, proiektu arauemaile honekin batera dagoen justifikazio-memoria erkatzen badugu Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren zioen azalpenarekin, ondorioztatzen dugu berdinak ez diren arren, oso antzekoak direla eta nolana ere ez diotela erantzuten gobernu-kontseiluak onartutako lege-proiektuak lantzeko indarrean dauden gidalerroei.

Justifikazio-memoria mugatzen da arauaren zioen azalpena errepikatzea justifikatu gabe, besteak beste, indarrean dagoen araudiarekiko aldaketak, kide anitzeko organoak sortzea edo estatuaren oinarritzko araudia errepikatzea, eta horrek zaildu egin du, eta atzeratu, aurreproiektu arauemailearen azterketa juridikoa.

III.c) 2.-*Lex repetitae*. Autonomia-araudiaren desplazamendu-arazoak.

Ikusirik azaldutako eskumen-banaketa eta ingurumena babestearen gaineko oinarritzko legeria onartzeko Estatu-mailako eskumenaren eskema, proiektu arauemaile osoari eragiten dion arazo bati aurre egin behar zaio, alegia, arau autonomikoetan Estatuko arauen oinarritzko manuak errepikatzeari.

Konstituzioaren doktrinaren arabera legeak errepikatzeari dagokionez (*leges repetitae*) (guztiak, martxoaren 25eko 47/2004 KAE [2004, 47 KAE], F. 8, eta abenduaren 21eko 41/2005 [2005, 341 KAE], F. 9), araudi autonomikoek Estatuko araudiak errepikatu ditzaketen bi kasu bereizi daitezke, eta horietako bakoitzak ondorio ezberdinak sortzen ditu. Lehendabiziko suposizioan, kopiatutako arauak eta kopiatzen duen arauak gai-alor bat arautzen dute, Estatuarenak eta autonomia-erkidegoarenak diren eskumenak baliatuz. Bigarren suposizioan, kopiatzen den araua ez da autonomia-erkidegoaren eskumeneko gai-alor batekoa izaten. Horiek horrela, azaldu den doktrinak ezartzen duenaren harian, bigarren egoeran autonomia-erkidegoen gaikuntza ekonomikoa falta izatearen ondorioz Estatuko araua kopiatzen duen araua konstituzioaren aurkakotzat hartuko da (salbuespenezko kasu batzuk daude, Konstituzio Auzitegiak martxoaren 25ean emandako 47/2004 sententzian azaltzen direnak, esaterako); lehenengo kasuan, berriz, legegintza-teknikari egiten zaizkion kritikak alde batera utzita, ezin da

ondorioztatu araua beti izango denik konstituzioaren aurkakoa, kopiatze-jardun horrek kasu zehatz bakoitzean dituen ondorioak aztertu behar baitira.

Horrela, 47/2004 KAEn adierazitakoaren arabera, lehenengo kontsiderazioa egiteko, jakin behar da beharrezkoa den araua kopiatzea arau autonomikoa ulergarria izan dadin, Estatuaren arauaren arabera.

Doktrina hori eta araudi autonomikoaren desplazamenduaren teoriaren ondorio logikoaren doktrina erabat garatuta daude maiatzaren 25eko 102/2016 KAEn, honako hitz hauekin:

«Oinarrizko legeriaren manuen garapenean, legeria autonomikoak oinarrizko manuak erreproduzitu ditzake, eta hala egiten da normalean, operadore juridikoak errazago ezagut dezan aplikatu behar den araudia. Horretarako, testu bakar batean jasotzen da kontuan izan beharreko araudi osoa. Baina, bistan denez, bere birtualtasuna ez da iristen kopiatutako legeriaren izaera aldatzeraino, eta legelari autonomikoari ere ez dio ematen inolako ahalmenik oinarrizko legerian bestelako eraginik sortzeko, garapen-legeria kopiatuta ere. Bereziki, ezin du Estatuko legelariaren ahalmenean inolako blokeorik sortu, zeinak hasieran finkatutako oinarriak aldatzeko ahalmena baitu Auzitegi honetako doktrinak hainbat aldiz aintzatetsi duen moduan (denentzat balio du irailaren 26ko 161/2013 KAEk (2013, 161 KAB), 9. OJ); baina, gainera, aldaketa hori eginez gero, legelari autonomikoa Estatuko oinarrizko legegintzaren aldaketaren arabera egokitu beharko da [KAE hauek: 158/2011, urriaren 19koa (2011, 158 KAB), 8. OJ; 99/2012, maiatzaren 8koa (2012, 99 KAB), 2b. OJ; 146/2013, uztailaren 11koa, 4. OJ; edo 182/2013, urriaren 23koa, 8. OJ].

Baina egokitzapen hori gertatzen ez bada, lehen mailako operadore juridikoak gatazkan dauden bi legeetako bati eman beharko dio lehentasuna, bestearen kaltetan. Edo, irailaren 21eko 195/2015 KAEk (2015, 195 KEB) ebatzitako suposizioan, Administrazioak araudi autonomikoa ezartzen du eta ez Estatuko indarreko oinarrizko legeria, edo bestela esanda, prozesu konstituzional hau sortzen duen edo maiatzaren 16ko 66/2011 KAEk ebatzitako (2011, 66 KEB) suposizioan gertatzen den moduan, Administrazioak kontuan hartzen du oinarrizko legeria berria, eta dagoeneko indargabetutako oinarrizko legeriak errepikatzen zuen aurreko legeria autonomikoa aplikatu gabe uzten du.

Lehen mailako operadore juridikoak, arauon hartzaile nagusi denak, gatazkan dagoen legeetako baten desplazamendu teknikarekin jardun behar du eta ez du legitimaziorik konstituzio-kontrakotasuneko gairik pizteko; izan ere, horretarako planteamendua epaileek eta auzitegiek egin dezakete soilik. Hala, egoera desatsegin bat sortzen da, gaia judizializatu egiten baita. Beraz, irtenbiderik logikoena, Estatuko oinarrizko legeriari lehentasuna ematea da, autonomia-erkidegoak berak sortutako egoeraren aurrean, horrek ez baitu bete bere garapen-legeria oinarrizko legeria berrira berehala egokitzeko betekizuna. Irtenbide hori legeria errepikatuaren izaera ez funtsezkoaren ondorio da, oinarrizko legeriari ez baitio ezer ere eransten hura benetan garapen-arauditzat hartu ahal izateko».

Arazo honek gainera beste ikuspuntu erantsi bat du autonomia-legegileak errepikatzean ez badu erabiltzen Estatuko oinarrizko manuen literalotasuna.

III.c 3).- Kalitate arauemaile materiala: premia, efikazia eta proportzionaltasunaren printzipioak.

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeko 4tik 7ra bitarteko artikuluetako erregulazio onerako printzipioak, HAAPERi txertatu zaizkio. Printzipio horiek Europar Batasuneko Legegintza hobea (Better Regulation) programaren barruan daude, 2001ean argitaratutako gobernantzaren gaineko liburu zuriarekin hasi zen araudiak sinplifikatzeko mugimenduarekin batera.

Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APEL) 129. artikuluan bildutako arauketa onaren printzipioak, horien arabera jardun behar dute Administrazio Publikoek, dira premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia; hala, legeen edo erregelamendu-proiektuen zioen azalpenean edo aurreproiektuen atarikoan, hurrenez hurren, behar bezala justifikatu behar da horietara egokitu dela.

Manu horren arabera, premia- eta efikazia-printzipioen arabera, ekimen arauemaileak interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritua egon behar du, eta haiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan behar du. Gainera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko

ezinbestekoa den arauketa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsonen betebeharrak gutxiago ezarriko direnik.

Bestetik, administrazio publikoan eta ordenamendu orokorrean aplikagarri den APELen 130.1. artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoek berrikusi egingo dute aldian behin beren araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitze eta egiaztatze eta indarrean diren arauak lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden hietan ezarritako kostuak eta kargak.

Aurrekari arauemaile hauekin eta kontuan izanda 1998an onartutako arau bat ordeztuko duen araua dela –hainbat aldaketa izan dituen–, aipatutako parametroen araberrako ekimen legegilearen azterketa xehatu bat falta dela iruditu zaigu.

KAK aitortu berri du (2018ko maiatzaren 24ko 55/2018 KAE) eskumen-banaketa arauaren aurkakoa dela autonomia-erkidegoei printzipio horiek inposatzea, ahalmen legegilea gauzatzeko; hala ere, ez dugu ahaztu behar printzipio horiek termino baliokideetan jasota daudela Gardentasunari eta Herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proposamenean, une honetan Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari dena.

Aurretiazko inpaktu-ebaluazioa –Gardentasunari eta Herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proposamenean jasotzen den definizioaren arabera– hau da: «Modu zehatzean eta ordenatuan eskuratutako informazioaren behaketa-, neurketa-, analisi- eta interpretazio-prozesu sistematikoa egitea, balioespen kualitatibo eta, ahal denean, kuantitatibo bat egiteko politika publiko ezberdinek izan ditzaketen kostuen eta onura ekonomiko, sozial eta ingurumeneko gaitan. Hala, ebidentzietan oinarritutako proposamenak edo balorazioak egin ahal izango dira haren diseinuaren, praktikan jartzearen eta inpaktuaren inguruan, organo eskudunak hartu beharreko erabakiaren berri eman dezan». Hala bada, ez da gehiegizkoa esatea espedientean txertatutako memoriek ez dutela ebaluazio hori egin.

III.c) 4.- Bestelako gaiak.

Autonomia-erkidego honetako Omnibus Lege Proiektuaren izapidetzea zela eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak azaleratutako gai bat gogoratu behar da, 14/2011 irizpena. 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoko

Ingurumena babesteko lege orokorra aldatzeari dagokionez adierazten zuen, aipagai zuela legearen beraren eranskinean jasotzea sailkatutako jarduerarako lizentzia-araubideari eta sailkatutako jarduerarako jakinarazpen-araubideari lotutako jardueren zerrenda: «Ematen du eduki hori (nagusiki teknikoa, xehetasunezkoa eta aldaketak izan ditzakeena) gehiago dagokiola erregelamenduzko xedapen bati».

Bada, uste dugu txostenaren xede den proiektuak akats bera duela, bertan egiten den alderdi tekniko eta prozedurazkoen arauketa ez delako oso egokia lege-lerruneko arau batentzat. Sailak erabaki duenez ingurumen-alorreko osoki berria den arauketa bat egitea, ondo egongo litzateke lege-testuan mantentzea oinarrizko gaiak eta arauzko garapenerako uztea teknikoagoak eta prozedurazkoagoak diren gai guztiak. Alabaina, proiektuak planteatzen duen eranskinak Dekretu bidez alda daitezke. Aurrerago berriro aipatuko dugu gai hau.

IV.- AURREPROIEKTUKO EDUKIAREN AZTERKETA.

Artikulatuaren azterketari berari ekiten badiogu, eta azterketari azalpenean ahalik eta argitasunik gehien emateko helburuarekin, lege-aurreproiektuaren hainbat artikuluren ordena jarraituko dugu eta iruzkinen bat egin behar zaien puntuetan soilik geldituko gara.

Aztertutako lege-proiektuak azalpen-zatia (atarikoa), 9 titulutan banatutako 116 artikulua, Xedapen Gehigarri bat, bi Xedapen Iragankor eta sei Azken Xedapen eta 8 Eranskin ditu.

IV. A) Izenburua: Ingurumen Administrazioaren Legea.

Izenburuak era labur, zehatz, doi eta osatuan adierazten du gaia.

IV. B) Azalpen-zatia.

Azalpen-zatian arinki jasotzen dira araua lantzeko zioak, eta adierazten da zer helburu bete nahi diren, zer oinarri juridikok gaitzen duten araua, arauketaren printzipio eta ildo

orokorrak hobeto uler dadin, eta indarreko araubidean izango duen eragina. Bereziki aipatzen dira berritasunak dakartzaten alderdiak. Era berean, Legearen edukia eta testuaren antolamendua laburtzen dira, kasu honetan tituluen arabera.

IV. C) Xedapen-zatia:

IV.c) 1.-Lehenengo titulua. Xedapen orokorrak.

Oro har, lege-aurreproiektua xedapen-zatian egokitu egiten da bai aipatutako konstituzio, estatutu eta legeko xedapenetara bai Konstituzio Auzitegiak horien eta horiek osatzen duten sistemaren inguruan egindako interpretazioetara. Bestalde, nahiz eta testua, oro har, zuzen idatzita dagoen eta ez duen ulertzeko akats berezirik, uste dugu egokia dela hobetzeko, zenbait kontsiderazio adieraztea. Ondorioz eta lehenago adierazi den bezala, soilik aipatuko dira iruzkinen bat egin behar zaien artikulua, eta ulertzen da alde batera uzten direnek ez dutela lege-eragozpenik edo bestelakorik.

Nabarmentzekoa da, gainera, aurreproiektuak eduki programatikoa duen artikulua kopuru handi bat duela. Artikulu horiek Euskadiko Administrazio publikoen jarduketa arautu eta orientatzen dute ingurumen-administrazioaren alorrean, eta beste batzuek etorkizuneko konpromisoak ezartzen dituzte honelako aditzekin: «Sustatuko dituzte», «bermatuko dituzte», «bultzatuko dituzte», «emango dituzte» edo antzekoak (13., 15., 77., 78., 79., 80., 82., 83., 84. eta 85. artikulua). Kasu askotan, beraz, botere publikoek egokien jotzen duten eran lortu beharreko printzipioak eta helburuak adierazten dira, berehalakoa ez den, baizik eta bitartekoa den, eduki arautzaile batekin, helburu horiek gauzatzen diren arauak edo planak onartzen direnean.

Gai honi dagokionez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak hau adierazi du: *«Manuek ez dute berez aldaketa arauemailea sartzeko, etorkizunerako dagokion araua lantzen esku hartzen duten eragileentzako manu baizik ez baitira; beraz, orain egiten den azterketa baldintzatuta egongo da manu horiek dagozkien tresna arauemaileen bidez izango duten etorkizuneko zehaztapenera».*

Aurrekoa finkatuta, lege-aurreproiektuaren zioen azalpenean adierazten den bezala: *«I. tituluak, xedapen orokorrei buruzkoak, Legearen helburua eta horrekin lortu nahi diren*

xedeak biltzen ditu. Hala, ingurumen-babesaren esparru arauemailea osatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan, bai eta administrazio publikoen jarduketak-lerroak finkatzen dituzten eta horien oinarrian dauden printzipioak, eta babes hori arautuko duten arauak interpretatzeko baliagarriak izango diren irizpideak ere. Gainera, titulu honetan pertsona publiko zein pribatuak ingurumenaz gozatzeko, hura babesteko, zaintzeko eta hobetzeko dituzten eskubideak eta betebeharrak adierazten dira».

2. artikuluan jaso dira legea aplikatzeko behar diren definizioak. Horietako askok Estatuak emandako oinarritzko arauen lege-manuak errepikatzen dituzte. Puntu honetan, adierazi behar da testu arauemailetako definizioak justifikatzen direla baldin eta terminoaren edukia ezezaguna edo nahasia bada arauaren hartzailearentzat eta zehaztu egin behar bada araua ulertzeko, edo baldin eta terminoak eduki jakin eta zehatz bat, hau da, terminoaren esanahi arruntarekin alderatuta bereizi edo zehatzago egiten duena izan behar badu ondore juridikoetarako. Kasu honetan, adierazi dugun bezala, termino horietako asko Estatuko araudiak lantzen ditu nahiz eta aurreproiektuko definizioak alderdi askotan aldendu egiten diren, esaterako, arau hauetako edukietatik: *abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena*, edo *abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa*, horiek «oinarrizkoak» dira, eta ez dira jasotzen aldaketa hori justifikatzen duten arrazoiak. Horrela, uste dugu, jasotzekotan, definizio horiek Estatuko oinarritzko legeriako terminoetan jaso behar direla, horrek ez du eragozten babes-neurri gehigarriak ezartzea (Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz adierazitako doktrinaren arabera, besteak beste, 60/2013 KAE), Estatukoak baino zorrotzagoak izan baitaitezke eta ez baitute urratzen eskumen-banaketaren konstituzio-sistema.

Ildo horretan, ezin zaio eragozpenik jarri ingurumen-organoaren derrigorrezkoak eta lotesleak diren txostenen d), e), i) eta j) letretako definizioen sarrerari, derrigorrezkoak eta lotesleak izan beharrean, babes-arau gehigarri baten zatia izango bailitzateke, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak emandako zentzuan.

Nabarmendu egin behar da «publiko interesduna»¹ eta «publiko orokorra» kontzeptuen arteko lege-bereizketa; izan ere, nabarmenki aldentzen da lege honetako dikotomiatik:

¹ 1998ko ekainaren 25ean, Erkidegoak «Aarhusko hitzarmena» sinatu zuen eta erkidegoko legeria hitzarmen horretara egokitzeke, berreste aldera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko maiatzaren 26ko 2003/35/Zuzentaraua onartu zen. Bertan, «publiko interesduna» terminoa agertzen da, eta 2. artikuluen 2. apartatuan jasotako ingurumen-

uztailaren 18ko 27/2006 Legea, ingurumenaren alorrean jendaurreko informazioarako sarbide, parte-hartze publiko eta justiziarako sarbidearen eskubideak arautzen dituena (2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauak sartzen ditu) «publiko interesdun» eta «publiko» terminoei dagokienez), azken hori abstraktua da, herritarrak eta horien elkarteak hartzen ditu kontuan, eta «pertsonei interesduna» terminoak, «publiko interesdun» baino zabalagoa, ez du legeria administratiboan jasotako kontzeptu berdina indartu besterik egiten (lehenengo urriaren 26ko 30/1992 Legean eta orain urriaren 1eko 39/2015 Legean). Legeria administratiboak izaera hori, agian 39/2015 Legearen 4.1 artikuluko c) letrak izan ezik, pertsona (fisiko edo juridiko) indibidualei esleitzen die eta ez talde bat osatzen duten pertsoneri, hori baita DRAEk «publiko» terminoari ematen dion definizioa, arrazoi horrengatik –aurrez adierazitakoez gain– uste dugu egokiagoa dela kontrajartzea «publiko orokorra» kontzeptuari «pertsonei interesdunak» kontzeptua «publiko interesduna» kontzeptua beharrez.

Bestalde, egia bada ere testuan zehar gero agertzen diren kontzeptu jakin batzuen definizioak gehiago zehazten direla eta segurtasun juridiko handiagoa dutela araudia zehazki aplikatzean, egia da baita ere, efektu hori arindu egiten dela ez bada izen bakarria mantentzen.

4. artikulua ezartzen du Legeko helburuak lortzera bideratutako jarduerak onura publikokoak edo interes sozialekoak deklaratu ahal izateko aukera, uki daitezkeen ondasun edo eskubideen desjabetze-ondoreetarako. Estatuko Kontseiluak, Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzko Legearen aurreproiektuari buruz 2007-05-17an eman zuen epaian (espediente-zenbakia: 913/2007) adierazi zuen ez duela konstituzio-arazorik planteatzen onura publikoaren arauketak desjabetze-ondorioetarako (Lege horretako 4. artikulua bigarren zenbakia) eta Konstituzio Auzitegiak ere hau adierazi du, bestalde, Lege horri dagokionez: «*Legearen 4.1. artikulua adierazten du eboluzionatu egin dela natura-ondarea eta biodibertsitatea onura publikoko ondasuntzat jotzean; izan ere, doktrina zientifikoaren arabera, kontuan hartzen ditu beren araubide juridikoa (alde batera utzita beren titulartasun publiko edo pribatua, edo baita res nullius izatea ere) interes orokorrari lotuta dutenak, horiek leheneratu eta kontserbatzeko, eta horiez guztiez gozatzeko helburuarekin. Beraz, hau adierazten denean: «Horiek funtzio sozial nabarmena dute pertsonen garapen, osasun eta ongizaterekin harreman estua dutelako eta garapen sozial eta ekonomikoari ekarpena egiten dietelako», manu horrek EKren 128.1 artikuluaekin bat egiten du,*

erabakien prozedurek ukitzen duten publiko bezala, edo ukitua izan daitekeena, edo horretan interesa duena bezala jasotzen da.

herrialdearen aberastasun guztia edozein modutakoa izanda, eta edozein izanda titulartasuna interes orokorraren mende jartzen baitu».

Halere, jabaria bortxaz eskualdatzen duen tresna juridikoa EKren 33.3 artikuluan aurreikusitako nahitaezko desjabetzea da –aurrez onura publikoa edo interes soziala justifikatuta, kontuan hartuta jabetzaren funtzio soziala eta eskubide-gabetzearekiko kalte-ordain egokia ordainduta desjabetze-eragiketaren ondoren jabeak kontserbatzen duen jabetza soil edo eskubideen aprobetxamendu ekonomiko edo errentagarritasunaren ikuspuntutik (37/1987 KAE)–. Testuinguru horretan, arau honen eraginez, lege honek helburuak interes publikokotzat kategorizatzeak aukera ematen du onura publiko edo interes sozialekotzat jotzeko horien alde egin beharreko jarduerak, geroko lege batek *causa expropriandi* deklaratu beharrik gabe; hau da, onura publikoaren adierazpen orokor bat egiten du Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 10. artikulua zentzuan. Hori gero ondasun zehatzei aplikatu behar die administrazio eskudunak, eta horregatik aipatzen da alorreko legeriak ezartzen duenaren arabera jardun beharko dela, eta legeria horrek desjabetzearenak baino ezin du izan.

5. eta 6. artikuluek jasotzen dituzte, hurrenez hurren, ingurumenarekiko pertsonen eskubideak eta betebeharrak; hala, indargabetzen den Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean ezarritakoa errepikatzen da hein batean, baita uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritakoa ere, informazio-sarbideari eta parte-hartzeari buruzko eskubideei dagokienez (oinarrizko Lege horretako 1. eta 3. artikuluek).

IV.c) 2.-Bigarren titulua. Ingurumen-politikaren eskumenak eta koordinazioa.

Lege-aurreproiektu honen azalpen-zatiaren (1.h art.) hasieran adierazten da legearen xedea dela ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko esparru arauemailea, eta pertsona fisikoen eta juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehaztuko direla, besteak beste, helburu hau lortzeko: «*Sustatzea behar diren neurriak ingurumenean eragina duten jardueren ordenamenduan hainbat erakundek eta administrazio publiko eskudunek dituzten eskumenak koordinatzeko*».

Arauaaren bigarren tituluak ingurumenaren alorreko eskumenak arautzen ditu eta aldatu egiten du gaur arte Euskal Autonomia Erkidego, lurralde historikoetako foru-organoen eta autonomia-erkidegoko udalen erakunde komuneren arteko eskumen-banaketa.

Lege-aurreproiektu honen Azken Xedapenetatik Lehenengoak jasotzen du Autonomia Erkidegoko erakunde komuneren eta Foru Organoen arteko erlazioei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c) 6. artikulua aldaketa:

«Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komuneren eta Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. c) 6. artikulua, eta honela gelditzen da idatzita:

“6.- 10.000 baino biztanle gutxiago dituzten udalerrietan, eta 10.000 baino biztanle gehiago dituzten udalerrietan dagokion Udalak hala eskatuz gero, neurri zuzentzaileak ezarriko dira sailkatutako jarduerarako lizentzia duten jardueretan, neurri horiek Lurralde Historiko bat baino gehiago edo erkidegoz kanpoko Erakunde Publiko bat baino gehiago ukitzen ez badituzte eta Legeak udal Erakundeei esleitutako eskumenei kalterik eragiten ez badie”».

Gaur egun indarrean dagoen Autonomia Erkidegoko Erakunde Komuneren eta Foru Organoen arteko erlazioei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak mugatu egiten ditu Erakunde Komuneren eta foru-organoen arteko eskumenak, titulartasunean eta baliatzean. Aldatu den manuak ezartzen du lurralde historikoen eskumen honi dagokionez, Erakunde Komuneren legeria beren lurraldean betearazi behar dela:

«7.c) 6. artikulua. Era berean, bizitegi-lurzoru hiritarrean egon daitezkeen jarduera gogaikarri, osasun-galgarri, kaltegarri eta arriskutsuak kalifikatzeko, zuzenketa-neurriak agintzeko, ikuskatzeko eta zigortzeko gaitasuna, betiere, ez badio eragiten lurralde historiko bati baino gehiagori edo erkidegoz kanpoko erakunde publiko bati, eta Legeak udal Erakundeei emandako eskumenei kalterik gabe».

Proiektu arauemaile honen **7. eta 8. artikulua** eta Azken Xedapenetatik Lehena aztertu ondoren LHL eta ETELi dagokienez, uste dugu aurreproiektuak errespetatu egiten dituela lurralde historikoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei emandako eskumenak.

Lege-aurreproiektuaren **9. artikuluan** araututako Ingurumen Esparru Programari (IEP) dagokionez, horren gaur egungo araudiarekin alderatuta, Ingurumenerako Aholku Batzordeak txostena egin behar badu ere, kendu egin da azken honek dokumentua lantzeko duen lankidetzeta.

Bestalde, eta Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrarekin alderatuta, lege-aurreproiektuaren 9. artikulua zehaztu egiten du planaren edukia eta hau adierazten du: «*Ingurumenari buruzko diagnostiko bat, indarrean dagoen bitartean ingurumenaren kalitatea hobetzeko gauzatu beharreko estrategia-ildoak eta konpromisoak izango ditu*». Horrela idatzita, badirudi IEPren helburu bakarra ingurumena hobetzea dela, baina egiazki hori tresna bat da helburuak eta lehentasunak ezartzeko; beraz, idazketa hori berrikustea iradokitzen dugu.

II. Titulu horretako beste berritasun bat da Ingurumen Kontseilua eratuko dela, hau da, administrazio publikoen eta ingurumen-politiken osieran, kontsultan eta jarraipenean gizarte- eta ekonomia-interesak ordezkatzeko dituzten sektoreen arteko lankidetzarako organoa eta aholku-organoa. Organo honek gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenerako Aholku Kontseilua ordeztuko ditu. Bi organo horiek aurreikusita daude otsailaren 27ko 3/1998 Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean.

10. artikuluan aipatzen den Ingurumeneko Aholku Batzordeari dagokionez, lehenik eta behin azaldu behar da sailak kide anitzeko organoak sinplifikatzeko duen borondatea bat datorrela erabat administrazio eraginkorrago bat bultzatzeko konpromisoarekin. Konpromiso hori Euskadi 2020 Gobernu Programan jasota dago; 60. konpromisoa, administrazio publiko hurbil, eraginkor eta berritzailea bultzatzea.

Gainera, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak batzorde parte-hartzaileen eta aholku-emaileen berrikuspen bat aurreikusten du, eta Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Lege Proposamenaren 3. xedapen gehigarriak Euskadiko Administrazio Orokorreko kide anitzeko organoak aztertuko eta balioetsiko dituen txosten bat egitea aurreikusten du.

Horren guztiaren ondorioz, «Kide anitzeko organoak eta Politika Publikoen Euskal Kontseilua balioesteko eta hobetzeko» proiektua jarri da martxan (PEGIP 2020). Horren helburuek bat egiten dute aurreproiektu honetan hainbat kide-anitzeko organo bateratzearekin, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea, Euskal

Autonomia Erkidegoko Ingurumenerako Aholku Kontseilua eta Naturzaintza - Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordea.

Adierazi behar da aurreproiektuaren arauketa zehatza koordinatu egin behar dela Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektuan ezarritakoarekin, hori ere izapidetzen ari dira une hauetan. Sailak kide anitzeko organo batean elkartu nahi ditu alor hauetan eskumenak dituzten eta Sailak gaur egun dituen kide anitzeko 3 organoei (Ingurumen Batzordea, Ingurumenaren Aholku Batzordea eta Naturzaintza) esleitutako funtzioak, bi aurreproiektuetako idazketak koordinatu egin beharko dira aurreikuspenen arabera, onarpen-ordenari dagokionez. Aholkularitza Juridikoko Zerbitzu honek ulertzen du lehenik onartzen den aurreproiektuak hartu behar duela organoa sortzeko eta bere funtsezko erregulazioa sortzeko ardura, eta ondorengo aurreproiektuak dagoeneko sortutako organoaren erreferentziadun testua jaso behar duela, eta, hala badagokio, bere arloko eskumenen esleipena ere bai. Gainera, onartuko den bi testuetako lehenak horri buruzko berriazko xedapen iragankor bat jaso beharko du.

Organoaren funtzioei dagokienez, aipatu behar da Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektuaren idazketak ez duela bat egiten Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuarekin.

Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren bederatzigarren artikulua eta ondorengoek arautzen duten Ingurumen Batzordearen funtzioen artean, besteak beste, hau dago: «*Batzordean ordezkariak duten erakundeek ingurumenaren alorrean egiten dituzten jarduketan jarraipen-lan egokiak egitea*». Tamalez, politika publikoak ebaluatzeko beharrari ekarpena egingo liokeen funtzio hau, nahiz eta zioen azalpenean aipatu, ez dago jasota testu arauemailean; beraz, gomendatzen dugu gai zehatz hau berrikustea.

Halaber, ez dugu ulertzen zein arrazoiengatik Ingurumen Batzordea lankidetzako-organogisa eratuta beste administrazio publiko batzuei kendu egiten zaien aukera ingurumenaren alorrean hari txostenak eta proposamenak eskatzeko, hori jasotzen baitu otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 13.b) artikulua, gaur egungo Ingurumenerako Aholku Batzordearen funtzioak zehazten dituenak.

Azkenik, Administrazio publikoen araubide juridikoa urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen (SPAJL) Atariko Tituluaren II. kapituluaren arautzen da.

10. artikulua hau zehazten du: «*Ingurumen Batzordea aholku-organo gisa sortuko da*». Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen arabera, aholku-organoak administrazio publikoen administrazio-organo berezi gisa eratzten dira, eta horiek artikulua hauetan ezarritakora egokitu behar dute:

«5. artikulua Administrazio-organoak

1. Administrazio-organoak izango dira hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak dituzten eginkizunak esleituta dituzten administrazio-unitateak, edo nahitaezko jarduketak egiten dituztenak.

2. Administrazio Publiko bakoitzak zehaztu behar du, nork bere eskumenen eremuan, zein administrazio-unitatek osatzen dituzten bere administrazio-organoak, hain zuzen ere, ezarrita duten antolaketaren arabera espezialitateei dagozkienak.

3. Administrazioko organo bat sortzeko gutxienez ondorengoak zehaztu behar dira:

a) Dagozkion Administrazio Publikoan nola integratuko den eta hierarkikoki zeinen mendean egongo den zehaztu behar da.

b) Izango dituen eginkizun eta eskumenak mugatu behar dira.

c) Martxan jartzeko eta funtzionatzeko behar dituen kredituak jarri behar dira.

4. Ezin izango da organo berririk sortu, lehendik dagoenen bat bikoiztea dakarrenean, baldin eta, aldi berean, lehendik daudenei eskumena kendu edo behar bezala murrizten ez bazaie. Horretarako, organo berri bat sortu aurretik egiaztatuko da Administrazio Publiko berean beste organo batek lurralde eta udalerrri berean eginkizun berbera betetzen ez duela.

7. artikulua.- *Organo aholku-emaileak.*

Administrazio aholku-emailea, administrazio aholku-eskatzailearekiko autonomia organikoa eta funtzionala duten berariazko organoak erabilia eratu daiteke, edo administrazio aholku-eskatzailearen zerbitzu juridikoen bitartez antola daiteke.

Horrela egiten bada, zerbitzu horiek ezin izango dira egon hierarkian, ez hierarkia organikoan ez funtzionalean, aholku-gai diren egintzak sortu edo xedapenak egin dituzten organoen mendean, eta ezingo dute organo haiengandik jaso ez jarraibiderik, ez gidalerrorik, ezta inolako abisurik ere. Kide anitzeko organo moduan jardungo dute berme horiek bete daitezen».

Justifikazio-memorian ez denez organo hau sortzea justifikatzen, ez dago argi organo horrek bat egiten duen aholku-organo batekin; beraz, aholkatzen dugu kalifikatzaile hori kentzea edo behar bezala justifikatzea aurreproiektu arauemailearekin batera dagoen dokumentazioan.

Bestalde, kide anitzeko organoa denez, ondoriozta daiteke bere konfigurazioa eta osaera. Gai honi aplika dakioke araubide berezi hau: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. Kapituluko hirugarren atala.

«15. artikulua. Araubidea.

1. Kide anitzeko organoen araubide juridikoa atal honetako araei lotuko zaie, organo horiek sartuta dauden administrazio publikoen antolaketakoko berezitasunen kalterik gabe.

2. Administrazio publikoetako kide anitzeko organoek beren funtzionamendu-arauak ezar edo osa ditzakete, organo horietan gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek parte hartzen badute; eta gauza bera egin dezakete hainbat administrazio publikotako ordezkari osatutako kide anitzeko organoek, nahiz eta gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek ez parte hartu organo horietan.

Apartatu honetan adierazitako kide anitzeko organoak dagokien administrazio publikoan sartuko dira, baina ez administrazio horretako egitura hierarkikoan,

salbu eta organoaren sortze-arauek, eginkizunek edo izaerak horretara bultzatzen dutenean.

(...)»

10. eta **11. artikulua** azterteaz amaitzeko, adierazi behar da, onartutako lege bat ez bada ere, egokia dela, halaber, adieraztea zuzendaritza proposamengileak balora dezan, Euskadiko sektore publikoaren lege-proposamenak, gaur egun Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari denak, kide anitzeko organoak sortzeko arauetan errespetatu behar den gutxieneko eduki bat jasotzen duela.

IV.c) 3.-Hirugarren titulua. Ingurumen-gaiei buruzko informazioa, herritarren parte-hartzea eta justiziarako sarbidea.

Legearen zioen azalpenean adierazten den bezala, legea ingurumen-gaietarako informazio, jendearen parte-hartze eta justiziarako sarbideari buruzkoa da eta helburua hau da: *«Sistematika berri bat diseinatzea ingurumeneko administrazio publikoaren eta Euskadiko herritarren artean; horrela, erraztu egingo da ingurumeneko erabakietan parte hartzea eta arautu egingo dira ingurumen-gaietan informaziorako eskubidea izatea eta horren hedapena bezalako alderdiak. Sistemak erakunde publiko zein pribatuek ingurumenari buruz sortutako informazio guztia bilduko du, kudeaketan, hedapenean eta erabakiak hartzean erabili ahal izateko. Eta hori ere arautu egingo da, ingurumen-gaiekin lotutako informaziorako sarbidea modu zabalean bermatzeko, teknologikoki modu aurreratuan, administrazio elektroniko baten eskakizunekin bat etorrira».*

Horrela, **12. artikulua** berezitasun bat du; hau da, lehenengo zenbakiak «ingurumen-informazio» terminoaren definizio bat du Lege honen ondorioetarako eta, halere, ez du luzatzen xedapen orokorreari buruzko I. Titulua eta horren barnean, definizioak dituen 2. artikulua. Lege, dekretu, agindu eta ebazpenen proiektuak egiteko gidalerroen arabera (gobernu-kontseiluak onartu zituenak 1993ko martxoaren 23an), arauaren artikuluek lantzen den gaiaren alderdi bat diziplinatu behar dute, hau da, manu, agindu, jarraibide edo arau bat jaso behar dute eta ez definizio bat; beraz, hori sistematikoki hobeto kokatuta egongo litzateke adierazitako artikuluan.

Bigarren zenbakiak uztailaren 18ko 27/2006 oinarrizko Legearen 8. artikuluan aurreikusitako ingurumen-egoerari buruzko txostenak sartzen ditu.

13. artikulua ingurumen-informazioaren hedapena arautzen du eta hein batean jaso egiten ditu uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 6. eta 7. artikuluetako aurreikuspenak. Halere, sarbide publikorako informazio-sistema horren gutxieneko edukari dagokionez, faltan botatzen da aurreproiektuaren 12.2 artikuluan jasotako ingurumen-egoerari buruzko txostenak sartzea, hori jaso egiten baitu uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 7. artikulua.

14. artikulua, ingurumenari buruzko informazioa eskatzea jasotzen duen artikuluan, ezartzen da eskaera horiek izapidetuko direla ingurumen-gaietako informaziorako sarbide-eskubideari buruzko Zuzentarauaren arabera eta bertan ezarritako bermeekin, baita Zuzentaru hori Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzen duen arauaren arabera ere. Bada, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak egokitu egiten ditu ingurumen-informaziora herritarrak sartzeari buruz 2003ko urtarrilaren 28an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako 2003/4/EE Zuzentaruak eta ingurumenarekin erlazionatutako zenbait plan eta programetan herritarrek parte hartzeko neurriak ezartzen dituen 2003ko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/35/EE Zuzentaruak, eta 10. artikuluan ingurumen-informazioari buruzko eskaeren inguruko aurreikuspen bat du eta bertan adierazten du zer ulertu behar den eskaerak ebazteko agintaritzak publiko eskudun gisa, halaber, eskaerak izapidetzeko ezartzen diren prozedurek errespetatu behar dituzten bermeak adierazten dira. Halere, lege-aurreproiektuak ez duenez definizio bat agintaritzak publiko gisa ulertu behar denaren inguruan, interpretazio-arazoak sor daitezke artikuluko horretako bigarren zenbakian hau aipatzen delako: «*Informazioa duen Euskadiko administrazioetako edozeinetako organo edo agintaritzak eskuduna*» eta horrek ez dirudi barnean hartzen dituenik zuzenbide publikoko korporazioak eta gainerako pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, funtzio publikoek baliatzen badira, jabetza, merkatu eta ondasun higiezinak notario eta erregistratzaileak barne; hori berariaz aipatzen du, aldiz, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak (2.4.1.d) art.).

14. artikuluko hirugarren zenbakiak ezartzen du eskaera jasotzen denetik hilabete bateko epea, edo bi hilabetekoa eskatutako informazioa bolumen edo konplexutasun handikoa bada, agintaritzak publiko eskudunak eskatutako informazioa emateko edo ukatzeko arrazoiak zehaztuz; horrela, aldeni egiten da Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 18.4 artikuluan ezarritakotik, horrek bi hilabeteko gehieneko epe bat ezartzen baitu.

14. artikuluko laugarren zenbakiak berriz ere garamatza ingurumen-informaziorako sarbide-eskubideari buruzko Zuzentara eta Euskal Autonomia Erkidegoan hori egokitzeko araudira, informazioa ukatzeko arrazoiak zehazteko ondorioetarako. Zehazki, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 13.3 artikulua ezartzen du artikulua horretako 1. eta 2. zenbakietan aurreikusten den ingurumen-informazioa emateko betebeharrarekiko salbuespenak aplikatu ahal izango direla aipatutako Legeko II. Tituluko II. Kapituluan jasotako hedapen-betebeharrei dagokienez. Eta zentzu horretan, ez legoke soberan aurreproiektuaren 14. artikulua antzeko aurreikuspen bat izatea, hau da, kasu horietan hedapen-betebeharra baztertzen duen aurreikuspen bat izatea.

15. artikulua antzeko baldintzetan arautzen du ingurumen-partaidetza, halere uztailaren 18ko 27/2006 Legeko 3.2, 16., 17. eta 18. artikuluek baino laburrago.

Aurreproiektuaren **16. artikulua** eta Nafarroako Foru Erkidegoak oso antzeko baldintzetan arautzen dute ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean ekintza publikoa.

Aurreproiektuaren **17. artikulua** ezartzen da zerbitzu elektronikoak nahitaez erabili behar direla EAEko administrazio publikoek Lege horren esparruan gauzatutako jarduketetan, hau da, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean aurreikusitako eskakizuna baino handiagoa da.

IV.c) 4.-Laugarren titulua. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua.

Ingurumen Administrazioaren Lege aurreproiektuaren berritasun handiena Titulu honetan jasotzen da. Horren helburua da, hain justu, esparru juridiko bat xedatzea, zeinek ingurumen-babes handia bermatuko duen, gaur egungo euskal gizarte eta ekonomia egoerara egokituta.

Arauren lehenengo artikuluan ezarritakoaren arabera Legearen helburua hau da: *«Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua arintzea, administrazio-prozedurak sinplifikatuz eta bateratuz, ingurumenean eragina duten jardueretan esku hartzeko*

teknikak arautuz, eta, betiere, bertan xedatutako baldintzak eta eskakizunak integratuz».

lido horretan, administrazioak esku hartzeko teknika berriak aurreikusten ditu Legeak, esaterako, ingurumen-baimen bakarra, administrazio-prozedura sinplifikatu eta arintze aldera eta ingurumena egiazki babesteko helburuarekin, jarduera ekonomiko desberdinak garatzen diren ingurunearekin bateragarri eginez, beharrezkoak ez diren izapideak kenduz. Horrek guztiak asko hobetuko du bai administrazio publikoen lana bai Euskadiko jardueren garapena.

Administrazioaren esku-hartzea arindu eta sinplifikatzeko helburuarekin Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua arindu eta sinplifikatzeko diseinatutako neurri hauek sistema bat eratzen dute. Hala, sistema horrek ingurumenean eragina duten jardueretan esku hartzeko hainbat teknika arautzen ditu eta ingurumena eta herritarren osasuna babesteko interes orokorra asebetetzen du baina, era berean, bermatzen du botere publikoen jarduketak gardentasuna, efizientzia, ekonomia eta efikazia izatea, hau da, administrazio on baten funtsezko elementuak izatea.

IV. Tituluak ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua 5. kapitulutan arautzen du.

Xedapen orokorreari buruzko lehenengo kapituluak 18. artikuluan ingurumenean esku hartzeko hainbat araubide jasotzen ditu:

- ✓ Ingurumen-baimen integratua (aurrerantzean IBI).
- ✓ Ingurumen-baimen bakarra (aurrerantzean IBB).
- ✓ Jarduteko lizentzia sailkatua (aurrerantzean JLS).
- ✓ Jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpenaren araubide juridikoa.

Jarduerak eta instalazioek ingurumenean esku hartzeko araututa dauden hainbat araubideren aplikazio-esparrua izatea edo araubide horien mende egotea jarduerak horiek ingurumenean eragin txikiagoa edo handiagoa izateak baldintzatuko du eta arauaren I. eranskinaren zenbait apartatutan zerrendatzen da:

- ✓ I.A eranskineko jarduerak eta instalazioak, ingurumen-baimen integratuaren araubide juridikoaren eraginpean.

- ✓ I.B eranskinako jarduerak eta instalazioak, ingurumen-baimen bakarraren araubide juridikoaren eraginpean.
- ✓ I. C eranskinako jarduerak eta instalazioak, jarduera sailkatuaren lizentziaren erregimen juridikoaren eraginpean.
- ✓ I. D eranskinako jarduerak eta instalazioak, jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioaren erregimen juridikoaren eraginpean.

18.3 artikulua arabera, Lege honetan aurreikusitako jarduteko lizentzia sailkatuaren eta jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpenaren araubide juridikoak aplikatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoaren aurrean edo dagozkion beste administrazio publiko batzuen aurrean komunikazio, jakinarazpen edo erregistro izapideak egiteari inolako kalterik egin gabe, araudi sektorialak ingurumenarekin lotuta xedatzen duenarekin bat etorrira.

Lege honen aplikazio-eremutik kendu dira produktu edo prozesu berriak ikertzera, garatzera eta esperimentatzera bideratutako jarduerak eta instalazioak, edo horietako batzuk, ez dira ingurumenean esku hartzeko 18. artikuluan aurreikusitako araubideen eraginpean jarriko, hori baimentzeko eskumena duen ingurumen-organismoak (horren eraginpean egonez gero) ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak xedatzeari kalterik egin gabe; horretarako, sustatzaileak aurreikusitako jardueraren iraupenaren ezaugarriei eta balioespenari buruzko behar beste informazio eta komunikazio aurkeztu beharko dio aipatutako organo horri.

19. artikuluan ezarritako baimen-araubideen mendeko jarduerak hasteko aurreikusitako luzapenei dagokienez, aipatu behar da epe-luzatzeak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikulua arautzen dituela, eta horren arabera, ezin direla inola ere luzatu mugaeguneratutako epeak eta luzapena ezingo dela izan luzapenaren erdia baino luzeagoa (hori adierazten du 19.4 artikulua).

Hainbat baimen-araubiderekiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta integratzeari dagokionez, ebaluazio hori txalotzeko moduko neurri bat bada ere pertsona administratuek egin beharreko izapideak sinplifikatzen direlako, integrazio hori ez da era egokian garatu. Gainera, hau adierazten du: «*Ingurumen-inpaktuaren adierazpena loteslea izango da tokiko agintaritzarentzat*»; aldiz, arauaren 2.e artikulua ingurumen-inpaktuaren adierazpena txosten lotesle gisa definitzen du. Iradokitzen dugu aipatutako esaldia kentzea errepikakorra delako.

Era berean, proiektuaren justifikazio-memorian berariaz ez denez aipatu, halaber, ez da ulertzen **23. artikuluan** adierazitako premia, hau da, administrazio publikoei gogoratzea Titulu honetan ingurumenean esku hartzeko araututako prozeduretan jardun dezatela, dauzkaten betebeharrak testu arauemaileko beste apartatu batzuetan eta/edo beste lege batzuetan eta aplika daitezkeen arauetan adierazitako gaiei dagokienez.

24. artikuluan jasotzen diren sustatzaileen betebeharren kasuan, horiek berriz aipatuko dira aurrerago, diziplina-araubidea aztertzen denean; izan ere, sustatzaileen betebeharrak eta balizko ez-betetzeak lotuta daude baina lehenago iruzkin hauek egingo ditugu. **24. artikuluan** zerrendatuta daude IV. Tituluan arautzen diren jarduera eta instalazioen sustatzaileek dituzten betebeharrak. e) letran betebeharrak hau aipatzen da: «*I. eranskinen A eta B apartuetako jardueren kasuan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren aurrean, aplikagarria den beste ingurumen-araudi batek xedatuta, erantzukizuneko komunikazio edo adierazpen bat egin behar duten beste jarduera edo instalazio batzuen kasuan ere, aipatutako ingurumen-organo horri informatzea jardueren transmisioaz*». Bada, lerrokada hori idatzita dagoen bezala, badirudi soilik jasotzen dela sustatzaileek I. eranskinen A eta B apartatuetako jarduerak eta instalazioak jakinarazi behar dituztela; ez, ordea, C eta D apartatuetakoak. Lehenik, apartatu horiek ez direlako berariaz adierazi eta, bigarrenik, badirudielako ez direla jasotzen EAEko ingurumen-organoaren aurrean jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena egin behar duten jarduera eta instalazioak aipatzen dituen esaldian; izan ere, C apartatuko jarduerak eta instalazioak lizentzia-araubidearen mende egoteaz gain, esaldian hau erantsi da: «*Aplikagarria den beste ingurumen-araudi batek xedatuta*». Halere, aurreproiektuaren 102.2.d) artikuluan arau-hauste astun edo oso astuntzat jotzen da, ingurumenari edo pertsonari arrisku edo kalte larriak sortzen zaizkien ala ez kontuan hartuta, administrazio eskudunaren baimen, lizentzia edo jakinarazpenaren mende dauden jarduera edo instalazioen transmisioa jakinarazteko betebeharra ez betetzea horiek guztiak emateko edo aurretiazko jakinarazpena jasotzeko, horrek badirudi I. eranskinen A, B, C eta D apartatuetan jasotako guztietarako dela. Horrela, bada, uste dugu zuzendu egin beharko litzatekeela itxurazko desadostasun hau, zeren ez da logikoa, ezta kontsekuentea ere, sustatzailean aurretiazko betebeharrak gisa jasotzen ez den ez-betetze bat arau-hauste astun edo oso astuntzat jotzea.

Bestalde, transmititzaileak transmisio horren berri eman beharko dio dagokion udalari kasu guztietan; aldiz, 102.2.d) artikulua soilik tipifikatzen du baimena edo lizentzia emateko edo aurretiazko jakinarazpena jasotzeko eskumena duen administrazioari (kasu guztietan udala izango da) jakinarazteko betebeharra ez betetzea.

Azkenik, transmisio horien berri ematea betebeharra da transmititzailearentzat baina aukerakoa da titular berriarentzat. Esan daiteke 102.2.d) artikuluan aurreikusitako arau-hauslea soilik transmititzailea dela. Halere, zehapen-zuzenbide administratiboaren esparruaren barnean, argitasun eta segurtasun juridikoaren mesedetan, iradokitzen dugu ondo zehaztea aurreproiektuaren 102. artikuluko 2. zenbakiaren d) letran.

Azken aurreikuspen horretako edukia **27.2 artikuluan** ezarritakoaren arabera landu behar da. Artikulu horren arabera, titulua ematen duen edo aurretiazko jakinarazpena jasotzen duen administrazio eskudunari baimen, lizentzia edo jakinarazpenen mende dauden jarduera edo instalazioen transmisioa jakinarazten ez dion titular berriak, solidarioki erantzungo du transmititzailearekin betebehar eta ardurei dagokienez, jakinarazpen hori egiten ez bada. Horrela, erlatibizatu egiten da ondorio juridikoei dagokienez 24.e) artikuluko titular berriak egin beharreko jakinarazpenaren aukerako izaera. Bestalde, artikulu horretako 1. zenbakian, 24 e) artikuluan ezarritakoarekin erabateko kontraesanean dagoena, aipatutako transmisioa jakinaraztea nahitaezkoa dela ezartzen da, barnean hartuz itxuraz I. eranskineko C eta D apartatuetako jarduerak eta jakinarazpenaren hartzailea aldatuz, kasu honetan ez baitira izango EAEko ingurumen-organoa eta dagokion udala, baizik eta gaikuntza-titulua ematen duen edo aurretiazko jakinarazpena jasoko duen administrazioa. Desadostasun horiek zuzendu egin behar dira.

Arauaren 26. artikulua konfidentziasunari buruzkoa da. Betebehar hori jarduera administratiboari atxikita dago eta, testuan errepikatzen bada ere, administrazio publikoen betebehar bat da.

Konfidentziasun horrek eragiten die hala sustatzaileen merkataritza eta industriako datuei nola industria-jabetzaren, jabetza intelektualaren mendeko datuei eta industria baita merkataritzako sekretu-kontzeptuari ere.

Gainera, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) 10. artikuluan jasotzen du lanbide-sekretuaren

betebeharra: *«Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek lanbide-sekretua izan behar dute nahitaez datu horien gainean, eta datu horiek gordetzeko eginbeharra ere izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta fitxategiaren titularrarekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan».*

Beraz, sekretu-betebeharrak datuak gordetzen dituzten arduradunei eta trataeraren edozein fasetan esku hartzen duten pertsoneri eragiten die; izan ere, dena delako lan batean aritzeak, baldin eta datu pertsonaletara sar badaiteke, automatikoki sortzen du horiekiko sekretua gordetzeko betebeharra, baita aldi bateko lanetan ere, eta betebehar horrek jarraituko du nahiz eta fitxategiaren arduradunarekin erlazioak amaitu.

Gainera, DBLOren 44. artikuluekin bat, DBLOren 10. artikulua aipatzen dituen datu pertsonalen trataerari buruz sekretua gordetzeko betebeharra urratzea arau-hauste astuna da.

Datuen Babeserako Euskal Agentziak emandako CN14-035 irizpenean deklaratu duen bezala, informaziorako sarbide-eskubidearekiko muga gisa datuen babesa aplikatzeko modua abenduaren 9ko 19/2013 Legearen (gardentasun, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa) 15. artikuluan topa dezakegu eta hau ezartzen du:

«1. Eskatutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluen 2. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko idatzizko baimena izatea; dena dela, ez da baimen hori behar izango, baldin eta, eskuratzeko eskaera egin baino lehen, eragiten zaion horrek datuak ageri-agerian ezagutzera eman baditu.

Informazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluen 3. zerbakiari aipatutako datu bereziki babestuak edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko baimena edukitzea edo Lege-lerruneko arauen baten babesa izatea.

2. Oro har, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena

emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interes publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaiolako.

3. Eskatutako informazioak ez duenean datu bereziki babesturik, eskaera jaso duen organoak informazioa eskuratzea baimenduko du, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta.

Erabaki hori hartzeko, organoak bereziki kontuan hartuko ditu irizpide hauek:

a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikulua ezarritako epeak igarotzeak eragindakoei ahalik eta kalte txikiena eragitea.

b) Eskatzaileek justifikatzea beren eskaera eskubide batez baliatuta egiten dutela edo ikerlariak direla eta informazioa helburu historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela.

c) Eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena egitea, dokumentuetan haiek identifikatzeko datuak bakarrik badaude.

d) Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adin txikikoei buruzkoak badira.

4. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

5. Datu pertsonalak babesteko araudia aplikatu beharko zaio informazioa eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutako datuen tratamenduari».

Eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren irizpen horrek hau adierazten du:

«Artikulu honek bi datu-kategoria adierazten ditu argiki: bereziki babestutako datuak eta gainerakoak.

Bereziki babestutako datuak DBLOren 7. artikuluan arautzen dira eta berariazko eta idatzizko baimena eskatzen da 7.2 artikuluko datuak (ideologia, erlijioa, sinesmenak eta afiliazio sindikala) lagatzeko, eta berariazko baimena, berriz, edo gaikuntza-legea 7.3 artikuluko (arraza, osasuna, bizitza sexuala) datuetan. Bestalde, DBLOk, halaber, 7.5 artikuluan eskatzen du arau-hauste penalak edo administratiboak egiteari buruzko datuak administrazio publiko eskudunen fitxategietan soilik sar daitezkeela. Gardentasun-legeak datu hauek DBLOren 7.3 datuekin parekatzen ditu eta berariazko adostasuna edo gaikuntza-legea behar da horiek lagatzeko, zigorrak ohartarazpen publikoa eskatzen duenean izan ezik.

Gainerako informaziorako, arau orokorra da sarbidea ematea; halere, tartean dauden interesak neurtu behar dira eta zehaztu behar da informazioa zabaltzeak nagusitu behar duen edo datu pertsonalen babesa nagusitu behar den.

Hori guztia neurtzeko, irizpideak ematen dira sarbidea emateko (ondare historikoari buruzko araudian aurreikusitako epeak igarotzea, eskatzailea ikertzailea den eta eskaeraren helburu zientifiko, historiko edo estatistikoa, eragiten zaien datuak soilik identifikagarriak izatea) edo kentzeko (eragiten zaiona adin txikikoa izatea, eragiten zaionaren segurtasunari edo intimitateari eragitea).

Plantea genezake irizpide horiek ingurumen-alorrean aplikatzen diren, kontuan izanik alor sektorial honetarako gardentasun-legeak Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoa:

«Lehenengo xedapen gehigarria. Informazio publikorako sarbide-eskubidearen arauketa bereziak.

1. Dagokion prozedura administratiboaren araudi arauemailea aplikatu ahal izango zaio burutzen ari den administrazio-prozedura bateko interesdunek prozedurako dokumentuetarako duten sarbideari.

2. Beren araudi espezifikoak eta Lege osagarri honek arautuko dituzte informaziorako sarbidearen araubide juridiko espezifiko bat aurreikusita duten gaiak.

3. Ildo horretan, Lege hau aplikatuko da dagozkien arau arauemaileek aurreikusten ez duten guztian, ingurumen-informaziorako sarbideari eta berrerabilpenera bideratzeari dagokienez».

Xedapen honen lehenengo apartatuak prozeduran interesdunek, eta ez hirugarrenek, sarbidea izateari buruzko arauketa gisa interpretatu du doktrinak. Nolanahi ere, gure ustez, adierazitako Lehenengo Xedapen Gehigarriak ez du uzten ingurumenaren alorra Gardentasun Legea aplikatzeko esparrutik kanpo (legea aplikatuko da, "aurreikusi ez den guztian")». Kontuan izan behar da, bestela, eragile juridikoek ez luketela irizpiderik izango interesak neurtzeko; izan ere, igorpen-kasuetan datu-babesaren salbuespena ez aplikatzea izan ezik, ingurumen-legeak ez du ezartzen neurtzeko irizpiderik, neurtze hori, ordea, bete egin behar da Zuzentarauaren 16. artikulua eta Estatuko legearen 13.4 artikulua arabera. Horren froga aurkitzen dugu Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak ekainaren 26ko AAA/1601/2012 Aginduaren bidez 27/2006 Legetik hartu zituela ministerio horretan aplikatzeko jarraibideak. Arartekoak ere onartu zuen abenduaren 30eko 6/2010 Gomendioan komeni zela aplikatzea orduan gardentasun-legean jasotako, eta gaur egun abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako irizpideak».

28. artikuluan, 1. zenbakian, ezartzen da Lege honen eraginpekoak diren jarduerak aldi baterako edo behin betiko etenez gero edo instalazioak itxiz gero, eskumena duen administrazioari jakinarazi beharko zaiola, baimena ematen duen tituluan bertan edo aplikagarria den eta indarrean dagoen legedian jasotako neurriak hartzeko. Bestalde, 2. zenbakian ezartzen da jarduera batek behin betiko amaitu duela bere martxa, urtebeteko epean ez badu jarduera lantzen, eta titularraren komunikazio-frogagarriak bidaltzen ez bazaio baimena eman duen Administrazioari, egoera horren arrazoiak behar bezala azaltzeko. Hau da, 1. zenbakian eskumena duen administrazioa aipatzen da; aldiz, bigarrenean, baimena ematen duen administrazioa, eta ez da argitzen bi kasuetan administrazio berdina den.

Titulu honetan II. eta III. Kapituluetan EAEko ingurumen-organismoaren eskumenekoak diren administrazioak esku-hartzeko ingurumen-araubideak arautzen dira: ingurumen-baimena integratua eta ingurumen-baimen bakarra.

Lege-aurreproiektuak integratu egiten ditu, administrazio-simplifikaziorako, lege berdineko II. eranskinean adierazitako planek, programek eta proiektuek izan beharreko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, ingurumen-baimena emateko prozeduretan. Jarduera jarduteko lizentzia sailkatuaren edo jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren araubidearen mende badago, koordinazioa errazten da eta horrela ingurumen-inpaktuaren adierazpena udalak jarduera-lizentzia eman baino lehen emango da; aldiz, jakinarazpena ezingo da aurkeztu udalean adierazpena edo

txostena egin aurretik, kasuen arabera, hurrenez hurren. Era berean, ingurumen-baimenei dagokionez (integratua eta bakarra), egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako administrazio-prozedura bakarrean integratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko igorpenen baimenak, eta dagozkien igorpenen muga-balioak ezarriko dira. Administrazioak ingurumenean esku hartzeko hainbat araubide integratzea bat dator Europar Batzordeak, Batzordearen araudia egokitu eta efikaza izateko programaren (REFIT) barnean, hartutako bidearekin; izan ere, «araudi adimendun» kontzeptua sortu du, baita «EBren zuzenbidea arindu, sinplifikatu eta merkatzeko» araua ere. Ekimen honen testuinguruan, legeak egiteko modu horrek jasotzen dituen jarduera ekonomikoetan diharduten pertsonentzako administrazio-kargak murrizten ditu eta, halaber, bat egin behar du errespetuarekin eta prebentzio-bermeekin eta gizarteak eskatzen duen ingurumen-kontrolarekin. Horrela, jarduera ekonomikoan izapideak errazteko eta administrazioa sinplifikatzeko helburuak presente daude, lege-aurreproiektuak arautzen duen eta ingurumenean eragina duten jardueretan administrazioak esku hartzeko tekniketan.

Hori horrela, aurreproiektuaren **36.1 artikulua** ezartzen du ingurumen-baimen integratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren prozedurak ordeztu egingo duela izapide guztietan jarduteko lizentzia sailkatuaren prozedura. Horri dagokionez, beti eztabaidatu izan da dagokion udalak jarduteko lizentzia sailkatua ematea, administrazioak esku hartzeko figura berria agertu ondoren, «ingurumen-baimen integratua» izenekoa, hain zuzen. Horrela, lehenengo idazketan, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluko 1. zenbakian, oinarritzko gisa eratu zena, amaierako xedapenetatik seigarrenean ezartzen denaren arabera, hau adierazten da:

«29. artikulua Jarduera sailkatuen alorrean aplika daitekeen araubidearekin koordinatzea.

*1. Ingurumen-baimen integratuak emateko prozedurak ordeztu egingo du jarduera sailkatuen udal-lizentziak emateko prozedura (Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak arautzen du), **salbu eta udal-agintaritzaren behin betiko ebazpena**. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen integratua loteslea izango da udal-agintaritzarentzat, baldin eta lizentziak egitea ukatzeko edo zuzenketa-neurriak*

ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere».

Idazketa horretako salbuespenaren arabera («salbu eta udal-agintaritzaren behin betiko ebazpena»), bazirudien orduan ez zela zalantzan jartzen autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak emandako ingurumen-baimen integratuak ez zuela ordeztzen dagokion udalak eman beharreko jarduera sailkatuaren lizentzia. «Ondorio horietarako», ingurumen-baimen integratua loteslea izango da udal-agintaritzarentzat, baldin eta lizentziak ukatzeko edo zuzenketa-neurriak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere. Laburbilduz, ingurumen-baimen integratua erkidegoko administrazioak ematen zuen, udala lotesten zuen ebazpena ematen zuen prozedura batean eta ondoren udal horrek jarduteko lizentzia sailkatua ere eman behar zuen. Aurrekoak, 29. artikulua bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera, ulertzen zen ez zuela baztertzeko aplika zitekeen jarduera sailkatuei buruzko autonomia-legeria, eta kasu horretan ere bazirudien ondorioztatzen zela autonomia-erabakiak udalaren ondorengo erabakia lotesten zuela.

Ondoren, uztailaren 1eko 8/2011 Legegintzako Errege Dekretuak apartatu horren idazketa aldatu zuen zentzu honetan:

«29. artikulua. Jarduera sailkatuen alorrean aplika daitezkeen araubidearekin koordinatzea.

*1. Ingurumen-baimen integratuak emateko prozedurak ordeztu egingo du administrazio eskudunek jarduera deseroso, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egin ahal izateko herritarren ekintzen ganean esku hartzeko dituzten administrazio-bitartekoak. **Ondorio horietarako, ingurumen-baimen integratua loteslea izango da tokiko agintaritzarentzat, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko edo zuzenketa-neurriak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere».***

Hau da, autonomia-erkidegoren batek orduan hasitako joera bati jarraiki (adibidez, Kataluniako Ingurumen Administrazioaren Esku Hartze Integralari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea), udalen eskumeneko ingurumen-gaiei buruz udalak egindako txosten batek lizentzia ordeztzeko zentzuan –uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikulua 2. apartatua jaso–, Estatuko legegileak itxuraz kendu egin zuen udalen

ingurumen-lizentzia edo jarduteko lizentzia sailkatuen inguruko eskakizuna. Horrela, 29.1 artikuluan dagoen idazketa berriak bateragarri bihurtzen ditu Estatuko legeria eta ingurumen-baimen integratuan udal-lizentzia integratu duten autonomia-erkidegoetako eta, oraindik gaiaren inguruan legerik eman ez duten erkidegoentzat, badirudi udal-lizentzia ingurumen-baimen integratuak ordeztu behar duela. Halere, lehenengo zenbaki horretako bigarren esaldian mantendu egiten da «*ondorio hauetarako*» adierazpena, eta horrek lehenago esan dugun bezala, jatorrizko idazketan «udalaren behin betiko ebazpenari» egiten zion erreferentzia. Horrek dudak sortzen zituen bere iraupenari buruz, izan ere, ez bada beharrezkoa, ezingo litzateke azaldu balizko zein erabakitan gelditu behar duen udalak lotetsita.

Azkenik, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginean, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, artikulua horri eman zaion idazketak badirudi aurreko joera alderantzikatu nahi duela baina nolana ere ez du lortzen gai honi buruzko zalantzak argitzea, hau adierazten baitu:

«29. artikulua. Jarduera sailkatuen alorrean aplikatu daitezkeen araubidearekin koordinatzea.

*Ingurumen-baimen integratuak emateko prozedura **nagusitu egingo zaie** administrazio eskudunek jarduera deseroso, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egin ahal izateko herritarren ekintzen gainean esku hartzeko dituzten administrazio-bitartekoei. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen integratua loteslea izango da udal-agintaritzarentzat, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko edo zuzenketa-neurriak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere».*

Bestalde, ingurumen-baimen bakarraren prozedura, aurreproiektuan ingurumen-baimen integratuari dagokion identitate bat mantenduta diseinatu da. Horrela, ingurumen-baimen bakar berri hau jarduteko lizentziarekin koordinatuko litzateke ingurumen-baimen integratuaren araubidean egiten den modu berean, hau da, Lege berriarekin, jarduera bat erkidegoaren ingurumen-baimen baten mende badago (integratua edo bakarra), ez da jarraituko jarduteko lizentzia sailkatuaren prozedura, eta hori izapide guztietan ordeztu egingo da aurrekoei dagokienarekin. Halere, zalantza daukagu oraindik izapide guztietan ordezte hori egiteak barnean hartzen duen udalak jarduteko lizentzia sailkatua ematearen inguruko salbuespena.

Ez dago esan beharrik ere egokiagoa izango litzatekeela oinarrizko legeak jarduteko lizentziak behin betiko kenduko balitu ingurumen-baimen integratuaren mende ere dauden jardueren kasuan, betiere hori emateko prozeduran udalaren parte-hartzea bermatzen bada, eta hori erabat bermatzen da txosten urbanistikoarekin, 15. artikuluan jasoa, baita «aztertutako instalazioak bere eskumeneko alderdi guztietarako duen egokitzapena» gaitzat duen txostenarekin ere, 18. artikuluan aurreikusia, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legeko testu bateginean jasotzen dira biak.

Badirudi hori dela lege-aurreproiektuaren helburua jarduteko lizentzia sailkatuaren prozedurako izapide guztiak aipatzean, nahiz eta ez era eztabaidaезinean. Horregatik, etorkizunean horri buruzko beste zalantza batzuk argitze aldera, uste dugu hau aukera on bat dela gai hau behin betiko ebazteko eta, hori dela eta, iradokitzen dugu udalak eman beharreko lizentziaren izapideari buruzko aipamen bat gehitzea 36. artikuluko 1. zenbakiari, baztertu dadin, horrela:

«1. Ingurumen-baimen integratuaren edo ingurumen-baimen bakarraren prozedurak ordeztu egingo du jarduteko lizentzia sailkatuaren prozedura izapide guztietan, baita, halakorik bada, udal-agintaritzaren behin betiko ebazpena ere».

Nolanahi ere, uste dugu jarduteko lizentzia sailkatua behin betiko ebazteko eskumena udalei kentzeak ingurumen-baimen integratuaren edo bakarraren mende ere dauden jardueren kasuan, ez lukeela toki-autonomia urratuko; lehenik, udalak, halere, aukera duelako lizentzia ukatzearen inguruan ebazteko betiere bere erabakia ingurumenekoez bestelako arrazoietan oinarritzen bada eta bere eskumenekoak badira, esaterako urbanistikoak; eta, bigarrenik, eremu honetako ustezko tokiko botere-murrizketa soilik izango litzatekeelako I.A eta I.B eranskinetan aurreikusitako jarduera eta instalazioetarako, eta horiek ez dira garrantzitsuenak, ezta ugarienak ere udalak erabaki bat hartu behar duen guztien artean.

34. artikulua, ingurumen-baimen integratu eta bakarraren eskaerak zuzentzeari buruzkoak, ezartzen du eskaera horiek ez badituzte betetzen 33. artikuluan eskatzen diren eskakizunak, interesdunei eskatuko zaiela 15 eguneko epean zuzenketa egitea eta adieraziko zaiela, hori ez badute egiten, atzera egin dela ulertuko dela, aurrez ebazpena emanda. Administrazio-prozedurari buruzko estatuko oinarrizko legerian aurreikusitako baldintzetan eman behar da ebazpen hori. Eta jarraian adierazten du eskaeraren aurkezpen-datatzat joko dela zuzenketa egindako eguna, eta alde batera uzten du 22.1.a) artikulua araberako 21.3.b) artikuluan ezarritakoa. Horiek biak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legekoak dira, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean landua; lege horrek, besteak beste, Estatuari esleitzen dio administrazio-prozedura erkidea arautzeko eskumena. Horrela, bi prozedurak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igarota, 6 hilabete, prozedura eten ahal izango da interesdunetako edozeini hutsak zuzentzea edo behar diren dokumentuak eta bestelako dokumentuak aurkeztea eskatu behar bazaio, errekerimendua jakinarazten den eta hartzaileak egiazki hori betetzen duen egunaren arteko aldi edo, halakorik ez bada egiten, emandako epean; horrek ez du esan nahi eskaeraren aurkezpen-eguntzat jo behar denik zuzenketa egin den eguna, eta, horregatik, jarraitu beharko du izaten eskaera administrazioaren edo hori izapidetzeko erakunde eskudunaren erregistro elektronikoan sarrera eman zaion egunak.

Titulu honetan IV. eta V. Kapituluetan udalaren eskumeneko tokiko administrazioak ingurumenean esku hartzeko bitartekoak arautzen dira: jarduteko lizentzia sailkatua eta jarduera sailkatua aurretiaz jakinaraztea.

Lege-aurreproiektu honen Azken Xedapenetatik Lehenengoak ezartzen duen LHLren berriazko aldaketa dela eta, zuzenketa-neurriak ezartzeko txostena toki-administrazioen eskumenekoa izatera pasatu da kasu guztietan, proiektu arauemaiaren **51.1 artikulua**rekin bat: *«10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek zuzenketa-neurriak ezartzeko txostena eskatu beharko diote dagokion foru-aldundiko ingurumen-eskumenak dituen organoari. Txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da; oztopatzailea bada, jarduera ingurunearekin bateragarria izateko eska daitezkeen ingurumeneko zuzenketa-neurriak jasoko ditu»*.

Artikuluaren idazketa dela eta, iradokitzen dugu berrikustea, ez baita argi gelditzen bere idazketa, ezta ere justifikatzen alderdi hori proiektuaren justifikazio-memorian. Indarrean dagoen 3/98 Legeak zehazten duenez, zuzenketa-neurrien txostena soilik *«loteslea izango da udal-agintaritzarentzat, jarduteko lizentzia ematearen aurkakoa denean, baita zuzenketa-neurriak ezarri behar direnean ere»*, ez dago argi 51.1 artikulua txostenaren izaera loteslea oztopatzailea denean edo kasu guztietan ezartzen duen. Bestalde, Espainiar Errege Akademiaren hiztegia kontsultatuta, ez da agertzen gaztelaniazko «obstativo» (oztopatzaile) terminoa.

Lege-aurreproiektuaren **52. artikulua** ezartzen du udalak lizentzia eman edo ukatuko duen ebatzi eta jakinaraziko duela 4 hilabeteko gehieneko epea, dokumentu guztiekin eskaera aurkeztu zenetik hasita.

Adierazi behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoak, administrazio-prozeduretako berariazko ebazpen eta jakinarazpenen gehieneko epeak arautzen dituela: « 2. *Esanbidezko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea dagokion prozeduraren arau erregulatzailerak finkatuko du. Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiagokoa izan, non eta Lege-lerruneko arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.*

3. *Prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabete izango da gehieneko epea. Epe hori eta aurreko paragrafoak honetara zenbatuko dira:*

(...)b) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, izapidetzeko eskumena duen Administrazio edo Organismoaren erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunetik aurrera».

Beraz, kontuan hartuta prozedura-gaietan gaudela (Estatuko legegilearen eskumen eskusiboa), ezartzea *dies a quo* hasiko dela dokumentazio guztia bidaltzen denean, ez da zuzenbidearen araberakoa.

Bestalde, **52.3 artikuluan**, jarduteko lizentzia emateari buruzkoan, isiltasun administratiboaren izaera negatiboa ezartzen da jarduteko lizentzia sailkatuak eskatzeko ezartzen denaren kontrara, oro har, («*salbu eta autonomia-erkidegoko edo foru-organoko ingurumen-organoak kontrako txostena jakinarazten duenean eta hori dagokion udalak betearazteko zain dagoenean*»), indarrean dagoen 3/1998 Legean.

Aldaketa hori zuzenbidearen araberakoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrek eskatzen du isiltasunaren izaera negatiboa lege-lerruneko arau batean ezartzea.

Azkenik, jarduera sailkatuak aplikatzeko eremuari dagokionez, iradokitzen dugu baloratzea ea egokia den berariaz indargabetzea ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, etxebizitzetarako hiri-lurzoruan ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuek oro har bete beharreko arau teknikoak onartzen dituen.

IV.c) 5.-Bosgarren titulua. Ingurumen-ebaluazioa.

Ingurumen Administrazioaren Lege aurreproiektuaren V. Titulua ingurumen-ebaluazioari buruzkoa da eta aldatu egiten du legearen II. eranskinean jasotako planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremua.

Alde batetik, arautu egiten dira planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunterako eta sinplifikaturako prozedurak. Lehengo kasuan, planek, esaterako, haien eragin garrantzitsuak zehazten laguntzen dute, eta hala badagokio, ingurumena eta baliabide naturalak behar bezala babesteko beharrezkoak diren baldintzak finkatuko dituzte. Bigarren kasuan, berriz, prozedura arruntaren eraginpean jartzea badagokion ala ez finkatuko dute, bai eta zer baldintzatan onartu behar den ere.

Aipatu behar da planen eta programen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozeduraren izen-aldaketa urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotzen dela, hau da, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen Dekretuan. Lege-aurreproiektu hau onartu ondoren eta horren araudia garatzen ez bada, indarrean jarraituko du urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak legearen aurka egiten ez duen guztian, proiektuaren xedapen indargabetzailean ezarritakoaren arabera.

Bestalde, proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko bi prozedurak (arrunta eta sinplifikatua) honela arautzen dira: lehenengoaren kasuan, proiektu batek ingurumenean dituen eragin garrantzitsuenak balioesteko asmoz, eta, hala badagokio, berori egikaritzeko, ustiatzeko eta desegiteko baldintzak finkatzeko; bigarren kasuan, berriz, prozedura arruntaren eraginpean egon beharra ala ez ebaluatzeko, edo ingurumena eta baliabide naturalak babesteko beharrezkoak diren neurriak finkatzeko.

Indarrean dagoen ingurumen-ebaluazioa Europako, Estatuko eta erkidegoko hainbat arauen mende dago ingurumen-ebaluazioaren alorrean eta hainbat arau sektorialen mende; hori dela eta aztertzeko eremu konplexu bat da.

Ingurumenean ondore adierazgarriak eragin ditzaketen planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak, Estatuaren lurralde osoan ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotzen dira.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezartzen ditu oinarritzko eran hala ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremua nola proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. Beraz, legearen aurreproiektuak soilik horiek errepikatu besterik ez ditu egin behar eta kasu berriak gehitu, halakorik badago.

Etorkizuneko legearen 60.2 artikulua arabera ebaluazioaren mende dauden kasuen zerrenda eranskinean dago. Horrela, II.A eranskinak ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mendeko planak eta programak jasotzen ditu, II.B. eranskinak ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren mendeko planak eta programak eta II.C eranskinak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren mendeko proiektuak. Azkenik, II.D eranskinak ingurumen-ebaluazio sinplifikatu baten mende dagoen proiektu batek ebaluazio arruntaren mende noiz izan behar duen erabakitzeko irizpideak jasotzen ditu.

V. Tituluaren artikuluen azterketari helduta, ikusten dugun lehenengo gauza da **59. artikuluan**, ingurumen-ebaluazioaren helburuak jasotzen diren artikuluan, 3. zenbaki bat sartu dela eta hau zehazten dela: «*Aldaketei aplikatu beharreko araubidea alde batera utzi gabe, ezingo dira ingurumen-ebaluazioaren mende egon indarrean dagoen administrazio-gaikuntzaren bat duten proiektuak*». Gai honek araubide iragankor batekoa dirudi; beraz, ez bada edukia ezbaian jartzen, iradokitzen dugu, koherentziagatik, beste artikulua edo xedapen batean jasotzea.

Aztertu beharreko arauaren **60. artikulua** zenbatu egiten ditu ingurumen-ebaluazioaren hainbat prozedura, testu arauemailean adierazten denaren arabera plan, programa eta proiektu horiek ingurumenean izan ditzaketen ondore adierazgarrien probabilitate-mailaren arabera. Horrenbestez, ingurumen-ebaluazioko prozedura hauek ezartzen dira:

- a) Probabilitate-maila handiarekin ingurumenean ondore adierazgarriak izan ditzaketen planen eta programen eta horien aldaketen ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta.
- b) Probabilitate-maila zehaztugabearekin ingurumenean ondore adierazgarriak izan ditzaketen planen eta programen eta horien aldaketen ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua.

c) Ingurumenean ondore adierazgarriak izan ditzaketen eta Lege honen II.C eranskinean jasota dauden proiektuen eta horien aldaketen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta.

d) Ingurumenean efektu adierazgarriak izan ditzaketen eta Lege honen II.D eranskinean jasota dauden proiektuen eta horien aldaketen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua.

e) Prozedura arruntaren mende jarri beharreko plan eta programen ebaluazioaren irismena zehaztea.

f) Prozedura arruntaren mende jarri beharreko proiektuen ebaluazioaren irismena zehaztea.

Plan, programa eta proiektu horiek ingurumenean izan ditzaketen ondore adierazgarrien probabilitate-mailara egokitu behar direla ikus daiteke argiki a eta b letretan, baina ez da garatzen c eta d letretan.

Prozedura arruntaren mende dauden planen, programen eta proiektuen ebaluazioaren irismena zehazteari buruzko e eta f letrei dagokienez, ez proiektuaren justifikazio-memoriak ez arauak berak, ez dute argi uzten prozedura bereiziaz direnik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio estrategikoaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren aurretiazko izapide edo jarduketa izan beharrean, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17.1.b) eta 34. artikuluetan, hurrenez hurren, jasotzen den bezala.

Bestalde, deigarria da bi prozedurak bi prozedura independente gisa ezartzea, baina gero artikuluan batean garatzea, 67. artikuluan.

61. artikuluan araututako eskumena zehazteari dagokionez, aurreproiektuan jasotakoak parametro hauei egiten die men:

1. Ingurumen-inpaktuaren prozeduretan eskumena mantendu egiten da autonomia-erkidegoaren ingurumen-organon.

2. Ebaluazio estrategikoari dagokionez, eskumena izango lukete, benetako eskumenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek.

62. artikuluaren kasuan, «ebalatu gabeko planak eta proiektuak baliogabetzea» izenekoa, APELen 47. artikulua erabat deusez diren administrazio publikoen ekintzen kasuak jasotzen ditu (bertan ez dira agertzen ingurumen-ebaluazioaren mendekoak ez diren planak edo proiektuak), eta ixte-klausula honekin amaitzen du «*Lege-lerruneko xedapen batean berariaz ezartzen den beste edozein*»; beraz, eta ingurumen-inpaktuen eta estrategikoen txostenak eta adierazpenak nahitaezkoak direla kontuan izanda, artikulua hau zuzenbidearen araberkoa da.

Halere, artikulua izenburuari eta bertako edukiari dagokienez, 62. artikuluko edukiaren arabera, programei aplikatu badaiteke, planei eta proiektuei aplikatzeaz gain, iradokitzen da izenburua aldatzea artikulua izenaren eta edukiaren arteko koherentzia gordetzeko.

63. artikulua dokumentu tekniko egokien egileen gaitasun teknikoa eta ardura ditu aipagai, horiek ingurumen-ebaluazioa egiteko Estatuko Ingurumen Ebaluazioaren Legeko 16. artikulua errepikatuz (oinarrizkoa) eta alde batera utziz horrelako dokumentuetan amaiera-dataren eta egilearen sinadura jaso behar direla.

Konfidentziasunari buruzko **64. artikulua**ri dagokionez, batetik, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 15. artikulua errepikatzen da. Bestetik, lege-aurreproiektuaren 26. artikuluan ezarritakoa errepikatzen da, ingurumenean esku hartzeko prozedura guztietarako. Ingurumen-ebaluazioa ingurumenean esku hartzeko prozedura bat denez, iradokitzen dugu artikulua horiek berrikustea testu arauemailean beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko.

Lege-aurreproiektu honek, aplikazio-eremuari dagokionez, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak jasotzen dituen plan eta programa berdinak baztertzen ditu.

Nabarmentzekoa da automatikoki baztertzen duela Legearen aplikaziotik babes zibila helburu bakartzat duten proiektuak, baina gai hori ez da berariaz adierazten Estatuko oinarrizko legerian. Berdina gertatzen da **65. artikuluan** baztertzen diren planekin eta programekin; «*izan ere, planetatik, programetatik eta proiektuetatik, edo horien*

aldaketetatik, erator daitezkeen ekintzen hedadura eskasa dela eta, ingurumenean sor ditzaketen ondoreak ez dira izango adierazgarriak ageriko eran».

<p>21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.</p>	<p>Ingurumen Administrazioaren Lege aurreproiektua</p>
<p>8. artikulua. Ingurumen-ebaluazioa behar ez duten jarduerak eta salbuets daitezkeen proiektuak.</p> <p>1. Lege hau ez da ondorengo plan eta programetan aplikatuko:</p> <p>a) Estatuaren defentsa eta larrialdietan babes zibila ematea helburu bakartzat duten plan eta programak.</p> <p>b) Finantzen edo aurrekontuen alorrekoak.</p> <p>2. Lege hau ez da ondorengo proiektuetan aplikatuko:</p> <p>a) Estatuaren defentsarako helburuekin lotuta dauden proiektuak, haien aplikazioak aipaturiko helburuetan ondorio negatiboak eragin baditzake.</p> <p>b) Lege baten bidez berariaz onetsitako proiektu xehatuak. Proiektu horiek ingurumenean eragin ditzaketen ondorioak</p>	<p>65. artikulua. Ingurumen-ebaluaziotik salbuetsitako planak eta programak.</p> <p>1. Ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurak ez dira aplikagarriak izango kasu hauetan:</p> <p>a) Planen, programen edo proiektuen helburu bakarra defentsa nazionala edo, larrialdi kasuetan, babes zibila denean, eta prozedura aplikatzeak defentsa nazionaleko edo babes zibileko helburuetan ondorio negatiboak izan ditzakeenean.</p> <p>b) Planak eta programak finantzarioak edo aurrekontuen arlokoak direnean soilik.</p> <p>c) Planetatik, programetatik eta proiektuetatik, edo horien aldaketetatik, erator daitezkeen ekintzen hedadura eskasa dela eta, ingurumenean sor ditzaketen ondoreak ez badira adierazgarriak ageriko eran.</p> <p>2. Euskal Autonomia Erkidegoko</p>



<p>ebaluatzeko behar diren datuak jaso behar dituzte, eta proiektua onesteko legea izapidetzean bete behar dira lege honetan ezarritako helburuak.</p> <p>3. Ministroen Kontseiluak, Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan, eta autonomia-erkidego bakoitzeko legediak erabakitako organoek, dagozkien eskumenen esparruan, <u>ohiz kanpoko egoeretan eta arrazoitutako erabakiaren bidez</u>, proiektu jakin bat ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura izapidetzeko betekizunetik salbuets dezakete.</p>	<p>ingurumen-organok irizpideak ezarri ahal izango ditu zehazteko plan edo programa batek edo plan edo programa baten aldaketa batek izan ditzakeen ondoreak zer egoeratan ez diren izango adierazgarriak ingurumenean.</p> <p>(...)</p> <p>66. artikulua. Ingurumen-ebaluaziotik salbuetsi daitezkeen proiektuak.</p> <p>1. Salbuespenezko kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak salbuetsi egin ahal izango du, akordio arrazoitu bidez, Lege honetan araututako ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura aplikatzeko II. eranskinean jasotako proiekturen bat. Kasu horietan, baztertutako proiektua lege honen printzipio eta helburuak betetzen dituen beste modu bateko ebaluazio baten menpe jartzearen komenigarritasuna aztertuko da. Erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Europako Batzordeari jakinaraziko zaio.</p> <p>(...).</p>
--	---

Bi artikulua antzekoak badira ere, ez dute esanahi bera.

Hasteko, lege-aurreproiektuan kontraesan bat dago artikulua izenburuaren eta edukiaren artean. Izenburuan ingurumen-ebaluaziotik salbuetsitako planak eta programak aipatzen dira; artikuluan, aldiz, proiektuak.

Gainera, artikuluan ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende egotea aipatzen da, baina planen eta programen kasuan soilik, eta ez dira aipatzen ingurumen-ebaluazioaren bestelako prozedura baten mendeko proiektuak.

Batetik, baldintza hau ezartzen du: «*Prozedura aplikatzeak defentsa nazionalako edo babes zibileko helburuetan ondorio negatiboak izan ditzakeenean*», ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremutik salbuetsiko dira planak, programak edo proiektuak, horien helburu bakarra defentsa nazionala edo, larrialdi-kasuetan, babes zibila denean.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoa gaitzen du *irizpideak ezarri eta, hala, plan edo programa batek edo plan edo programa baten aldaketa batek izan ditzakeen efektuak ingurumenean adierazgarriak zer egoeratan ez diren izango zehazteko*; aldiz, Estatuko legegileak zehazten du salbuespena proiektuetan aplikatu behar dela salbuespen-kasuetan soilik. eta akordio arrazoituaren bidez lege-aurreproiektuaren 66. artikuluan jasotzen den bezala.

Lehen esan dugun bezala, ingurumena babesteari buruzko oinarrizko legeria Estatuaren eskumen eskusiboa denez, konstituzio-doktrinak erkidego-eskumena onartzen du «babes-neurri gehigarriak» ezartzeko soilik.

Babes-neurri gehigarri horiei dagokienez, KAK adierazten du autonomia-erkidegoek oinarrizko araudiaren maila areagotu dezaketela soilik, baina ezin dutela murriztu (156/95 KAE, zehapenetan; 89/00 KAE IIE formuletan, 109/2017 KAE IEE salbuespenengatik edo 196/1996 eta 16/1997 KAE), ezta kontrakoa esan ere (15/98 KAE edo 166/2002 KAEn debekatzen duen merkaturatze bat baimendu).

Aurrez azaldutako guztiagatik berrikustea eskatzen da eta, beharko balitz, 65. artikulua aldatzea.

69. artikuluari dagokionez –desadostasunak ebazteari buruzkoa–, lege-aurreproiektuaren 2. artikulua ezartzen du hala ingurumen-adierazpen estrategikoa nola ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezko txostenak eta lotesleak direla, eta, beraz, deigarria da ingurumen-organoa eta benetako organoa ados ez daudenean ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edo txostenaren edukiaren inguruan, Eusko Jaurlaritzako gobernu-kontseiluak edo, hala badagokio, foru-aldundiak ebaztea.

Iradokitzen dugu baloratzea manua mantendu behar den, adierazpenak eta txostenak lotesleak direla kontuan hartuta.

Testu arauemailearen zirriborroaren II. Tituluaren II. Kapituluak aztertzen hasita, **72. artikulua** ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua zehaztean xedatzen du kasu guztietan plan edo programa bat lantzea eskatu behar duela lege- edo arau-xedapen batek edo gobernu-kontseiluaren akordio batek. Gogoratu behar da plangintza urbanistikoa lege- edo arau-xedapen batean babesten dela eta ez duela halakorik eskatzen xedapen batek eta inolako kasutan gobernu-kontseiluaren akordio batek; beraz, artikulua honetako idazketa berrikusi beharko da.

Lerrokada honetan hizpidera ekarri behar da ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 oinarrizko Legearen 10. artikulua, hau ezartzen baitu: *«Ingurumen-adierazpen estrategikoa, ingurumen-txosten estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-inpaktuaren txostena lege ezarritako epeetan ez egitea ez da inola ere izango aldeko ingurumen-ebaluazioa egin izanaren baliokidea».*

II. Kapituluak ingurumen-adierazpen estrategikoaren izaera eta edukia arautzen jarraitzen du **73. artikuluan**. Artikulu honetako hirugarren zenbakia ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldiari buruzkoa da eta aurreikusi egiten du indarraldia luza dadila eskatzeko aukera «araudiaren arabera zehazten diren baldintzetan».

Araudi-garapenerako igorpen hau ere aurreikusten da 74.3 artikuluan ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduretako ingurumen-txosten estrategikoaren indarraldia luzatzeko eskaerari dagokionez, baita 75. eta 76. artikuluetan ere, ingurumen-inpaktuaren adierazpen eta ingurumen-inpaktuaren txostenen indarraldia luzatzeko eskaerei dagokienez.

Horri guztiari dagokionez gogoratu behar da epe-luzapenak APELen 32. artikuluan oinarrizko eran arautzen direla. *«1. Administrazioak, beste arauen batek aurkakorik ez badu adierazten, ofizioz edo interesdunek eskatuta eman ahal izango du, ezarritako epeen luzapen bat, **baldin eta ez bada epe horien erdia baino luzeagoa, baldintzek hori egitea aholkatzen badute eta horrekin hirugarrenei ez bazaie kalterik egiten. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie.***

(...) 3. Bai interesdunen eskaera bai epe-luzapenari buruzko erabakia, dagokien epea igaro baino lehen egin behar dira beti. Ezin da inoiz luzatu amaituta dagoen epea. Epeak luzatzeko edo luzapenak ukatzeko erabakiei errekurtsoa jar dakieke, eta horrek ez du eragozten prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka jartzea».

Era berean, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen azken xedapenetatik zortzigarrenaren arabera, oinarrizkoak dira ere, salbu eta horietan ezarritako epeei dagokienez, Lege bereko 27., 31., 43. eta 47. artikulua, ingurumen-adierazpen estrategikoari, ingurumen-txosten estrategikoari eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenei eta ingurumen-inpaktuaren txostenei dagokienez.

Aurreko guztia dela eta, gomendatzen dugu V. titulua zehatz-mehatz berrikustea, besteak beste, zehazteko zein kasutan errepikatu behar den ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean oinarrizko eran ezarritakoa eta zehazteko ingurumen-ebaluazioarekin erlazionatutako zein gaik merezi duten benetan araudi-garapen bat.

IV.c) 6.-Seigarren titulua. Ingurumenaren hobekuntza bultzatzeko tresnak.

VI. tituluak ingurumen-hobekuntza bultzatzeko tresnak jasotzen ditu. Horien artean daude, besteak beste, ingurumen-akordioak, Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS) eta Europako Etiketa Ekologikoa. Elementu horiek ingurumenaren zaintzan alderdi publikoaren zein pribatuaren arteko erantzukidetasuna ahalbidetzen dute, eta gai hori arautzen duen araudian finkatutako betebeharrak betetzen direla ziurtatuko dute. Beste tresna batzuk arbitratzen dira, esaterako, produktuen eta erakundeen bizi-zikloaren azterketa, izan dezaketen ingurumen-inpaktua neurtzeko eta hori murrizteko modua aztertzeke helburuarekin; erosketa publiko berdea, Legearen helburuak betetzeko oinarrizko mekanismo gisa, administrazio publikoei eskatuz erosketa mota hori sustatzeko; produktuen eta prozesuen ekoberrikuntza, ingurumenak sortzen dituen merkatuko aukerei etekina ateratzeko; eta ingurumenaren zerga-sistema bat finkatzea, finalista, ingurumenaren sustapena eta hobekuntza bilatuko dituenena. Era berean, aintzat hartzen dira ikerketa, hezkuntza eta prestakuntza, batetik, eta boluntariorik ezak ekintzetan herritarrek parte hartzea, bestetik, herritarren eta erakundeen artean ezagutza hedatu eta ingurumenari buruzko ezagutzaren oinarria hobetzeko, eta ingurumen-edukia duten interes orokorreko jarduerak egiteko, hurrenez hurren. Azkenik, aitorpen-ekintzak aurreikusten

dira Euskadiko ingurumen-balioak babestu, kontserbatu eta hedatzen laguntzen dutenentzat.

lido horretan, **77. artikuluan** arautzen dira ingurumen-akordioak. Lehenik, eta Estatuko barne-zuzenbidean horrelako akordioak berri samarrak direnez –halere funtsezko tresna bat dira ingurumenaren inguruko kalitatezko politika publikoetan Europako herrialdeetan erabili direlako azken hamarkadetan, eta hori «*Ingurumen-alarreko V. ekintza-programaren*» barnean kontuan hartu denez–, adierazi behar dugu faltan botatzen dela hori ez sartzea aurreproiektuaren 2. artikuluko definizioen artean. Horrela, ingurumen-administrazio eskudunaren eta enpresa baten edo sektore, kolektibo edo erakunde zehatz bateko ordezkarien artean izenpetutako akordio gisa definitu daiteke, eta, akordio horren arabera, borondatezko eran lotesten dira ingurumena babesteko helburu batzuk betetzera.

Bestalde, adierazi behar da Europar Batasunak 1996. urtean ingurumen-akordioari buruzko Komunikazio bat eman zuela. Ondoren, 2001ean, ingurumenaren alorreko Batasuneko VI. Ekintza Programa onartu zen, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko uztailaren 22an hartutako 1600/2002/EE erabakiaren bidez. Programa horren esparruan, 2002an Kontseiluaren Komunikazio bat garatu zen «Batasuneko ingurumen-akordioei buruz», gaur egun indarrean dagoena. Komunikazio hori aipatu daiteke zioen azalpenean figura berritzaile hori testuinguruan jartzeko.

78. artikuluan parte-hartzearen sustapena sustatzen da kudeaketa eta ingurumen-auditoretzen Batasunaren sistemari (EMAS). Horrela, administrazio publikoak sistema horretara beren borondatez atxikitzea sustatzeko hartu beharreko neurrien artean, artikuluko horretako 2. zenbakiak d) letran jasotzen du hau: «*Kontuan izatea sistemari atxikitzea legeria lantzean eta bere aplikazioan, eta legea betetzean betekizun arauemaileak murrizteko eta ezabatze*ko». Halere, aurreproiektuak ez du aurreikusten sistema honetatik eratorritako kontrol-betebeharrak betetzeak balio dezakeenik IV. Tituluaren III. Kapituluari jasotako ingurumen-baimenen kontrol-betebeharrak betetzen direla justifikatzeko, hori bai aurreikusten dutela, ordea, erkidegoetako beste araudi batzuek, esaterako, Aragoiko ingurumena prebenitu eta babesteko abenduaren 4ko 11/2014 Legeak.

Gainera, ingurumen-baimen integratuaren eskaerako edukian, ingurumen-baimen bakarrarenean ere, aurreikuspen hori ez izatea, ez dator bat aurreproiektuaren 3.2

artikuluaren aurreikusitako prozedura arindu, sinplifikatu eta administrazio-kargak murrizteko printzipioekin.

Aurreproiektuaren **79. artikulua** Europar Batasuneko etiketa ekologikoaren erabilpena sustatzeari buruzkoa da. Horrela, 2. zenbakian hainbat neurri ezartzen dira ingurumena errespetatzen duten produktuak eta zerbitzuak sustatzeko borondatezko tresna hau erabilera bultzatzearren; horien artean, alde batera uzten dira zergapizgarriak, esaterako, tasaren kuota jaitea EBren etiketa ekologikoa eman, zabaldu eta berritzeko eskaera izapidetzeagatik, hori aurreikusten baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginaren, irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren bidez onartuaren, 188. artikulua eta hurrengoek, enpresa txiki eta ertainentzat, baita mikroenpresentzat ere, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren arabera zehaztuta. Eta hori aurreproiektuaren 83.4.c) artikuluan ezarritakoarekin bat dator.

81. artikulua erosketa publiko berdea arautzen du. Puntu honetan, aipatu behar da lehenago administrazio honek hainbat ekimen gauzatu dituela kontratazio publikoan ingurumen-alderdia sartzeko, esaterako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko urtarrilaren 18ko Agindua, zeinaren bidez ezartzen diren sail horren eta berari lotutako edo bere mendeko erakundearen kontratuetan agintzen duten administrazio-klausulen pleguetan sartu beharreko ingurumen-baldintzak eta irizpideak; 2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Estrategia; gobernu-kontseiluak hartutako erabakia honi buruz: «Autonomia-erkidegoko eta bere sektore publikoko administrazioaren kontratazioan gizarteko, ingurumeneko irizpideak eta bestelako politika publikoak sartzea» Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpenaren bidez argitaratua; 2016-09-20ko gobernu-kontseiluaren akordioa «2020 Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa onartzen duena». Kasu honetan lege baten bidez egiten da, sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 90.2, 126.4 eta 5, 129. eta 145. artikuluetan ezarritakoaren ildotik.

Aurreproiektuaren **83. artikulua** jasotzen da ingurumen eta ekologiako zerga-sistema. Zentzu zabalean, sistema hori uler daiteke natura-ingurunea babesteko helburuarekin tributu-zuzenbidean hartutako neurrien bilduma bezala. Definizioa zabala denez, bertan integra daitezke hala ingurumen-tributuak espezifikoki nola helburu berdineko elementuak dituzten gainerako tributuak, esaterako, 4. zenbakiaren c) letran aurreikusitako murrizketak, hobariak edo salbuespenak.

Tributuen funtzio nagusia gastu publikoei aurre egiteko baliabide ekonomikoak lortzea bada ere, duela hamarkada batzuetatik hona, orokorrean onartzen da horiek zehazki zerga-bilketarako ez diren beste helburuetarako erabiltzea. Hala, tributu-ordenamenduan zergez kanpoko helburuak dituzten tributuak erabiltzeak nolabaiteko tradizioa du eta hori dago islatuta indarrean dagoen Tributuen Lege Orokorrari buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legean, hau ezartzen baitu 2.1 artikuluan: «*Tributuak, gastu publikoak sostengatzeko behar diren baliabideak lortzeko baliabideak izateaz gain, balio ahal izango dute politika ekonomiko orokorraren tresna gisa eta Konstituzioan jasotako printzipio eta helburuak gauzatzen direla bermatzeko*».

Era berean, funtzio horiek onartzen direla islatzen da Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian hau adierazten baita: «*Estatuko tributu-sistemaren zergaz kanpoko funtzioa ez da berariaz jasotzen Konstituzioan, baina funtzio hori zuzenean etor daiteke politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarieratik (40.1 eta 130.1 artikulua, bereziki); izan ere, hala tributu-sistemak nola tributu-figura zehatz bakoitzak Konstituzioak agindutako helburu ekonomiko eta sozialak lortzeko Estatuak dituen tresnak dira*».

Bestalde eta nahiz eta artikulua honetako 2. eta 3. zenbakiek ezartzen duten lortutako bitartekoak lege-aurreproiektuaren gastu jakin batzuk ordaintzearekin lotuta daudela – diru-sarrera publikoek loturarik ez izateko Tributu Zuzenbidean agintzen duen printzipio orokorraren aurka– ez da lotura hori tributu ekologikoaren ezaugarri, baizik eta ingurumena errespetatzeko helburu pizgarri.

Aurreproiektuaren **84. artikulua** ezartzen du hala eragile publikoek nola pribatuek partekatu (eta sustatu) egingo dituztela ikerketa-ahaleginak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen esparruan eta aurrerapen horiek ingurumen-politika publikoetara transferituko direla. Bestalde (2. zenbakia), adierazten da administrazio publikoek ingurumenaren alorreko heziketa eta sentsibilizazioa sustatuko dituztela sektore sozial guztietan, herritarren artean eta erakunde guztietan ingurumena hobetzeko ezagutzak, informazioa, jarrerak, balioak, portaerak eta trebetasunak ezagutarazteko eta zabaltzeko jardueren bitartez. Hori guztia bat etorriko da politika publikoak diseinatu eta gauzatzean informaziorako sarbide, gardentasun eta herritarren parte-hartzeari buruzko 3.1.b) artikuluan ezarritako printzipioarekin; 13. artikuluan aurreikusitako ingurumen-informazioaren hedapenarekin (INGURUNETen

bidez), baita ekoberrikuntza sustatzeko esparruarekin ere, aurreproiektuaren 82. artikuluan aurreikusia. Gogora dezagun horrek, barnean hartzen dituela fabrikazio-prozesu berriak, produktu edo zerbitzu berriak eta enpresa edo kudeaketako metodo berriak, baldin eta horiek guztiak erabiltzeak edo gauzatzeak asko prebenitu edo murrizten baditu ingurumen-arriskuak, kutsadura eta baliabideen erabileraren bestelako inpaktu negatiboak, horiei lotutako jardueren bizi-ziklo osoan zehar. Hau da, lege-proiektuaren printzipio inspiratzaileek, esaterako, gardentasunak, euskal administrazio publikoek dituzten datu nabarmenen informazio-eskubideak, informazio horren publikotasunak kasu askotan, baita ingurumen-sentsibilizaziorako informazio eta ezagutza desberdinak hedatzea ere, eragin diezaieke hirugarrenen eskubideei, batez ere merkataritza eta industriako sekretuarekin edo jabetza intelektual eta industrialarekin erlazionatutakoei (esaterako, edozein ekoizpen-prozesutan eskura dagoen teknologia hobe baten *know-how*-a), hori konfidentzialtasun-printzipio batzuek arautzen dute eta horiek ere bermatu beharko lirateke ondorio horietarako, IV. tituluko I. eta III. kapituluetakoa aurreikuspenez gain, jarduerak eta instalazioek ingurumenean esku hartzeko araubideen esparruan; ingurumen-ebaluazioari buruzko V. tituluaren I. kapituluan eta, azkenik, VII. tituluko II. kapituluan, ingurumen-ikuskapenaren esparruan. Inori ez dio ihes egiten eskubidez baliatzeko aitzakian eta aipatutako informazio-kanalen bidez, industria-espioitzako portaerak babestu daitezkeela.

85. artikuluan adierazten da herritarren parte-hartzea sustatuko dela ingurumena babesteko eta hobetzeko interes orokorreko jarduerak burutzeko ekintza boluntarioetan, boluntarioei buruzko uztailaren 25eko 17/1998 Legean eta aplikagarri diren gainerako araudietan finkatutakoaren arabera.

Bestalde, 2. zenbakian daude 17/1998 Legeko 12. artikuluan aurreikusitako jarduketak, eta aurreproiektuaren ondorioetarako, bereziki sustatzea interesatzen da. Bada, b) letran jasotako jarduketari dagokionez, «*laguntzak ematea eta hitzarmenak sinatzea boluntarioen erakundeen mantentze, prestakuntza eta ekintzarako*», adierazi behar dugu laguntza-ildoan deialdiarekin bultzatu nahi dela boluntarioen jarduketak sustatzea, eta ez horiek ematearekin; beraz, 17/1998 Legeko idazketa lehenesten dugu ekimenaren sustatzaileak ezarritakoaren aldean.

IV.c) 7.-Zazpigarren titulua. Ingurumen-ikuskaritza eta kontrola.

Besteak beste, etorkizuneko Lege honen helburua hau da: *«Informazioa ikuskatu eta hornitzeko eta jendaurrean hedatzeko mekanismo efikazak ezartzea, baldin eta mekanismo horiek Lege honen aplikazio-esparruaren barnean hartzen dituen jarduerak kontrolatzea errazten badute» eta «Erantzukidetasun publiko/pribatua sustatzea ingurumena babesteko».*

VII. titulua, ingurumena ikuskatu eta kontrolatzeari buruzkoa, bi kapitulutan banatzen da. Lehenengoak ingurumen-lankidetzarako erakundeak (ILE) definitzen ditu eta administrazio publikoek horiei agindu diezazkiekeen funtzioak aipatzen ditu. Lerrokada honetan berritasun nagusia da pertsona fisikoak ILE gisa inskribatzeko/eratzeko aukera onartzen dela; horrela, erantzun egiten zaio herritarren sektore batzuek berariaz eskatzen zuten gai bati.

Bestalde, **87. artikulua**ren 3. zenbakian hau ezartzen da: *«Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak eskatzen duten erakundeak erregistratuko ditu, beharrezko baldintzen arabera eta araudi bidez ezartzen den prozeduraren arabera, baita bere independentzia eta inpartzialtasuna bermatzen duten neurrien arabera ere. Ingurumenaren alorrean eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailaren mende egongo da erregistro hori, eta izena emandako ingurumenaren alorreko lankidetzako-erakunde bakoitza identifikatzen duten datuak eta erakunde bakoitzaren jardura-maila eta -irismena jasoko ditu».*

Gai honi dagokionez, aipatu behar da urriaren 16ko 212/2012 Dekretua, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena. Dekretuak bere garaian aurreikusi zuen EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen administrazio Erregistro berri bat sortu behar dela, eta bertan argitaratuko direla erakundearen izena, maila eta jardueraren irismena.

Kontuan izanda memoria ekonomikoak ez duela aipatzen manu hori, ez dakigu zein arrazoi dela-eta berriz ere arautzen duen gai hau sailak, ILEen erregistroari lege-lerruna emateaz harago.

Era berean, gogoratu behar da ILEen dekretu hori partzialki etenda dagoela irailaren 10eko 407/2013 Dekretuaren arabera, dekretu horrek eten egin baitzuen aldi baterako ingurumen-lankidetzako erakundeak arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012

Dekretuaren indarraldia, pertsona pribatuek ingurumen-lankidetzako erakundeak erabiltzeko betebeharrari dagokionez.

VII. Tituluaren bigarren kapituluak ingurumen-ikuskaritza arautzen du legearen mendeko jarduerak ingurumen-legezketasunera egokitzen direla bermatzeko. Horrelako gaiak arautzen ditu: ingurumena kontrolatu, zaindu eta ikuskatzeko lanak egingo dituzten langileak, lan horiek zuzenean egin ahal izango dituzte administrazio publikoetako langileek edo horretarako esleitutako erakunde eta pertsonak; ingurumena ikuskatzeko plangintza, aldizka berrikusi beharko dena legeak adierazten duen gutxieneko edukiarekin eta ikuskapen-programen bidez garatuko dena. Horietan sartuko dira bisiten maiztasuna ingurumenean eragina duten jarduera mota desberdinetarako, ingurumen-arriskuen ebaluazio sistematikoan oinarrituta, eta sistema horrek kontuan izango ditu arau honek finkatzen dituen irizpideak eta araudi bidez ezarri ahal izango diren beste batzuk.

Berria da arauaren **89.1 artikuluko** idazketak hau adieraztea: *«Ingurumenaren alorreko kontrol-, zaintza- eta ikuskaritza-lanak zuzenean egin ahal izango dituzte xede horretan izendatutako administrazio publikoetako langileek edo, administrazio publikoen izenean, lan horiek egiteko gaitasun tekniko egokia erakusten duten erakundeek edo pertsonak, ikuskaritza-lan horiek ez badaude funtzionario publikoerreserbatuturik eskumen publikoen jarduera direlako edo beste zirkunstantzia batzuk gertatzen direlako».*

Zalantza bat sortzen da *«lan horiek egiteko gaitasun tekniko egokia erakusten duten erakundeek edo pertsonak»* ikuskaritzako jarduketa materialak egin ahal izateari dagokionez, lan horiek ez daudenean funtzionario publikoentzat erreserbatuta eskumen publikoen jarduera direlako edo beste zirkunstantzia batzuk gertatzen direlako.

Arauaren **87. artikulua** arabera, ILEak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke; beraz, gaur egungo idazketak ez du argi uzten ILEez gain, beste pertsona batzuek egin ditzaketen ikuskaritzako jarduketa materialak, jarduketa horiek ez badaude funtzionario publikoentzat erreserbatuta eskumen publikoen jarduera direlako edo beste zirkunstantzia batzuk gertatzen direlako; beraz, iradokitzen dugu berrikustea artikulua honen idazketa eta kentzea «edo pertsonak» juntagailua, 89.1 artikulua ILEak zenbait zeregin egiteko soilik gaitzea pentsatzen bada.

Artikuluak jarraitzen du aipatzen ikuskaritzako jarduera egiteko ofizialki izendatuta dauden administrazio publikoetako funtzionarioak eta horiek agintaritzako eragileztat jotzen ditu berezkoak dituzten eginkizunak aurrera eramateko.

Baieztapen horren jarraian **89. artikulua**ren hirugarren zenbakia dago eta horrela hasten da: *«Ikuskatzaileek ahalmena dute Lege honen mende daudenen eskura dagoen edozein ingurumen-dokumentazio erakuts dadila eskatzeko, baita, aurrez identifikatu gabe eta abisatu gabe, Lege honen aplikazio-esparruaren baitako jarduerak garatzen diren instalazioetara eta gainerako lekuetara sartu eta horietan egoteko ere»*, eta kasu honetan ez dago argi ikuskatzaileak aurreko artikuluan aipatutako funtzionarioak diren soilik edo ILEak ere sartzan diren; hortaz, hala funtzionarioei nola ILEei eman nahi bazaie ahalmena, ikuskatzaile terminoa ingurumen-ikuskaritzako langileekin aldatzea iradokitzen dugu artikulua zenburuarekin eta 91. artikuluan ezarritakoarekin koherentea izateko. Hau adierazten du 91. artikulua: *«Lege honen mendeko jardueren titularrek behar den lankidetzara eskaini behar diote 89. artikuluan aipatzen diren ingurumen-ikuskeraren langileei, horiek edozein azterketa, kontrol, lagin-hartze egiteko eta behar den informazioa biltzeko beren eginkizunak bete ditzaten»*.

Ikuskeraren txostena eta -akta izeneko **90. artikulua** berrikuntza gisa ezartzen du ingurumen-baimen integratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren araubideen mendeko jarduerak ikuskatzeko kasuetan, ikuskeraren bisita bakoitzaren ondoren, txosten bat egingo dela, eta hori dagokion araudi sektorialak horrela eskatzen duenean eta, kasu guztietan, jendeak ingurumen-informaziorako sarbidea izateari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek bitarteko elektronikoaren bidez herritarren eskura jarriko dutela lau hilabeteko epean bisitatik kontaktatzen hasita. Artikuluak jarraitzen du, hala dagokionean, txosten horien berri emango zaiola jardueraren titularrari, bisita hori egin den egunetik kontaktatzen hasita bi hilabeteko epean. Deigarria da txosten horiek bi hilabeteko epean bidali behar badira ezin direla publiko egin, kasu horretan, 4 hilabete pasatu arte. Gai hau ere ez da jaso justifikazio- eta ekonomia-memorian.

Txostenei dagokienez, aipatu behar da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 80.1 artikuluaekin bat, *«Txostenak aukerakoak dira, eta ez lotesleak, espresuki kontrakoa xedatzen ez bada»*.

Bestalde, **90.3 artikuluan** zuzendu behar den idazketa-akats bat dago; bertan «ikuskapen-bista» aipatzen da «ikuskapen-bisita» beharrean.

92. artikulua ikuskapen-alorreko plangintza eta programazioari lege-manu maila ematen dio, hori ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioekin. Gainera, programak lantzean behatu behar diren ingurumen-arriskuen ebaluazio sistematikoari buruzko gutxieneko irizpide batzuk ezartzen dira, baina ez da zehazten horiek nola baloratu behar diren; hortaz, gomendatzen dugu aipatutako artikulua idazketa berrikustea.

IV.c) 8.-Zortzigarren titulua. Ingurumenaren alorreko legezketasuna berrezartzea eta ingurumen-kalteengatiko erantzukizuna.

Ingurumenaren alorreko legezketasuna berrezartzeak eta ingurumen-kalteengatiko erantzukizunak laguntzen dute erantzukidetasun publiko/pribatua sustatzen ingurumena babesteko esparruan, lege honen xedea dena.

Titulu honek **94. artikuluan** jasotzen ditu funtzionamenduan dauden jarduerak legeztatzeke hartu beharreko neurriak, jarduera horiek ez dutenean baimenik edo lizentziarik, edo aurretiazko jakinarazpenaren prozedurako izapideak bideratu ez dituztenean edo, horiek izanda ere akatsak detektatzen badira funtzionamenduan eta aurreikusten bada berariaz behin betiko ixtea jarduera legeztatu ezin den kasuetan.

Legearen aurreproiektuak aurreikusten du zuzenketa-neurriak eska daitezkeela baimen-araubideen esparruan ikusitako funtzionamendu-akatsak zuzentzeko, legaltasuna berrezartzeko prozeduraren barnean. Neurri hauek txertatzeari buruz justifikazio-memorian azalpenik ez dagoenez, zalantza sortzen da berariaz funtzionamendu-akatsen kasuetan soilik gaitzen duen edo, aitzitik, eska daitezkeen instalazioen egoerari dagokionez.

Bestalde, proiektu arauemaileak neurri hauei denbora-muga bat ezartzen die, denbora-muga hori gainditzeak dakartzan ondorioak ezarri gabe. Justifikazio-memorian ere ez du azaltzen nola jardun behar den ingurumen-legezketasuna berrezartzeko prozedura ebazteko hiru hilabeteko epearekin. Hortaz, iradokitzen dugu gai hau berrikustea.

97. artikulua ingurumen-legezketasuna berreskuratzeko prozedura bat jasotzen du. 97.1 artikulua saiatzen da aplikazio-eremu bat zehazten eta aurreikusten du prozedura

hau aplikatuko dela jardueren legezkotasun-kasuetan eta/edo aldatutako egoera berreskuratze kasuetan, zuzenketa-neurriak ezarri behar direnean edo jarduerak eten behar direnean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (zeinaren helburua den arautzea administrazio-egintzen baliozkotasun- eta efikazia-baldintzak, administrazio publiko guztien administrazio-prozedura, baita administrazio publikoak zehatzekoa eta horiei ardura erreklamatzekoa ere) berariaz aurreikusten du aukera dagoela lege bidez, efikaza, proportzionatua eta beharrezkoa denean prozeduraren berezko helburuak lortzeko, eta era arrazoituan, izapide gehigarriak ezartzeko edo legean jasotakoez bestelakoak ezartzeko.

Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan araututako prozedurak ez du ezartzen izapide gehigarrik edo 39/2015 Legean jasotakoez bestelakorik.

Arauk jarraitzen du adierazten erregelamendu bidez prozedura-espezialitateak ezarri ahal izango zaizkiela organo eskudunei, gaiarengatik prozedura zehatzaren berezko epeei, hasteko eta amaitzeko moduei, eta argitaratze eta bildu beharreko txostenei. Beraz, prozedura berria bat dator estatuko oinarritzko legeriarekin.

Kontuan izanda 97. artikuluko 3. zenbakiak hau adierazten duela: «*Prozedura hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar da. Epe hori igarotakoan ez bada jakinarazi berriazko ebazpenik ulertuko da prozedura iraungi egin dela*», ondorioztatzen da prozedura hori beti ofizios hasiko dela.

97. artikuluauren laugarren zenbakiak hau ezartzen du: «*Larrialdi kasuetan, prozedura administratiboa izapidetu beharrik gabe esku hartu ahal izango du agintaritza eskudunak, kalteak prebenitzeko eta saihesteko neurriak finkatzeko edo neurri horiek aplikatu daitezela exijitzeko*».

Larrialdi-kasuetan adierazpena zehaztugabea da; beraz, hori berrikustea gomendatzen dugu. Gai honi dagokionez, ohartu behar da Babes Zibilaren Sistema Nazionalari buruzko uztailaren 9ko 17/2015 Legeak babes zibilaren larrialdia horrela definitzen duela: «*Pertsonak edo ondasunak berehalako arriskuan jartzen dituen gertaerak eragindako arrisku-egoera kolektiboa da. Botere publikoek bizkor kudeatu behar dute egoera, pertsonak artatzeko eta kalteak arintzeko, eta hondamendi bihurtzea saihesten ahalegintzeko. Ezohiko larrialdi ere esaten zaio, kolektiboki eragiten ez duen ohiko*

larrialditik bereizteko».

Artikulu horretako 6. zenbakiak hau adierazten du: «*Hartu litezkeen zuzenketa-neurriak dira, aurreko artikuluetan adierazitako jarduerak bertan behera uzteko eta zuzenketa-neurriak aplikatzeko neurriez gain, Lege honetako zehapen-prozedurari begira aurreikusitako neurriak».*

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak kautelazko neurriak 31. artikuluan arautzen ditu: «*Ebazpenaren efikazia ziurtatzeko edo jardunbideari eragozpenak ipintzea ekiditeko hartu ahal izango dira, edota baita juzgatutako egitateak edo antzeko esangura dutenak jarraitzea edo berriro gertatzea ekiditeko edo egitateek sortarazitako kalteak jarraitzea edo kalteak arindu nahi izatea ekiditeko» eta 32. artikuluan aurreikusten da ikuskatzaile funtzionarioek hartu ditzaketen salbuespenezko kautela-neurriak «*ikuskaritza-lanak betetzen ari diren funtzionarioek ez-zilegiak izan daitezkeen egitateak egiaztatzen badituzte, ezarri ahal izango dituzte kautela-neurriak salbuespenez, interesatuei aurreko entzunaldirik egin gabe, honako baldintza hau izanez gero: 31.1 artikuluan adierazten diren helburuak lortu ahal izateko, lehenengo eta bigarren azaldutakoak izan ezik, kautela-neurriak berehala hartu beharra derrigorrezkoa izatean».**

Aipatu behar da salbuespenezko kasu hauetan zehatzeko ahalari buruzko Legeak hau aurreikusten duela: «*Atal honek arautzen dituen kautela-neurriak ezarri diren kasuetan, dagokien zigor-jardunbidea irekiko da ahalik eta lasterren, eta irekitze-egintzan zigortzeko eskumena duen organo titularrak zehaztuko du, arrazoituta, neurri horiek amaitu, jarraitu edo aldatu egin behar diren. Horren ondoren, 31.2 artikuluan aurreikusten diren kautela-neurrien ondorengo alegazioen izapideari ekingo zaio».* Era berean, zehazten du kautela-neurriok desagertu egingo direla, baldin eta hartu eta lau egun igarotzen badira zehapen-prozedura hasi gabe.

Harritu egiten du 97.7 artikuluan jasotako manuak hau xedatzen baitu: «*Era berean, ur- edo argindar-hornidura eten ahal izango da behin-behineko neurri gisa, ixteko edo jarduera bertan behera uzteko agindua jaso duten jardueretan, instalazioetan eta obretan. Horretarako, ur- edo argindar-enpresa hornitzaileei dagokion erabaki administratiboaren berri emango zaie, eta gehienez ere bost eguneko epean beteko dute agindu hori. Hornidura horien etenari amaiera eman ahal izango zaio jarduera-*

etetea amaitzen denean soilik, eta jarduten duen administrazioak hori jakinarazten dienean enpresa hornitzaileei». Horrelako gai batek legegileak hirugarrenak behartzeko duen legimitatea aztertzea eskatzen du, printzipioz bere aplikazio-eremutik kanpo egongo bailirateke. Berriz ere gai hau ez da garatu proiektuaren justifikazio-memorian.

Gai honi dagokionez, aipatu behar da, Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera, inolako kasutan ezingo dela eten energia elektroaren hornidura instalazio horiek ez dutelako ordaindu, baldin eta instalazio horien zerbitzuak funtsezkotzat deklaratu badira. Kontuan hartuta neurri hori indarrean dagoen araudi elektroan, oinarrizkoa dena, ezarritakoaren aurkakoa izan daitekeela, neurri hori berrikustea iradokitzen dugu.

Aurreproiektuaren 98. artikuluan atentzioa ematen du hertsapen-isunak ezartzeak ez duela eskatzen, zehapen-prozeduraren esparruan aurreproiektuaren 111.2 artikulua aurreikusten duen bezala, betetze-errekerimenduan adierazi behar denik jardueraren edo instalazioaren sustatzaileak edo titularrak duen epea neurriak bere borondatez betetzeko (behar bestekoa izango dena 111.2 artikulua kasuan), ezta ezar daitekeen isunaren zenbatekoa ere; hala, zehapen-prozeduran baino berme gutxiago eskaintzen dira.

VIII. Tituluaren II. Kapitulua ingurumen-kalte adierazgarriengatik erantzukizunari buruzkoa da eta lege-aurreproiektuan jasotzen da kalte horiek (baita kalte horiek sor ditzaketen mehatxuak ere) prebenitu, saihestu eta konpontzeko helburuarekin, 2004/35 Zuzentarauko eta Estatuan zuzentarau hori egokitzeko araudiko moduan eta baldintzetan.

Konstituzioko 45. artikulua ingurumen egokiaz gozatzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, pertsonaren garapenaren ezinbesteko baldintza gisa, eta zehazten du baliabide naturalak era arrazionalan erabiltzeko eta natura kontserbatzeko betebeharrak urratzen dituztenek konpondu egin beharko dutela sortutako kaltea, dagozkien administrazio zigorrez edo zigor penalez gain.

Lege honetako 6.c) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira, pertsona guztiek dute, hala badagokie, hondatutako ingurumena leheneratzeko betebeharra.

Esparru horretan natura-ingurunean sortu ahal izan den edozein kalte konpontzeko

betebeharra arautzen da, edozein izanda ere egiten ari zen jarduera ekonomikoa. Horrelako erantzukizunek balio dute hala lur-ingurunearentzat nola aireko edo ureko ingurunearentzat, eta ez da ahaztu behar horiek ere ingurumenaren zati direla.

Estatuan, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen bidez arautzen da. Lege horrek berdin arautzen ditu ingurumen-legezketasuna berreskuratzea eta ingurumen-kalteengatik erantzukizuna. Azken xedepenetatik lehenengoaren arabera, lege hau ingurumena babesteko oinarrizko legea da, eta ez ditu mugatzen autonomia-erkidegoek arau gehigarriak ezartzeko dituzten ahalmenak, Konstituzioan ezarritakoarekin bat.

Esparru honetan, ezartzen du ingurumen-kalteak adierazgarriak diren «*Estatuko oinarrizko legearekiko ebaluatuko dela*», kontuan izanda Legearen I. eranskinean adierazitako irizpideak. Era berean, beste kontzeptu batzuen artean, berehalako kalteen mehatxua definitzen du.

IV.c) 9.-Bederatzigarren titulua. Ingurumen-diziplina.

Aurretiaz, aurreproiektuak duen zehapen-araubidea aztertzean, gogoratu egin behar da hori diseinatzean bete behar diren parametroei buruzko konstituzio-doktrina. Besteak beste, otsailaren 14ko 37/2002 KAEk, hau adierazten du: «*Zehatzeko ahala ez da eskumen-titulua autonomo bat (azaroaren 15eko 156/1985 KAE, 7. OJ) eta autonomia-erkidegoek zehatzeko ahala dute eskumenak dituzten funtsezko gaitetan; hala, motak eta zehapenak ezarri edo modula ditzakete Estatuaren oinarrizko arau edo printzipioen esparruan, zeren aukera hori ezin da bereizi zuhertasun- edo aukera- eskakizunetatik, horiek alda baitaitezke lurralde-eremu desberdinetan. Gainera, horien xedapenak egokitu egin behar dira zehapen-zuzenbide administratiboaren alor honetan ezarritako bermeetara (uztailaren 9ko 227/1988 KAE, 29. OJ)*». Berdina esan daiteke zuzenbide administratibo zehatzailearen arauketari buruz. Ez da horrela agertzen EKren 148. eta 149. artikuluetan, ezta autonomia-estatutuetan ere. Horregatik, hori osatzen duten manuak konstituzio-blokeak baliatzen dituen hainbat gaitan sartu behar dira, eskumenak banatze aldera. Zehazki, zuzenbide administratibo zehatzailearen zati bereziari dagokionez, hau da, arautu beharreko sektore bakoitzeko arau-hauste, zehapenen eta beste elementu espezifikoaren (erantzuleak, astungarriak, etab.) arauketari dagokionez, elementu horiek ezartzeko eskumena eta bere zehapen-

araubidea Estatukoa edo erkidegokoa izango da, kontuan izanda dena delako gaiaren legegintzako eskumena zeinek duen, eta hori partekatuta badago, eskumena ere partekatu egingo da. Beraz, iraunkor gisa kalifika daitekeen konstituzio-ildoaren arabera, ingurumenaren alorrean legegintza-garapenerako eta Estatuko oinarrizko legegintza gauzatzeko erkidego-eskumenak ahalmena ematen du zehapen-arau administratiboak hartzeko. Orokorrean, zeregin horretan xedapenak onartu ahal izango dira, zeinak zehapen-zuzenbidearen esparruan xedatutako bermeetara egokituko diren (EKren 25.1 artikulua) eta, lurraldearen beste leku batzuetan aplikagarria den araubide juridikoari dagokionez, ez duten sortuko lortu nahi den xedearen ikuspuntutik zentzugabea eta neurrigabea den desadostasunik (EKren 149.1.1 artikulua). 149/1991 KAEn adierazten den bezala, arau-hausteak tipifikatzen dituzten eta zehapenak ezartzen dituzten arauak eginbeharrak eta betebeharrak adierazten dituzten arauen zati besterik ez dira, baldin eta eginbehar eta betebehar horiek ez betetzea falta gisa tipifikatzen bada; hortaz, ingurumena babesteari buruzko arauak behar dituzten osagarriak dira. Eta ingurumena babesteko alorrean emandako arauen esparruan, espezifikoki, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bateginari, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, oinarrizkoa izatea onartzen zaio baina, kasu honetan, gutxieneko zentzuarekin, ez baitu baztertzen, ezta saihesten ere, Euskal Autonomia Erkidegoak arau gehigarrien bidez ezarritako beste portaera batzuen tipifikazioa (guztien izenean, 102/1995 KAE).

Eta, hala, alor honetako oinarrizko araudiaren helburua da lurralde nazional osoan aplikatu beharreko gutxieneko ingurumen-babes maila ezartzea, eta gutxieneko horiek errespetatu egin behar dituzte autonomia-erkidegoek oinarrizko araudian ezarritako babes-mailak osatzeko edo indartzeko legegintza garatzeko eta oinarriak gauzatzeko eskumenez baliatzen direnean. Hortaz, eskumen-banaketaren konstituzio-ordenara egokitzeko ikuspuntutik, aurreproiektuan aurreikusitako arau-hausteak, zehapenak, osagarriak, horien mailaketa, preskripzioak eta antzerakoak aztertzeak eskatzen du baloratzea ea benetan babes-maila murrizten den Estatuak oinarrizko eran ezarritakoarekiko, horrek eskumen-urraketa ekar baitezake.

Eta, oro har, egiaztatzen da aurreproiektua alor honetako oinarrizko araudiaren araberakoa dela. Hiru arau-hauste motak mantentzen ditu (oso astunak, astunak eta arinak), Estatuko testuarekiko desberdintzen den portaera arau-hausleen tipifikazio bat egiten du baina ez dago kontraesanean eta ez du murrizten, ondasun juridiko berdina gordez (ingurumena babestea, oro har). Era berean, babes hori bermatzeko tresna moduan aurrez mugatutako legezko eskakizunak ez betetzeari aurka egiten zaio

—Estatuko arauaren ildo beretik— eta, gainera, faktore bera kontuan hartzen da arau-hausteen mailaketa antolatzeko: pertsoneri edo ingurumenari eragindako arriskua edo kalteak. Mota arau-hauslerik ez izatea aurreproiektuaren I.A eranskinean jasotako jarduera edo instalazioei dagokienez (Estatuko Legearen I. eranskina), hau da, ingurumen-baimen integratuaren mende daudenei dagokienez, ez da arazorik izan behar arau hori aplikatzeko, betiere bi arauketak (Estatukoa eta erkidegokoa) interpretatzen badira paralelo eta bateragarri gisa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 51/2016 irizpenean adierazi duen bezala, aztertzen den testuan arau-hauste batzuk ez badaude alderatu beharreko estatuko oinarrizko arauarekiko, hori *«konpondu daitekeen alderdi bat da horrelakorik ez dagoenean alderatu den araua halabeharrez aplikatuta»*. Zehapeneri dagokienez, aurreproiektuak duen zerrenda ikusita, uste dugu ezarritako arauketak ez dituela gainditzen EKren 149.1.1 artikuluko mugak, ez duelako sartzen desadostasun zentzugaberik edo desproporzionaturik estatuko arauak ezarritakoarekiko eta, azkenik, zehapenen mailaketari dagokionez, oinarrizko agindua bete da, eta helburu horretarako Estatuko arauak aurreikusitako irizpideak zati batean errepikatzen ditu. Hori guztia, aurreproiektuaren 104. artikuluko iruzkin indibidualizatuan adieraziko dena baldintzatu gabe edo horri kalterik egin gabe.

101.2 artikuluan hau ezartzen da: *«Lege honetan ezarritako arau-hauste administratiboek ulertzen da ez dituztela baldintzatzen erantzukizun zibilak, penalak edo egileek egin ditzaketenen bestelako batzuk»*. Bigarren zenbaki honen idazketa aztertuta, «ez dituztela baldintzatzen» adierazpena interpreta daiteke hasieran arau-hauste administratibotzat jotako jokoera bat legez kontrako penala izan daitekeela baina, halaber, ondorioztatu daiteke administrazio-bidean zehatu daitekeela, gertaera horren pertsekuzio kriminala gutxietsi gabe. Ildo horretan eta *bis in idem* bat ekarriko luketen epaitze paraleloen edozein tentazio saihesteko, debekatuta dagoena sektore publikoko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 31.1 artikuluan, komeniko litzateke gehitzea arau-hausteak delitu izan badaitezke administrazioak fiskaltzari horren berri emango diola, eta uko egingo diola zehapen-prozedurarekin jarraitzeari agintaritza judizialak artxibatze irmoen epaia edo autoa eman arte eta soilik deliturik ez dagoela uste denean, administrazioak zehapen-espedientearekin jarraituko duela oinarri gisa hartuz auzitegiek frogatutzat jotzen dituzten egitateak, hori guztia *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 25. artikuluan ezarritakoarekin bat*.

102. artikuluko arau-hausteen tipifikazioari dagokionez eta kontuan izanda

aurreproiektuaren 101.1 artikuluan agindutakoa («... *kalterik egin gabe gai horiek sektorialki arautzen dituzten Lege-lerruneko arauetan tipifikatutako arau-hausteei, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoak direnak*»), agerikoa dirudi ingurumen-baimen bakarra ez lortzeari edo baimen horren baldintzen mende ez egoteari dagokionez, hurrenez hurren, 2. zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako arau-hauste motak, ez luketela hartuko edo jasoko arau-hausteen balio-galera guztia, baldin eta obrak, proiektuak eta jarduketak hasi edo gauzatzeko arduradunak ingurumen-baimen bakarra ez badu lortzen edo arduraduna bertan ezarritako baldintzetara ez bada egokitzen, baita, halaber, arduradun horiek baimen horretan jasotako gai bakoitzari dagokion araudi sektorialean egin ditzaketen arau-hausteei dagokienez ere. Halere, aurreproiektuaren 31.2 artikuluan aurreikusitako ingurumen-baimen bakarra biltodi, jabari publiko hidrauliko eta itsas-lehorreko jabari publikorako hondakinak, isurketak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, baita atmosferarakoak ere, egintza batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak emandako aurretiazko administrazio-prozedura bakarrean integratu behar direnez, galdetzekoa da aurreproiektuaren 102.2 artikuluan a) eta b) letretan aurreikusitako arau-hausteen arduradunari ezarri egin behar ote zaizkion hainbat arau-hausteri dagozkien zehapen guztiak, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 17.1 artikulua agintzen duen bezala, edo bestela, legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, arau-hauste desberdinak gertaera batenak badira edo arrazoi berdina aprobetxatuz –hori da ingurumen-baimen bakarrean ezarritako baldintzak ez izatea edo horietara ez egokitzea–, arduradunari ezarritakoetatik astuntasun gutxiagoko zehapenak ezarri behar zaizkion horrelako arau-hauste bakoitzerako. Azkenik, era berean kontuan hartu beharko litzateke otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18.3 artikuluan ezarritakoa aplikatzea; izan ere, artikulua horrek jasotzen du ondasun juridiko babestuen edo kontuan hartutako arriskuen artean puntu komunak badaude, aurrez ezarritako zehapenak balio behar duela hein batean zehaztuko den arau-haustearen babes-helbururako eta hori kontuan izan behar dela arintzeko zentzuan gradua dadin ondorengo zehapena. Kasu horretan eta horrela eskatzen badu proportzionaltasun-printzipioak, arau-hausteei dagozkien zehapenak ezarriko lirateke edo astuntasun gutxiagoko arau-hausteen kategoriak, eta, salbuespenez, aurreko arau-haustea bereziki astuna bada, ondorengo zehapena konpentsatu daiteke; halere, arau-haustea egin dela deklaratu ahal izango da.

Eta ziurgabetasun hori, eta ondorioz, segurtasun-gabezia juridikoa, sortzen da aurreproiektuan ez dagoelako jasota kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legeko testu bateginaren (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak

onartua) 34. artikulua jasotzen duenaren pareko aurreikuspen bat; izan ere, horren arabera egitate eta oinarri juridiko berdinegatik, arau-hauslea zehatu daiteke lege horren arabera eta aplikatu daitezkeen beste lege baten edo batzuen arabera, eta balizko zehapenetatik astuntasun handienekoa ezarriko zaio. Ondorioz, zehapen-arabideko alderdi garrantzitsu hau antzeko aurreikuspen batekin argitzea komeniko litzateke.

Bestalde, nabarmentzekoa da aurreproiektuak ez duela arau-haustetzat jotzen bertako I.B eranskinean jasotako jardura edo instalazioen (ingurumen-baimen bakarraren mende daudenak) esparruan, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bateginaren arabera arau-hauste astunak direnak –eta oso astunak– 1. eranskineko jardura industrialetako (ingurumen-baimen integratuaren mendekoak) bat garatzen duten instalazioei dagokienez.

Horrela, atipikoak izango lirateke, nahiz eta jardura eta instalazioen sustatzaileen betebeharrak gisa jaso aurreproiektuaren 24., 28. eta 29. artikuluetan jokoera hauek: ez jakinaraztea autonomia-erkidegoko organo eskudunari jardueretan eta instalazioetan egindako aldaketak, betiere funtsezkoak ez badira, aurreproiektuaren I.B eranskinean jasotako jardueri eta instalazioei dagokienez; berehala ez jakinaraztea autonomia-erkidegoko organo eskudunari ingurumen-baimen bakarrek baldintzetako edozein ez dela bete, baita ingurumenari era nabarmenean eragiten dioten gorabeherak edo istripuak ez jakinaraztea ere; aurreproiektuaren I.B eranskinean jasotako instalazio bat behin betiko ixtean (edo jardura behin betiko uztean) ingurumen-baimen bakarlean lurzorua eta lurpeko uren kutsaduraren inguruan ezarritako baldintzak ez betetzea; eta jardura edo instalazioa nabarmen aldatzea nahitaezko ingurumen-baimen bakarrik gabe; halere, jokoera hori aurreproiektuaren 102.2 artikulua a) letran aurreikusitako motan sartuta dagoela uler daiteke. Jokoera horien gaineko Estatuko arauan, guztiak ingurumen-baimen integratuaren mendeko instalazioei buruzkoak –salbu eta baimeneko baldintzetako edozein ez dela bete berehala ez jakinaraztea, hori jardueretara heda daiteke–, arau-hauste astunak dira (lehenengo hirurak) eta oso astunak (azkenekoa).

Kontrapartida gisa arau-hauste oso astun gisa kalifikatzen dira Estatuko arauan astunak direnak, esaterako, ingurumen-baimen integratuaren mendeko jardura edo instalazioen titulartasuna eskualdatzea (estatuko arauan IBIren titulartasuna aipatzea tipikoa da) baimen hori emateko edo ukatzeko organo eskudunari jakinarazi gabe,

ikuskapen- edo kontrol-jarduera atzeratu edo oztopatzea, aurreproiektuan 102. artikulua 2. zenbakiko d) eta e) letretan islatu direnak. Halere, ez dugu uste horrek bat etortzeko arazoak planteatu ditzakeenik proportzionaltasun-printzipioaren ikuspegitik; izan ere, zehapen-eskemaren batasuna hautsi dezakeen «zehapen-jauzi kualitatibo» bat izan beharrean, gai kuantitatibo bat da eta nolahi ere uste dugu ez dituela sartzen desadostasun zentzugabeak edo desproporzionatuak Estatuko araudian aurreikusitako zehapenei dagokienez lortu nahi den helburuan.

lido horretan gogoratu egin behar da uztailaren 16ko 87/1985 KAE, hau adierazten baitu: *«Autonomia-erkidegoek sortutako administrazio-zuzenbide zehatzaileak, zalantzarik gabe, funtsezko eskubideen esparruan eragiten du; izan ere, legez kanpoko administratiboek muga negatiboa dakarte beti zuzenbidea gauzatzeko esparru librean. Eragin horrek ez du esan nahi (1981eko azaroaren 16ko epaia, 2. oinarri juridikoa) alderdi horretako arauketa osoa berariaz Estatuaren eskumenekoa denik. Zalantzarik gabe, autonomia-erkidegoko zehapen-arauak Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikuluan xedatutakoa bete beharko du; beraz, ezin izango du motarik txertatu, ezta lurralde osorako balio duen araudian lehendik bildutakoekin bat ez datozen zehapenak aurreikusi ere, arrazoitutako oinarririk izan gabe. Eta egia da, halaber, zehapen-prozedurak «administrazio erkidearen» mende egon behar duela, eta prozedura hori konfiguratzeko estatuaren eskumena dela eskusiboki (EK 149.1.18. art.). Baina muga eta baldintza horiek betez, arau autonomikoen Estatuaren zehapen-antolamenduaren oinarrizko printzipioak garatu ahal izango dituzte eta motak eta zehapenak modulatu ere egin ditzakete —lehen aipatutako esparruan betiere—, aukera hori zehapenaren edo egokitasunaren eskakizunei atxikita dagoelako eta lurralde-eremuetan alda daitezke. Oraingo gaiari helduz, eta aurkaratutakoa zehapenen aldaketa denez, esan daiteke erkidegoko arauak ez duela urratuko 149.1.1 artikuluan ezarritakoa mugatzen bada, nahiz eta beste era batean, zehatzera ordenamendu orokorrean ere legez kontraktat jo den jarrera bat eta zehapen hori estatuaren zehapen-zuzenbideak ere eragiten dionaz bestelakoa ez den ondasun baten (EKren 38. artikuluan onartutakoa, kasu honetan) gainean proiektatzen bada, Konstituzioak aitortutako beste eskubide batzuei eragin gabe. (...)*»

103. artikuluan, arau-hausteen preskripzioei buruzkoan, 3. zenbakian argitzen da arau-haustea etengabeak badira preskripzio-epea hasiko dela kontatzen jarduera amaitzen denetik edo arau-haustea iraungitzen duen azken egintzatik hasita; aldiz, arau-hauste iraunkorren kasuan epe hori hasiko da kontatzen jarrera arau-hauslea

amaitzen denetik aurrera. Puntu honetan aurreproiektua urriaren 1eko 40/2015 Legearen 30.2 artikuluan ezarritakotik aldentzen bada ere, artikulua horrek adierazten baitu bi kasuetan epea hasiko dela kontaktzen jarrera arau-hauslea amaitzen denetik, bereizi gabe arau-hauste mota bat eta bestea kasuak desberdinak direnean –arau-hauste etengabea da Lege horretako 29.6 artikuluan definitutakoa; aldiz, arau-hauste iraunkorrak, arau-haustea egindakoan, ondore kaltegarriak subjektuaren borondatea dela eta mantentzen ditu–, badirudi zuzenagoa dela *dies a quo*-ren zehaztapena Zigor Kodeak ezartzen duen preskripzio-epea zenbatzeko; izan ere, bertako 132.1 artikulua azpimarratzen du delitu jarraituan preskripzio-epea azken arau-haustea egin den egunetik kontaktzen dela; aldiz, iraunkorrean legearen kontrako egoera desagertzen denetik aurrera.

Aurreproiektuaren **104. artikuluan**, kontuan izanda arau-hauste bat egiteagatik lortutako etekina irizpide bat dela zehapenaren mailaketarako (aurreproiektuaren 105. art.), efektiboagoa izan daiteke arau-haustea egiteagatik lortutako etekina baino txikiagoa den isunaren zenbatekoa jasotzen duen aurreikuspen bat, kasu horretan zehapena igotze aldera, gehienez, adibidez, arau-hausleak jaso duen zenbatekoaren bikoitza edo hirukoitzera arte, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 11.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategineko (KPKILTB) 32.2 artikulua aurreikusten duen bezala.

Bestalde, ez dugu ulertzen uztea edo ixtea bereiztea, bi adierazpenek bereizi gabe aipatzen badituzte jarduerak eta instalazioak. Halaber, ez da ulertzen jarduera behin betiko uzteari dagokion arau-hauste oso astunetarako zehapena bi urtetik beherakoa ez den eta bost urtetik gorakoa ez den aldi baterako uztearekin parekatzea. Baimena baliogabetu edo eteten duten zehapenei dagokienez, jardueran aritzeko desgaitasuna, lankidetzarako erakunde izateari uztea aldi batean, baita jarduerak edo instalazioak aldi batean ixtea eta uztea ere, horien iraupenaren arabera, arau-hauste astunak edo oso astunak ezarriko dira, uste dugu zigor-zerrenda batean edo bestean kokatzeko modurik egokiena dela aldi baterako ixteko, baliogabetzeko edo eteteko eta indargabetzeko erabilitakoa; hala, aldi baterako ixteko kasuan, arau-hauste oso astunerako, «bi urtetik beherakoa ez den aldi baterako, ezta bost urtetik gorakoa ere» eta astunetarako «bi urteko gehieneko aldi baterako».

Azkenik, artikulua honetako 2. zenbakiak ezartzen du isunak bateragarriak izango direla ohartarazpen, aldi bateko uzte eta aldi bateko ixte, erabateko ixte eta ixte partzialaren

zehapenekin, eta hori bestelakoa da Estatuko oinarrizko legeriarekin alderatuta, honek aurreikusten baitu arau-hauste oso astunek zehazpen-katalogoan aurreikusitako zehapen guztiak edo batzuk ezartzea ekar dezaketela, baita behin betiko ixtea ere. Horrek xedatzen du era nabarian jaitea estatuko oinarrizko legeriak ezartzen duen zehapenen astuntasuna. Horrela, KPKILTB 31.2.c) artikulua, adibidez, KPKILTB 35. artikuluan aurreikusitako behin-behineko neurrietatik eratorritako betebeharrak betetzen ez diren kasurako, hori pertsonen osasunerako edo ingurumenerako arrisku larri bat denean, aurreikusten du isunaz gain instalazioen behin betiko itxiera ezar daitekeela, baita jardueran aritzeko desgaiak ezar daitekeela ere, urte batetik beherakoa ez den eta bi urtetik gorakoa ez den aldi baterako. Aitzitik, aurreproiektuaren 104.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, neurri horiek betetzen ez dituenari (102.2.h), isunaz gain, ezin izango zaio ezarri bost urtetik gorakoa ez den aldi baterako etetea edo itxiera.

Xedapen horrek oinarrizko zehapen-eskema alda dezakeenez, gogoratu egin behar da Konstituzio Auzitegiak adierazitakoa 2002ko irailaren 18an eman zuen 166/2002 epaian: «*Urriaren 26ko 156/1995 KAEn adierazi eta azaroaren 28ko 196/1996 (3. OJ) eta urtarrilaren 30eko 16/1997 (2. OJ) KAEetan berretsi genuen bezala, kontuan izanda KE 149.1.23 artikulua aukera ematen diola Estatuari ingurumenaren alorrean ezartzeko, oinarrizko eran, lurralde nazional osoan komuna izan behar duen gutxieneko babes bat, erkidegoko legegileak kendu egiten baditu Estatuko oinarrizko arauak horrelakotzat deklaraturako arau-hauste oso astunak edo pixka bat murrizten badu arau horrek arau-hauste bakoitzerako ezartzen duen isunaren zenbatekoa, oinarrizko araudi hori urratuko luke (kasu honetan, PZLB), eta KE 149.1.23 artikulua horretako eskumen-banaketaren konstituzio-ordena urratuko litzateke*».

Eta Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak 1996ko azaroaren 28an emandako 196/1996 epaiak, Eusko Legebiltzarraren 1989ko apirilaren 13ko 1/1989 Legearen aurka Estatuko Abokatuak planteaturako inkonstituzionaltasun-errekurtoa zela eta, hau adierazi zuen: «*EKren 149.1.23 artikulua Estatuari ematen dizkion eskumenak ulertzeko balizko zailtasuna 170/1989 KAEk argitu zuen, 2. oinarri juridikoan hau adierazi baitzuen: "Hemen [EKren 149.1.23 artikulua esparruan], oinarrizko legeriak gutxieneko babes-neurrien ezaugarri teknikoak du eta horiek "arau gehigarriak" edo babes handiagoa ezartzeko aukera ematen dute. Hau da, Estatuaren oinarrizko legeriak kasu honetan ez du betetzen batasun-funtzio erlatiborik, baizik eta kasu guztietan errespetatu behar den gutxieneko bidezko antolamendu-funtzioa du, baina*

aukera ematen du autonomia-erkidego bakoitzak, alorrean eskumena izanez gero, babes-maila handiagoak ezartzeko eta horregatik bakarrik ez lirateke kontraesanean egongo Estatuaren oinarritzko araudiarekin. Konstituzio-testuaren zentzua da Estatuko oinarriak gutxienekoak direla eta, beraz, ezartzen dituzten babes-mailak handitu edo hobetu ditzakete erkidegoko araudiek, eta aukera hori aipatzen du estatutu-manuak”.

Estatuko Legeak emandako babesa handitu eta hobetu dezake lege autonomikoak; aldiz, Konstituzioaren arabera, desegokia da mugatzea edo murriztea».

105. artikulua ezarri beharreko zehapenen mailaketa arautzen du. Arau-haustea sortu duen egitatearen astuntasunera egokitu behar denez zehapena, arau-haustea mailakatzeko hainbat irizpide ezartzen dira. Horien artean, hau ezartzen da: «*Errepikatzea arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik, ebazpen irmo batek horrelakotzat deklaratu badu*». Puntu honetan adierazi behar dugu errepikatzea, baita berrerortzea ere, izaera berdineko arau-hauste bat baino gehiago urte bateko epean egiteagatik ebazpen irmo batek horrelakotzat deklaratu badu, azaroaren 26ko 30/1992 Lege indargabetuaren 131. artikuluan (aurrerantzean, AJAPEL) aurreikusitako bi irizpide izan zirela, eta horiek aplikazio praktikoan ez zituzten zalantza gutxi sortu, figura baten eta bestearen arteko analogiak agerikoak zirelako.

Horrela, berrerortzeak zehapenaren egokitzapena azpimarratzen du, eta kasu batzuetan, gainera, arau-haustearen astuntasuna areagotzen du, izaera berdineko arau-haustek errepikatzen direla oinarri hartuta; hau da, manu berdina edo antzeko beste bat urratzea, ebazpen irmoan jasota badaude. Bestalde, errepikatzea da izaera desberdineko arau-haustek errepikatzea, eta ezarri beharreko zehapenaren mailaketa neurtzeko irizpideetako bat da, dena delako arau-hauste zehatzerako adierazitako muga barnean.

Halaber, AJAPELen 131. artikuluan aipatzen den irmotasuna administratiboa edo juridikzionala den ere eztabaidagai izan da. Eztabaida hainbestearainokoa izan da, Auzitegi Goreneko Hirugarren Salak 2003-03-11n (541/2001 errekurtsua; txostengilea: Juan José González Rivas jauna; Id Cendoj: 28079130072003100086) hau adierazi zuela: «*2000ko urriaren 24ko epaiaren arabera, kontuan hartuta astungarri horren aplikazioari buruz egitateak gertatu ziren unean indarrean zegoen Zigor Kodeko 10.15.II artikuluan eta gaur egun indarrean dagoenaren 22.8.II artikuluan jasotakoa, berrerortzea aplikatzeko baldintzetako bat izan behar da aurreko zigorra izaera*

betearazlekoa izatea; hau da, epai irmoa zigor-arlokoa izan behar da, ez administrazio-arlokoa. Horrela, autotutoretza administratiboaren printzipioaren ondorela dela eta, nahikoa da zehapen-egintzak irmotasuna izatea administrazio-bidean betearazlea izateko, zehapen-egintzaren ondoreak eteteko kautela-neurririk ezarri ez duen administrazioarekiko auzi-errekurtsua epaitzeke egonda ere (30/1992 Legearen 138.3 artikulua).

30/92 Legean «irmo» hitza erabiltzen da, batik bat, ebazpen administratibo bat denean, horren aurka administrazio-errekurtsu arruntak ezin direnean jarri, eta, ondorioz, irmotasuna administrazio-bidean jasotzen da soilik, eta ez jurisdikzio-bidean (102.4., 108., 115.1.III eta 118.1. artikulua).

Horretaz jabetuta, urriaren 1eko 40/2015 Legeak berrerortzea AJAPELeko oso antzeko baldintzetan mantentzen du, nahiz eta argitzen duen izaera berdineko arau-hauste bat baino gehiago urte berean egin izana ebazpen irmo bidez deklaratu behar dela administrazio-bidean. Gainera, kendu egiten du errepikatzeari buruzko aipamena, zehapena mailakatzeko irizpide den aldetik, eta irizpide berri gisa sartzen du jokaera arau-hausleak jarraitutasuna edo iraunkortasuna izatea (29.3.b art.). Horrek ez luke eskatuko jokaera hori administrazio-bideko ebazpen irmo batek aurrez zehatzea; horrela, administrazioak aukera handiagoa du jokaera arau-hausle iraunkorrak baloratzeko. Era berean, administrazioak zehapena modulatu dezake «damuaren» edo hartutako zuzenketa-neurrien arabera; beraz, irizpide hori hartuz gero kontuan errepikatzearen irizpidea kontuan hartu ordez, aurreproiektuaren 105. artikuluko g) letran aurreikusitakoa, erredundantea izango litzateke.

Horregatik guztiagatik, uste dugu hobe dela erabiltzea «jokaera arau-hauslearen jarraitutasuna edo iraunkortasuna» adierazpena «arau-hauste bat baino gehiago errepikatzea» erabili beharrean, eta, era berean, egokiagoa da «ebazpen irmoa administrazio-bidean» adieraztea «ebazpen irmo» bakarrik jarri beharrean, gaizki-ulertuak saiheste aldera.

Azkenik, konturatzekoa da zehapenak mailakatzeko irizpideen artean d) letran hau dagoela: «*Ingurumenari edo pertsonen osasunari sortutako kalteak edo horien segurtasunerako sortutako arriskua*». Zirkunstantzia hori, halaber, motaren elementuetako bat da, aurreproiektuaren 102. artikulua 2., 3. eta 4. zenbakietan ezarritakoaren ondorioz: «*Arau-hauste oso astunak dira ingurumenari edo pertsonari*

arrisku edo kalte larriak sortzen dizkietenak, ordenamendu juridikoa urratuta egiten direnean (...)» (102.2. artikulua); «*Arau-hauste astunak dira aurreko apartatuan jasotakoak baldin eta ingurumenari edo pertsoneri ez badiete sortzen arrisku edo kalte larririk*» (102.3. artikulua); edo «*Arau-hauste arinak dira aurreko apartatueta oso astun edo astun gisa adierazitakoak, baldin eta horiek ingurumenari edo pertsoneri gutxi eragiten dietelako ez badago kalifikazio hori emateko usterik*» (102.4. artikulua). Gai honen harira, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak hau adierazi du DCJA 191/2008 irizpenean:

«Horri dagokionez, adierazi behar dugu arau-haustearen astuntasuna kalifikatzeko kontuan izaten diren irizpideak ezin direla berriz kontuan izan zehapenaren hedatzea mailakatu eta zehazteko, nahiz eta legeak berariaz jasotzen dituen horretarako kontuan izan beharreko irizpideen artean, eta hori da aplikatzaileari berariaz zuzendu behar zaion mezua, eta herritarrek jakin behar dutena. Kontrakoa ondoreen bikoizketa onartezina izango litzateke, eta hori, lotuta egongo litzateke, gutxienez, proportzionaltasun-printzipioaren galerarekin. Egoera hori berariaz debekatuta dago EAEko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean (14.6. artikulua), baita zigor Zuzenbidean eta administrazio-zehapenaren alorreko legeria sektorialen batean ere. Halaber, jurisprudentzia irmoa da horri buruz: zirkunstantzia faktiko edo arauemaile bera ezin da integratu, aldi berean, arau-hauste elementu batean eta areagotze-zirkunstantzia batean. Horri dagokionez argigarria da Auzitegi Gorenaren 1998ko apirilaren 17ko epaia (1998/4399 RJ):

Ondorioz, 69. artikuluko 3. zenbakiko irizpideetan oinarritu bada arau-haustearen sailkapena; arina, astuna edo oso astuna, eta irizpide horiek dagoeneko haztatu badira jokaera arau-hauslea tipifikatu eta kalifikatzeko, ezin dira erabili zehapenaren hedadura mailatzeko».

106.2. artikuluan salbuespen bat ezartzen zaio arau-haustetik edo arau-haustea betearazteko tresnetatik eratorritako konfiskazioa adosteko ezintasunari, hirugarrenek fede onez konfiskatu badituzte, betiere berehalako ingurumen-kalte baten arriskua edo pertsonen osasunerako arriskua dagoelako. Orduan, idatzita dagoen eran, ez dago argi legezkoa denik.

Aurreproiektuaren **108. artikulua** arautzen ditu zehatzeko ahalaz baliatzeko organo eskudunak; hala, hauen guztien eskumenak mugatzen saiatzen da: gobernu-kontseilua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko sailburua,

ingurumenaren alorreko sailburuordea, lurralde historikoak eta udalerriak, baldin eta arau-hausteen kasuak foru- edo udal-eskumeneko gaietako jardueri badagozkie. Ez dugu ezer esatekorik zehatzeko ahala beste ingurumen-lege autonomiko batzuetan aurreikusitako eran organo eskudunen artean banatzen duen manu honen aurka.

109. artikulua zehapen-prozeduraren esparruan behin-behineko neurriak hartzea arautzen du (97. artikuluan ingurumen-legezkoatasuna berrezartzeko prozeduraren barnean hartu beharreko behin-behineko neurriak jasotzen dira). Aurrez, adierazi behar dugu AJAPELen kontrara, APELe ez duela manurik zehapen-prozeduretan har daitezkeen behin-behineko neurriak era berezian arautzeko; izan ere, horiek ez dira jada prozedura bereziak. Ondorioz, urriaren 1eko 39/2015 Legeko (aurrerantzean, APEL) 56. artikuluko xedapenak, besterik gabe aplika daitezke zehapen-prozedura administratiboetako behin-behineko neurriak hartzean; beraz, neurri horiek prozedura horietan ebazteko aukera ez dago soilik dagokien araudi arauemaileetan horrela aurreikusitako kasuetan jaso, ezta dagozkien arau espezifikoetan zehazki aurreikusitako neurrietara mugatuta ere (zehatzeko ahalaz baliatzeko prozeduraren erregelamenduko 15.2 art.), baizik eta, oro har, egokitu daitezkeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen den edozein neurri hartu ahal izango da. Hori esanda, eta nolana ere kasu honetan zehapen-prozeduraren barnean hori aurreikusi denez, APELeko 63. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio. Horren arabera, zehapen-prozedurak beti ofizioz hasi behar ditu organo eskudunak. Bestalde, artikuluko honen 1. zenbakian, zenbakiaren hasierako «*prozedura hasita*», ez dator bat aurrerago dagoen denborazko esamolde honekin: «*Edozein unetan*». Seguru asko Zehatzeko Ahalaz Baliatzeko Prozeduraren Erregelamendu indargabetuko (APEL) 15. artikuluko idazketatik eratorri da; izan ere, indargabetutako AJAPELeko 72. eta 136. artikuluetako edukia hartzen zuen barnean, eta baliozko bihurtzen zituen behin-behineko neurriak hartzeko adierazitako arauak. Horrela, testuinguru horretan, esamolde horrek zentzua izango luke. Beraz, 1. zenbaki hau APELen arauketara erabat egokitzeko eta horri buruzko edozein zalantza argitzeko, iradokitzen dugu horren idazketa horrela aldatzea: «*Zehapen-prozedura abiarazita, zehapena erabakitze organo eskudunak, ofizioz hartu ahal izango ditu, bere kabuz edo instruktoreak arrazoitutako eskaera baten ondorioz, ongi arrazoitutako erabakian oinarrituta, hartu litekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta ingurumenari eta pertsonen osasunari kalteak edo arriskuak saihesteko xedean egoki irizten dituen behin-behineko neurriak*».

Neurri horiek, artikuluko 1. zenbakian ikus daitezkeen bezala, KPKILTBren 35. artikuluan aurreikusitako berdin-berdinak dira, baina horietan ez da jaso jarduera behin-behinean etetea, eta horrek agerian uzten du 104. artikuluari egindako iruzkinetan adierazitako inkongruentzia.

2. zenbakiak zehapen-prozedura hasi aurretik behin-behineko neurriak hartzeko aukera jasotzen du, KPKILTBk 35.2 artikuluan egiten duen antzera, hau da, administrazio-prozedura erkideari buruzko oinarrizko legeriara jotzen du, orain 39/2015 Legearen 56. artikuluko 2. zenbakian eta hurrengoetan dagoena, eta, kasu honetan, neurri horiek ofizioz edo alderdi batek eskatuta hartuko direla ezartzen du. Puntu honetan, nabarmendu behar da halaber, AJAPELeko 72. artikulua indarraldian gertatzen zenaren kontrara, neurriak hartzea ez dagoela mugatuta jada lege-lerruneko arau sektorial batean berariaz aurreikusten diren kasuetara, eskakizun hori desagertu egin da-eta APELeko 56. artikuluko testutik.

Bestalde, APELeko 56.2 artikulua adierazten du prozedura hasi aurreko behin-behineko neurriak erabaki ahal izango dituela «*prozedura hasi edo instruitzeko organo eskudunak*»; aldiz, aurrez, AJAPELen 72.2 artikulua, besterik gabe xedatzen zuen «*organo eskudunak*» egin zezakeela, 109. artikuluko 2. zenbakian xedatzen den eran. Konturatu gara APELen aurreikuspen horren helburua dela salbuespen bat egitea organo eskudunari ahalmena esleitzeko arau orokorrean, «*atzeratu ezin diren larrialdi-kasuetan eta inplikaturako interesen behin-behineko babeserako kasuetan*», eta organo eskudunak aukera izatea prozedura hasi edo instruitzeari begira behar diren behin-behineko neurriak erabakitzeko, organo bakarra kontuan izanda. Halere, APELen 56.2 artikulua exegesi zuzen batek aukera ematen du ondorioztatzeko prozedura hasi aurreko neurriak erabaki ditzakeela bai prozedura hasteko organo eskudunak bai prozedura instruitzeko eskumena duen organoak. Hala bada, zehapen-prozedura bat da, eta bertan, batetik, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 29.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, zehapen-prozedura ebazteko organo eskudunak beraiek izango dira prozedura hasteko organo eskudunak, eta, bestetik, instrukzio-fasearen eta zehapen-fasearen arteko banaketa inperatiboaren ondorioz, zehapenok organo desberdinen esku geratuko dira; kasu honetan, aurretiazko behin-behineko neurriak hartzeko ahala organo bati baino gehiagori eslezi dakioke. Gure ustean, ez da hori ekimenaren sustatzailearen nahia, eta iradokitzen dugu argitzea 2. zenbakian bertan «*organo eskuduna*» adierazpenarekin prozedura ebazteko eskumena duena edo instruitzeko eskumena duena aipatzen den; izan ere, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren

11ko 77/2017 Dekretuaren 8.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan dagokion funtzionarioak izango luke eskumena. Beste aukera bat da, administrazio publikoaren administrazio-prozedura erkideari buruzko oinarrizko legeriara eta aplikatu daitezkeen gainerako araudira jo beharrean, aipatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritako mugak eta baldintzak; izan ere, lege horretako 32.1 artikulua aurreikusten du salbuespenez funtzionario ikuskatzaileek kautela-neurriak har ditzaketela auzipetutako egitateen edo antzeko esanahia duten beste batzuek jarraitzea edo errepikatzea saihesteko edo egitate horiek sortu dituzten kalteak mantentzea saihesteko edo arintzeko, ez, ordea, egokitu daitezkeen ebazpenaren efikazia ziurtatzeko –helburu hori berariaz baztertu da 2/1998 Legeko 32.1 artikuluan—. Horrela, lerrokada hasierako «helburu berdinarekin» adierazpena kendu beharko litzateke.

Artikulu honen 3. zenbakian aurreikusten da interesdunei aurretiaz entzunaldia emateko izapidea nahitaezkoa dela. APELen 56. artikulua idazketan ez da aipatu behin-behineko neurriak hartzeko baldintza gisa aurretiazko entzunaldia egin behar dela, non eta ez bada ulertzen manu honek PZLra joz eska daitezkeela. Komeni da gogoratzea, AJAPELen indarraldian, jurisprudentziak argi eta garbi onartu duela, 72. artikuluan baldintza hau berariaz aipatzen ez bada, behin-behineko neurriak ebatzi daitezkeela interesdunei aurretiazko entzunaldia eman gabe. Halere, batzuetan, jurisprudentziak entzunaldiaren izapide hau eskatu du zehapen-prozeduretan, nahiz eta ez aurreikusita egon bere araudi arauemaietan, eta zuzenean erlazionatu da neurria arrazoitzeke betebeharrarekin; hala, soilik larrialdiko arrazoi atzeraezinengatik ez zaio entzungo aldeari, eta beti justifikazio esplizituaren bidez.

Nolanahi ere, kontua da ez dagoela arrazoirik entzunaldi-izapidea sistematikoki alboratzeko administrazio-prozeduretan behin-behineko neurriak hartzean, eta, ildo horretan, 3. zenbakian xedatutako neurria txalotzeaz gain, iradokitzen dugu neurriak berehala hartzea gomendatzen duten larrialdi-arrazoiak biltzen diren kasuetan ere izapide hori *a posteriori* eskaintzea eta, kasu horietan, ezarritako neurria interesdunei entzunaldia eman ondoren berrikusi, berretsi edo ondorerik gabe uztea edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 31.2 artikuluan ezarritakora jotzea.

110. artikulua kalteak birjartzeko edo ordaintzeko betebeharra ezartzen du. Manu

honek 3/1998 Legeak hasitako ildoak jarraitzen du. Lege hori pixka bat zalantzarria zen, pentsa zitekeelako leheneratze-betebeharra izateko beharrezkoa zela pertsona arau-hauslea izatea. Alabaina, egiazki, betebehar hori arautzen zuen artikulua (102. art.) ingurumen-diziplinari buruzko tituluan zegoen. Halere, arau-haustea preskribatzeak ez zuen ondarea leheneratzeko betebeharra alde batera uzten. Anomalia hori erabat zuzendu da. Nahiz eta aldatutako egoera jatorrizko egoerara leheneratzeko eta administrazioari sortutako kalte-galeren ordaina ordaintzeko betebeharra dutenak (1. zenbakian aurreikusia) nahitaez arau-hausleak izango diren, aurreproiektuaren 97. artikuluan prozedura bat ezartzen da aldatutako egoera leheneratzeko, ingurumenen kalte adierazgarriak sortzen ez direnean, eta horrek ez du inolako zehapenik ezartzea ekartzen.

2. zenbakian iruzkin hau egin behar da. Bertan adierazten da ingurumen-kalteen kasuan, arau-hausleak horiek leheneratu behar dituela, eta zehapen-ebazpenean ezarri behar dira leheneratze-eskakizuna eta leheneratzeko modua. Ingurumenaren alorreko kalte adierazgarriak gertatuz gero, ingurumenaren alorreko erantzukizunari buruzko araudian finkatutako moduan konponduko dira. Bada, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen atarikoan, hau adierazten da: *«Ingurumen-erantzukizuna objektiboa da; hots, jarduteko betebeharrak beti inposatuko zaizkio eragileari, erruz, doloz edo zabarkeriaz jokatu edo ez». Horrela, baliabide naturalak babesteko lege-esparrua osatzen da, arau-hauste administratibo edo penaletan jatorria duten ingurumen-kalteak hainbat arau sektorialek tipifikatuta zituzten-eta jada, eta horiek era arruntean ezartzen zuten horrelako jarduketara arau-hausleetatik eratorritako kalteak leheneratu behar zirela»*. Aurrekoa esan ondoren, ez dugu ulertzen leheneratzeko bi kasu desberdin aurreikustea –batean, aukeran, 26/2007 Legean aurreikusitako leheneratze-metodologia aplikatzea aukerakoa izango da, eta bestean ezinbestekoa–, kontuan izanda lege horrek soilik jasotzen duela baliabide naturaletan ondore adierazgarriak sortzen dituzten ingurumen-kalteak leheneratzea –eta hori bateragarria da aldatutako egoera leheneratzearekin, baita administrazioari sortutako kalte eta galerak ordaintzearekin ere– eta gainerako kalteak leheneratzea lege sektorialetan aurreikusten dela. Beraz, 2. zenbakiko bi lehenengo esaldietan aurreikusitako ingurumen-kalte ez-adierazgarrien kasua lehendik jasota dago 1. zenbakian, ezin baita bestelako leheneratzerik eskatu horrelako kalteengatik, aldatutako egoera berrezartzea eta administrazioari sortutako kalte eta galerak ordaintzea ez bada.

111. artikuluan arautzen da hertsapen-isunak ezartzeko aukera, baita arau-hauslearen kontura betearazte subsidiarioa ebaztea ere, honek ez baditu kalteak leheneratzen eta konpontzen edo sortutako kalte-galeren ordaina ez badu ordaintzen. Neurri horiek aukerako eran ezartzen dira inolako baldintza edo zirkunstantziaren mende egon gabe, aurreproiektuaren 98. artikulua zuzenketa-neurrien kasurako egiten duen bezala; hertsapen-isunak ezartzea kalteak sortzeko berehalako mehatxuetara mugatzen du, edota neurriak hartzea atzeratzeak ingurumena edo pertsonen osasuna arriskuan jartzen ez den kasuetara. Xedapen honekin jarraituta, aldatutako egoera leheneratzea arau-hausleari zigor-hertsadura ezarriz edo zuzenean betearazpen subsidiarioaren bidez, agian, komeniko litzateke hemen ere antzeko aurreikuspen bat ezartzea. Hala, aurreikuspen horrek bigarren neurri horri lehentasuna emango dio leheneratzeko betebeharrak hori ez betetzeagatik sortutako ingurumenarekiko edo pertsonen osasunarekiko mehatxua berehalakoa denean; horrek, gainera, segurtasun juridiko handiagoa emango luke.

Isunen zenbatekoari dagokionez, artikuluko honen 1. zenbakiak xedatzen du horiek ez direla izango egindako arau-haustea ezarritako isuna baino % 10 handiagoak; aldiz, aurreproiektuaren 98.2 artikulua betearazten ari diren neurri guztien kostu zenbatetsiari aplikatzen dio ehuneko hori. Bada, hertsapen-isun horiek zentzu itxian ez direnez zehapenak –arrazoi horrengatik dira bateragarriak egitate berdinegatik ezarritako zehapenekin (APEL 103.2 art.)–, uste dugu egokiagoa dela horiek, aurreproiektuaren 98.2 artikuluko aipamenak egiten duen bezala, betearazi beharreko neurrien kostu zenbatetsiaren mende jartzea; horrela, bidea emango da ezar daitezkeen hertsapen-isunek proportzio berdina izateko hala zuzenketa-neurriak ezartzeko esparruan nola isunen esparruan.

112. artikuluan zehapen osagarri gisa aurreikusten da kontratuak egiteko debekua ezartzea arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik isuna jarri zaien enpresei, baita dagozkien zuzenketa-neurriak betearazi gabe eta zehapena bete gabe EAEko sektore publikotik diru-laguntzak lortzeagatik isuna jarri zaienei ere. Gai honen harira, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak hau adierazi du:

268. Desgaikuntza hori zehapen autonomo, desberdin eta ezberdina da balizko beste zehapen batekiko, hauxe izango litzateke: «Hurrengo bost urteetan Lege honetan jasotako jardueretan aritzeko desgaikuntza, kasua bada, dagokion administrazio-baimena eta, kasua bada, homologazioa errebokatuta» [89.4 a) artikulua].

269. Teknikoki «kontratua egiteko debeku» baten aurrean gaude, zentzu hori duen administrazio-zehapen bati jarraikiz ezarria. Hau da, ez gaude *ex lege* eta era orokorrean kontratatzea eragozten duen zirkunstantzia batean aurrean –SPKL 49.1 c) artikulua aurreikusitakoa bezalakoa–, baizik eta kontratua egiteko debeku espezifiko baten aurrean, Lege sektorial batek ezarria administrazio-zehapen modura –SPKL 49.2 c) artikulua jasotzen duena izan daiteke–.

270. Beste ezer baino lehen aipatu behar da manu hori –SPKL 49.2 c) artikulua– ez dela oinarritzkoa, beraz, ez dute administrazio publiko guztiek aplikatu behar orokorrean. Batzordeak uste du horrek esan nahi duela inplizituki onartzen dela legegile sektorialaren eskumena, autonomikoa izan daitekeena, horrelako zehapen bat sartzeko zehapenen balizko zerrendan, betiere kontratua egiteko debekua bere eskumeneko alorrera mugatzen bada.

271. Halere, nahiz eta onartu behar besteko eskumen-oinarria izan dezakeela, horrek ez du esan nahi hori sartzea segurua denik. Arau-hauslearen ondasun juridikoan asko eragiten duen zehapen-neurri bat da, ezartzen den sektorea gainditzen duena –zeren ez da mugatzen gizarte-zerbitzuen eremura–, berrikuntza gisa ezarri dena –GSLn ez baitago–. Orain arte, beraz, ez zuen zerikusirik sektorearen berezitasunekin eta helburuekin, eta halaber ez dauka parekorik ondasun juridiko berdina eta arau-haustearen antzeko arriskua parteka dezaketen beste lege batzuetan –Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea–.

272. Era berean, diseinatzeko formak eragozpenak sortzen ditu –proportzionaltasun-printzipioaren errespetuan–, zeren heda daiteke gizarte-zerbitzuen eremuan jardueretan aritzeko desgaiakuntza-zehapena baino aldi luzeago batez –bertan eragingo zukeen jokaera arau-hausleak, eta, zehazki, zehapenak bere helburu prebentibo eta leheneratzailea beteko du–.

Bada, eragozpen horiek xedapen honetara ekartzen ditugu.

114. artikuluan ohartarazi behar dugu eskubide-talka sor daitekeela zehapen astun eta oso astunen publikotasunaren (arduradunen identitatea barne), artikulua honetako laugarren zenbakian aurreikusitako arau-hausleen erregistroaren eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean,

DBLO) ezartzen duenaren artean.

Egia da Estatuan horrelako zehapen edo neurri osagarria ezarri duten ingurumen-legeen hainbat adibide daudela, eta horien artean hauek nabarmendu behar dira: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea eta, azkenaldian, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, baina horietako lehenengotik hasita Estatuko Kontseiluak adierazi zuen neurri horren artikuluen aurka zegoela eta 1997-07-24an eman zuen 3547/1997 irizpenean hau adierazi zuen: *«"lus puniendi" kontzeptua bi dimentsiotan oinarritzen da: prebentiboa, hau da balizko arau-hausleak pertsuaditzea motibazio inplizituaren bidez zehapen-araubide bat ezarrita; baita errepresiboa ere, hau da, jokaera arau-hausleak egin ondoren horiek zuzentzea, ordena juridikoaren zapalketa zehatuz eta etorkizunekoak prebenituz. Egiaztatutako arau-haustea justifikatu egiten du dagokion zehapena ezartzea, lege ezarritako prozedura aurrez izapidetuta; halere, ez du justifikatzen inola ere komunikabide sozialetan zabaltzea egindako arau-hausteen egitateak eta ezarritako zehapenak, ezta pertsona fisiko edo juridiko erantzuleen izen eta abizenak edo izen soziala ere, nahiz eta eredu izateko helburua izan eta zehapen-ebazpenak indarrean egon».*

Ekimen horri helduta, lehenik adierazi behar da zioen azalpenak ez diola esaldi bat ere eskaintzen neurri horiek zein helburutarako diren funtsatzeari –horiek, besteak beste, «arau-haustea egiteari pizgarria kentzen dioten neurri osagarri gisa» aipatzen ditu–, nahiz eta hortik ondoriozta daitekeen prebentzio- edo disuasio-helburuei egiten diela men; halere, ez da inola ere baztergarria duen errepresio- edo ordainsari-osagaia, publikotasun hori dela eta ukituen ohore-eskubidean sortzen den galerarengatik. Azkenik, neurri horien zigor-izaeratik, era berean, ingurumen-diziplinari buruzko tituluan kokatu dela alde batera utzita, arau-hausleen identitatea publiko egiteak, baita horiek jendea sar daitekeen erregistro batean erregistratzeak ere, murriztu egiten du oinarritzko eskubide batez baliatzea, hau da, pertsona fisikoen datuen babesaz baliatzea.

Horrela, DBLOren 7.5 artikulua hau ezartzen du: *«Arau-hauste penal eta administratiboen inguruko izaera pertsonaleko datuak administrazio publiko eskudunen fitxategietan bakarrik jaso daitezke, kasuan kasuko arauetan ezarritako kasuetan».*

balizko arau-hauste administratiboei buruzko informazioa edozein pertsonarentzat eskuratzeko moduan argitaratzeko aukera dagoenez, horrelako informazioari emandako babes berezia urra daiteke.

Bestetik, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako IPDBLren garapen Erregelamenduaren 81.2.a) artikulua administrazio edo zigor arau-haustea egitearen gaineko fitxategiei, oinarrizko mailako segurtasun-neurriez gain, maila ertaineko neurriak esleitzen dizkie, eta horrek, zalantzarik gabe, ezartzen du fitxategi horiek babes berrindartu batera atxikita daudela.

Bestetik, *gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 15.1 artikuluko bigarren paragrafoan, datu pertsonalen babesean oinarritutako informazio-sarbidea arautzean, honako hau ezartzen du:*

«Informazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 3. apartatuan aipatutako datu bereziki babestuak edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko baimena edukitzea edo Lege-lerruneko arauen baten babesa izatea».

Alde horretatik, beste hainbat arauk, esaterako, abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorrak, Ogasun Publikoko zordunen zerrenda argitaratzea justifikatzean, gardentasunaren printzipioa nabarmendu dute. Hala ere, hori ere zalantzan jarri da; izan ere, ezin da ulertu zer neurritan mesede egin ahal dien botere publikoei zordunen identitatea ezagutzeak –hori argudiatzen baita normalean gardentasuna aipatzen denean—. Kasu horretan ere, eta printzipio hori bermatze aldera, ez litzateke behar bezala justifikatuko arau-hausleen identitatea ezagutzea, bereziki pertsona fisiko arau-hausleena (enpresa moduan antolatutako subjektuak ez dira datuak babesteko eskubidearen titularrak), eta galdetu ahalko litzateke zer ekarpen egiten duten artikulua horretan aurreikusitako neurriek gardentasun hori eraginkorra izan dadin. Are gehiago, datuak babestearen ikuspuntutik informazio zehatz batzuk argitaratzea ukatu izan da, esaterako, torturengatik salatutako eta zigortutako agenteen gaineko informazioa argitaratzea.

Jakina, datuak babestearen ikuspuntutik arau-hausleen identitatea ezagutzera ematea

zuzenbidean zuzena dela ondorioztatzeko, ez da nahikoa argudiatzea argitalpen hori lege batean ezarri behar denik. Alde horretatik, Datuak Babesteko Euskal Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko uztailaren 29ko CN14-021 Gipuzkoako iruzurgile handien zerrendaren argitalpenaren gainean eskatutako kontsultaren gaineko irizpidea eman zuenean, honako hau aipatzen zuen: *«Azken finean, zehapen atipikoa eta zehapen nagusiaren osagarria dela dirudi, ondasunen inguruan arau-hausteak (oso astunak, ulertzen dugunaren arabera) egin izanagatik, eta, azaltzen saiatuko garen moduan, horiek zalantza asko sortzen dituzte beren konstituzionaltasunaren inguruan. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak aitortu du botere publiko bati datu pertsonalak jasotzea, biltegiatzea, tratatzea, erabiltzea eta dagokionean, ematea ahalbidetzen duen lege-ahalduntzea justifikatzen dela, baldin eta babes handiagoa behar duten beste ondasun edo konstituzio-eskubide batzuk babesteko bada. Bestetik, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean berariaz ezartzen da gutun horretan aintzatesten diren eskubideak eta askatasunak gauzatzeko edozer mugaketa legez ezarri behar dela eta eskubide eta askatasun horien funtsezko edukia errespetatu behar dela.*

Horregatik, lege-arauak justifikatu egin beharko du erregistro horrekin zer konstituzio-eskubide edo -ondasun lortu nahi den, eta hori lortzeko erregistro horrek duen premia eta publikotasunak duen premia».

114. artikulua hiru zenbakiak ezartzen du publikotasun horrek jasoko dituela arau-hauste astun eta oso astunak egiten dituen pertsona arduradunaren identitatea (izena eta abizena pertsona fisikoen kasuan eta izen soziala edo sozietatearen izena pertsona juridikoen kasuan, eta agian bien IFZa), egindako arau-haustea, ezarritako zehapena, baita eskatutako birjartze edo kalte-ordainen betebeharren laburpena ere, halakorik bada.

Arau-hausleen erregistroari dagokionez, ohartarazi behar da laugarren zenbakian jasotako erregistroa jendeak eskuratzeko modukoa izango dela soilik aipatzen dela zioen azalpenean; izan ere, jarraian aurreikusten da arau-hausleen erregistro bat sortuko dela eta bertan ebazpen irmo bat jaso duten pertsona publiko eta pribatuak erregistratuko direla: *«Ildo horretan, aurreikusten da publikotasuna ematea arau-hauste horiek egiteagatik ezarritako zehapenei, baita arau-hauste horien arduradunen identitateari ere».*

Bada, datuen babeserako eskubidea ez da mugatzen pertsonen datu intimoetara, baizik eta era zabalagoan edozein datu pertsonal hartzen du. 2003ko irailaren 13an Auzitegi Goreneko 3. Salak adierazi zuen bezala: «*Datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidea*» *manu beraren 1. apartatuan aitortutakoarekin hertsiki lotzen den funtsezko eskubidea da, nahiz eta eduki propio eta berezia izan, –azaroaren 30eko 292/2000 KA Eren arabera– “botere publikoei informazio horren iturri bihurtzeko debekua inposatzen die behar besteko bermerik gabe; eta informazio hori behar ez den moduan eskuratzearen edo hedatzearen ondorioz sor daitezkeen arriskuak prebenitzeko betekizuna ere inposatzen die”. Izan ere, Konstituzio Epai horrek berak esaten duen moduan, kontuan izan beharko da “datuak babesteko funtsezko eskubidearen babes-xedea ez direla soilik pertsonaren datu intimoak; aitzitik, edozer datu pertsonal mota izan daiteke, intimoa izan edo ez, hirugarrenek horiek ezagutzeko edo erabiliz gero pertsonaren eskubideei eragin ahal badie, eskubide horiek funtsezkoak izan edo ez alde batera utzita, eskubide horren xedea ez baita banakoaren intimitatea soilik, lan hori EKren 18.1 artikulua ematen duen babesak betetzen baitu; eskubide horren xedea izaera pertsonaleko datuak dira. Ondorioz, datu pertsonal publikoei ere badagokie, publikoak izan arren, edozeinek ezagutzeko modukoak izan arren, ez baitote ihes egiten interesdunak duen erabakitze botereari, hark duen datuen babeserako eskubideak hala bermatzen du eta. Horregatik, datuak izaera pertsonalekoak izateak ez du esan nahi pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuak babestuko direnik soilik. Aitzitik, babestutako datuak pertsona identifikatzen duten edo identifikatzen laguntzen duten datu guztiak dira, bere profil ideologikoa, arrazakoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozer eratakoa sortzeko balio duena, edo gizabanakoarentzat mehatxu bat izan daitekeen egoera batzuetan beste edozertan erabiltzeko balio dutenean”. Horrela, bukatzeko, “datuak babesteko funtsezko eskubidearen edukia datu pertsonalen gaineko erabakiak hartzeko eta horiek kontrolatzeko boterea izatea da, zeinari esker pertsonak erabaki ahalko baitu horietako zer datu eman ahal diezaiokeen hirugarren bati, hirugarren hori Estatua edo partikular bat izan alde batera utzita, edo hirugarren horrek zer datu eskuratu ahal dituen, eta gainera, gizabanakoak ere jakin ahalko du nork dituen datu pertsonal horiek eta zertarako, eta jabetza edo erabilera horren aurka egin ahalko du” ».*

Azken finean, identifikatutako pertsonen edo identifikatu daitezkeen pertsonen buruzko datuak EKren 18. artikuluko eskubideen babesetik eratorritako mugen mende daude eta DBLOren preskripzioen mende eta, gainera, zehapen- edo diziplina-prozedura batean agertzen direnak *urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio*

Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13.d) artikularen mende, gardentasun, jendaurreko informaziorako sarbide eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 15.1 artikularekin bat; izan ere, lege honek horrelako informaziorako sarbide-eskubidea mugatzen du, legeak ez badu jasotzen behintzat. Hala ere, publiko egin nahi den informazioaren izaera bereziak zehazten du, lortu nahi den helburua ikusirik, zeina kasu honetan, berriz diogu, ez baita inola re definitu, ea jokoan dauden interesak legelariak aztertu behar dituen edo ez, eta horretarako, proportzionaltasun-printzipioa betetzen dela aztertuko du.

Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 10eko 186/2000 Epaiak (BOE 192. zk., 2000ko abuztuaren 11), proportzionaltasun-printzipioa neurtzeari buruz, hau adierazi du: *«Egiaztatzeko oinarrizko eskubide baten neurri murriztaile batek proportzionaltasun-judizioa gainditzen duen, hiru betekizun edo baldintza hauek betetzen diren egiaztatu behar da: neurri horrek jarritako helburua lor dezakeen (egokitasun-judizioa); horrez gain, beharrezkoa den, hau da, helburu hori efikazia berdinarekin lortzeko ez dagoen beste neurri neurritsuagorik (premia-judizioa); eta, azkenik, neurri hori neurtua edo orekatua den, bertatik interes orokorrerako gatazkan dauden beste ondasun edo balio batzuen gain kalteak baino onura edo abantaila gehiago ekartzeagatik (proportzionaltasun-judizioa zentzu hertsian)».*

Bada, kontuan izanik aurreproiektuan ez direla neurriak hartzen datuen babeserako eskubidearekiko eragina murrizteko edo ahazte digitala izeneko eskubidea bermatzeko, esaterako aldizkari ofizial batean datuak argitaratu daitezela saihestea (DBLOren arabera jendea sar daitekeen iturri bat da); informazioa bilatzaileen bidez arakatu ahal izatea saihesten duen formatu batean argitaratzea (desindexatzea); zerrenda eskura daitekeen epea mugatzea, etab.; eta argitaratzeak jurisdikzio-bidean irmoak ez diren zehapenei eragin diezaikeenez eta, beraz, aldatu egin ditzakeenez ondorengo ebazpen judizial batek, ez dirudi neurri honek aipatutako proportzionaltasun-judizioa gainditzen duenik.

Gehienez ere, arau-hausleen zerrenda bat argitaratzeak esan nahiko luke *a priori* datuen babeserako araudian aurreikusi gabeko datuak lagatzea, aldiz, araudi horretan aurreikusita dago lege batek lagatze berriak egitea: DBLOren 7.3 artikuluan, adibidez, osasuneko datuei dagokienez; eta DBLOren 7.5 artikuluan, arau-hauste penal edo administratiboak egiteari buruzko datuei dagokienez. Alabaina, ez du aurreikusten halakorik, eta horrek baliteke DBLOren erreforma bat eskatzea.

Ondorioz, arau-hauste astun edo oso astun baten pertsona fisiko arduradunaren identitatea publiko egitea ez da egokia; beraz, uste dugu kendu egin behar dela.

Nolanahi ere, artikuluko honetako laugarren zenbakian jasotako erregistroa sortzeko aurreikuspena mantentzen bada, pertsona fisiko arau-hausleen datu pertsonalak alde batera utzita, zehapenen erantzukizuna eta preskripzioa aldatzeko kausak dauden ondorioetarako, adibidez, gomendatzekoa da inskripzio hori ezerezteko epe bat aurreikustea.

115. artikulua ordezko ingurumen-prestazioa arautzen du. Prestazio hori aukera bat da arau-hausle partikularrarentzat; alegia, diruzko isunaren ordez ingurumenari mesede egingo dion leheneratze-, kontserbazio- edo hobekuntza-prestazio bat eskaintzeko prozedura bat hastea eska dezake. Halere, legezkotasun-printzipioa betetzeko, gehiago zehaztu beharko litzateke prestazioaren eduki materiala, baita hori ezartzeko prozedura ere, nahiz araudi-bidea izan, eta, horrela, mugatu egingo litzateke ekimenak zehapen-organoari esleitzen dion gehiegizko diskrezionalitatea bi zentzuetan. Ildo horretan, araudiak balizko prestazioen zerrenda-gida bat izan dezake, zehapena irmoa denetik eskatzeko epea zehaztu dezake, ebaluazio-mekanismoen parekotasunak, betearazpena eta araudia ezartzeko metodoa izan dezake, baita ez-betetzeen kasuetarako ondorio juridikoak ere.

IV.c) 10.-Azken zatia.

Proiektuak xedapen gehigarri bakarra du eta hau adierazten du: *«Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, betiere beren eskumenen arabera, behar beste baliabide material eta giza baliabide edukiko dituzte Lege honetan finkatutako helburuak beteko direla bermatzeko».*

Bigarren gidalerroak, hirugarren apartatua hau adierazten du: *«Xedapen Gehigarriek ordena honetan izango dituzte:*

a) Artikuluetan jaso ezin diren araubide juridiko bereziak: lurraldekoak, pertsonalak, ekonomikoak eta prozesuetakoak. Testu artikulatuan orokorrean arautu diren egoera juridikoei buruzkoak diren eta, gainera, xedapen-zatiaren artikuluko batean edo kapitulu

batean sartzeko moduko garrantzirik ez daukaten erregimen bereziak bakarrik sartzen dira hemen.

b) Arau juridikoak sortzea helburu ez duten mandatuak eta jarduketak. Horiek ezartzen badira, mandatua zer epetan bete behar den ezarriko dute.

c) Hondar-manuak, arauaren beste alde batean kokatu ezin direnak. Hondar-manua kalifikatzearena besterik egin ezin denean erabiliko den baliabidea da».

Kasu honetan, aurreproiektuan aurreikusitako Xedapen Gehigarriaren edukiak badirudi men egiten diola testuan jasotako funtzio eta tresna berrien finantzaketa osatu eta bermatuko duen xedapen bat sartzeko helburuari. EAEko administrazio publikoei behar beste baliabide material, ekonomiko eta pertsonal emateko helburuarekin, arauak gauzatutako eskumen-banaketaren ondorioz horiek gauza daitezten.

Halere, ez dira zehazten zerbitzu berri hauei heltzeko behar besteko finantzaketa bermatu dezaketen mekanismoak eta ildo horretan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak gai honi buruz hau esan du (192/2011 irizpena):

«Ohartarazi behar da 27.5 artikuluan ezarritako aurreikuspenak ez duela bermatzen ondore horietarako finantza-nahikotasuna, hau adierazten duenean: "Toki-administrazioek, foru-administrazioek eta administrazio autonomikoek behar diren baliabideak emango dituzte lege honetan jasotako parte-hartze prozesuak errazteko", edo 9. artikuluan hau adierazten duenean: "Tokiko erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren laguntza teknikoa izango dute eta dagokien finantza-nahikotasuna", legeak ez baititu ezartzen zerbitzu berrien finantzaketa bermatuko duten mekanismoak».

Aurreko xedapen gehigarriaren ondoren, bi xedapen iragankor daude eta horiek aurretiazko edo ebazteko zain dauden egoera juridikoak arautzen dituzte.

Lehenengo xedapen iragankorra, burutzen ari diren prozedurak izenekoa, bi zenbakietan banatzen da. Lehenengoan aurreproiektu hau indarrean jartzean hasitako eta amaitu gabeko prozedurak aipatzen dira; aldiz, bigarreanean, finkatutako egoerak aipatzen dira. Beraz, badirudi izenburuak ez dituela xedapen honetako bi zenbakiak berdin aipatzen. Aurrez adierazitakoa dela eta, gomendatzen dugu lehenengo xedapen iragankorra berrikustea.

Gainera, lehenengo xedapen iragankorrek bigarren apartatuan hau adierazten du: «*Ingurumen-baimen integratuen jarduera edo instalazio titularrek edo jarduera sailkatuen udal-lizentziek beren eskubideak izaten jarraituko dute*». Aipatu behar da, manu honetako literaltasuna kontuan hartuta, bai jarduerak bai instalazioek ez dutela nortasun juridikorik; hortaz, ezin dute izan inolako eskubiderik. Horregatik, idazketa hau aldatzea iradokitzen dugu.

Lege-aurreproiektuaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetutako xedapen edo esaldi arauemaileak jasotzen ditu, eta berariaz aipatzen du Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra.

Gai hau dela eta, adierazi behar da Euskadiko Ingurumenari Buruzko Lege Orokorrak ez duela soilik aipatzen ingurumen-administrazioa, baizik eta askoz ere zabalagoa dela, zeren, besteak beste, natura-ondarea babestearekin erlazionatutako hainbat alderdi arautzen ditu; beraz, ingurumen-administrazioaz bestelako ingurumen-gaiei buruzko araudirik ezean, egokia da artikulua hau berrikustea ez sortzeko arauketa faltagatiko egoera bat.

Azkenik, proiektuak 6 azken xedapen ditu eta horietan jasotzen dira efikazia-arauak eta jarduketak-mandatuak eta garapen arauemailea, Legea indarrean jartzeko uneaz gain.

Azken xedapenetatik bigarrenak aldatu egiten du Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legea. Hala ere, formulazioa pixka bat heterodoxoa da legegintza-teknikaren ikuspuntutik. Lehenik, adierazi behar da aldaketa edo gehitze hori sostengatzen duten arrazoiak zioen azalpenean adierazi behar direla eta ez xedatzailean. Bigarrenik, formulazio hau iradokitzen dugu:

«AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena, aldaketa.

Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legean aldaketa hauek egin dira:

Bat. 7. artikuluan, k) eta l) apartatuak aldatu dira eta s) apartatu berri bat gehitu da. Honela geratu da idatzita:

«k) Hasierako onarpena eman eta gero, plan orokorren, arau subsidiarioen, plan partzialen eta plan berezien berri emango du izaera lotesle batez. Txosten horrek soilik udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa –bertako gune babestuak eta itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko zortasun eremu babestuak– izango du aztergai, ingurumen edo arloko arrazoiak direla eta aplikagarri diren beste lege batzuek xedaturikoari kalterik eragin gabe. Bi hilabeteko epean idazten eta jakinarazten ez bada, ez dela onartu ulertuko da.

l) Hasierako onarpena eman baino lehen, plan orokorren, arau subsidiarioen, plan partzialen eta plan berezien berri emango du izaera lotesle batez. Txosten horrek soilik Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorreko obren eta udal plangintzaren arteko erlazioa izango du aztergai, baita aipatu plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa ere –bertako gune babestuak eta itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko zortasun eremu babestuak–, ingurumen edo arloko arrazoiak direla eta aplikagarri diren beste lege batzuek xedaturikoari kalterik eragin gabe. Bi hilabeteko epean idazten eta jakinarazten ez bada, ez dela onartu ulertuko da».

«s) Lege honetan aurreikusitako Uraz Hornitzeko eta Hiriko Hondakin Urak Arazteko Plan Gidaria landuko da eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztuko zaio».

Bi. Aldatu egiten dira ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 12. artikuluko a) eta e) apartatuak, honela uzteko:

«a) Ingurumenaren alorreko eskumenak dituen sailaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen esparruan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko plangintza hidrologikoa eta plangintza horren aldaketak proposatzea Jaurlaritzari, onartu edo izapideak egin ditzan, dituen eskumenen arabera».

«e) Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen esparruan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan erabiltzaileen eta ureztatzaileen elkarteen ordenantzak eta estatutuak onartzea».

Hiru. Aldatu egiten da ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 13. artikuluko j) apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen esparruan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko plangintza hidrologikoaren proposamena egitea, baita plangintza horren aldaketena ere».

«j) Lege honetan aurreikusitako Uraz Hornitzeko eta Hiriko Hondakin Urak Arazteko Plan Gidaria hasieran onartzea eta Eusko Jaurlaritzari igortzea».

Lau. 15. artikuluari n) apartatua gehitzen zaio; hona hemen testua:

«n) Uraz Hornitzeko eta Hiriko hondakin Urak Arazteko Plan Gidaria proposatuko zaio Administrazio Kontseiluari».

Bost. 22. artikulua aldatu da, eta honela gelditu da:

«22. artikulua. Euskadiko plangintza hidrologikoa

1. Euskadiko plangintza hidrologikoa plan hidrologikoen bidez, Euskal Autonomia Erkidegora bildutako demarkazio hidrografikoen –Kantauri Ekialdeko eta Mendebaldeko demarkazio hidrografikoak eta Ebro ibai Arroaren demarkazio hidrografikoa– Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen bidez eta Lehorteak Kudeatzeko Planen bidez, eta dagozkien neurrien programaren eta plan eta programa xehakatuaren bidez gauzatuko da.

2. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Barne Arroen plangintza hidrologikoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena baita, Uraren Euskal Agentziak egingo du. Era berean, Uraren Euskal Agentziak Estatuko Administrazioari dagokion plangintzan parte hartuko du Kantauri Ekialdeko arroi eta Ebro ibai-arroari dagokienean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazioko erkidego arteko arroi dagokienean, betiere indarrean dagoen ordenamendu juridikoak dioenaren arabera».

Aurrekoa behar bezain argigarria da aurreko arau bati edo arau horren zati bati idazketa berri bat emateko edo xedapen berriak gehitzeko aldaketa-teknika nola aplikatu behar den ikusi nahi bada; hortaz, hemen geldituko gara baina ikusi dugu azken xedapenetatik bigarreneko gainerako aldaketa-arauek aurrekoen akats berdinak dituztela.

Azkenik, adierazi behar dugu Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, baita gobernu-kontseiluak 1993ko martxoaren 23an onartu zuen lege, dekretu, agindu eta ebazpenen proiektuak egiteko gidaleroen arabera ere, eranskina izango dela, hala dagokionean, indargabetutako edo aldatutako xedapenen zerrenda.

Azken xedapenetatik bosgarrenean ahalmena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari, dekretu bidez eta ingurumenaren alorrean eskumenak dituen sailak eskatuta, lege honetako eranskinak aldatu ahal izateko, aplikagarria den araudira, ingurumenaren alorreko errekerimenduetara edo, hala dagokionean, izaera teknikoko errekerimenduetara egokitze xedearekin.

Lehenik, ez da EAEko administrazio orokorra gaitu behar baizik eta gobernu-kontseilua; izan ere, jatorrizko erregelamenduak egiteko ahala, salbu eta lege-lerruneko arauak aurkakoa berariaz aurreikusten ez badu, kide anitzeko gobernu-kontseiluari esleitzen zaio Euskadirako Autonomia Estatutuaren 29. artikulua arabera eta Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikulua arabera.

Bigarrenik, aurreikuspen hori, hau da, lege-testu arauemaile batek gobernuari gaikuntza ematea aurreikusitakoa bezalako eguneraketak gauzatzeko, ohikoa da eta horrek ez du lege-arazorik sortzen, baina jarraitutako teknika arauemailetik eratorritakoak sortzen dira, horiek ebazteko deslegalizazio-klausula bat ezarri behar dela ezartzen baitu. Teknika hau dela eta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko legearen aurreproiektuari buruz emandako 58/2014 irizpenean hau adierazi zuen:

«70. Alde horretatik, artikulua teknika berezi bat darabil. Izan ere, lehendabizi finkatuta uzten du zein den jarduera eta instalazio jakin batzuk kutsagarritzat jotzeko aukera ematen duen kontzeptua, baina, gero, aurreproiektuaren I. eta II. eranskinetan jarduera eta instalazio horiek zerrendatzen ditu —Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera— eta hiru kategoriatan sailkatzen, kutsatzeko duten ahalmena kontuan hartuta. Teknika hori (edukian, aipatu den bezala, dauden aldeak alde) LKlan erabiltzen da, eta, horri dagokionez, Batzordeak uste du legean sartzea, arautze-teknikaren ikuspuntutik, desegokia eta ez-gomendagarria dela. Izan ere, legeak —2. artikuluan egiten duen bezala— zehaztu egin beharko luke zer baldintza bete behar dituzten jarduera eta instalazio jakin batzuek kutsagarritzat hartuak izan ahal izateko, eta haietan aplikatzeko

aurrerago arautzen diren kontrolak eta prozedurak, zehazki zein diren adieraztea erregelamendu bidezko garapenerako utziz. Arautzeko era horri esker, bateragarriak dira segurtasun juridikoa eta legearen aplikazio-aldian zehar bidezkotzat jo daitezkeen aldaketa txikiak egiteko komeni den malgutasuna.

71 *Jakina, bigarren xedapen gehigarriak berariaz ahalduntzen du Gobernua eranskinak aldatzeko, baina horrek, hain zuzen ere, agerian uzten du zer arazo sortzen dituen arautzeko erabilitako teknikak, hala nola premiazkoa dela deslegalizazio-klausula bat ezartzea haiek gainditzeko. Batzordeak, beraz, eskatzen du gogoeta egiteko I. eta II. eranskinak kentzeaz eta zuzenean sartzeaz garapen-araudian —horrek, gertatuz gero, beharrezkoa izango luke araubide iragankor bat aurreikustea ere, eta arau zaharrak indarrean jarraitzen duela esatea, erregelamenduzko garapena osatu arte—.*

Azkenik, lege-aurreproiektu honek 8 eranskin ditu.

IV. D) Legegintza-teknika.

Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak lantzeko gidalerroak, gobernu-kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egin zuen bilkuran onartu ziren.

Horiek guztiak kontuan izanda, izenburuan, zehaztasunez eta oso-osoan azaldu behar da arautzen den gaia, eta, halaber, labur. Proiektatu den arauak bere xedea den alorra erabat arautu nahi du; hori dela eta, bere izenburuan «-ren» deklinabide-atzizkia erabiltzen da: Ingurumena«ren» Administrazio Legea.

Zioen azalpenaren aurretik «Zioen azalpena» izenburua dago eta bertan adierazten dira legea lantzeko arrazoiak, lortu nahi diren helburuak, zer gaikuntza-oinarri juridikotan oinarritzen den, arauketaren printzipio eta ildo orokorrak, alderdi berritzaileenak adieraziz. Hala ere, apartatu honetan ez da behar beste esaten indarrean dagoen araudian duen eragina.

Zati xedatzailea artikuluz osatutako testu bat da eta artikulua era sistematikoan ordenatzen dira. Horiei guztiei artikulua bakoitzeko edukia laburki adierazten duten izenak jarri zaizkie. Artikuluak zenbakietan banatzen dira zenbakien bidez eta horiek apartatutan banatzen direnean, apartatuek letra minuskulak dituzte alfabetikoki ordenatuta. Artikuluak era egokian taldekatzen dira kapitulu eta titulutan.

Xedapen gehigarri bat eta bi xedapen iragankorrez gain, xedapen indargabetzaile bat du. Azken horren edukia eta egokitzapena txosten honetan aurrez azertu ditugu.

Testuak 6 azken xedapen ditu eta horiek araubide juridiko berezietan buruzkoak dira. Araubide horiek ezin baitira kokatu arauaren beste toki batean kokatu ezin diren arau juridiko eta hondar-manuak ekoizteari buruzkoak ez diren artikulua, mandatu eta jarduketetan, ezta Legea indarrean jartzeari buruzkoa ere.

Oro har, gobernu-kontseiluak 1993ko martxoaren 23an lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko onartutako Gidalerroak zuzen aplikatu direla uste dugu; hala ere, zuzendu egin beharko lirake forma eta idazketako alderdi hauek:

- «eta/edo» juntagailuak tartekatuta erabiltzea (IC, ID, IIC eta IIE Eranskinak) ez da onartzen gramatikan; izan ere, oro har, «edo» juntagailuaren balioa eman nahi zaio. Beraz, gauza bat edo bat baino gehiago izan daitezkeela adierazi nahi denean, «edo» soilik erabili behar da; «eta» juntagailua, berriz, konbinazioaren bi kontzeptuak barne hartzen direnean soilik erabiliko da; hau da, gauza bat eta bestea —biak batera— izango dela adierazteko.
- Gomendatzen dugu maiuskulak eta minuskulak era homogeen erabiltzea zenbait adierazpenetan; izan ere, batzuetan, maiuskulaz hasten dira eta beste batzuetan ez, esaterako «ingurumen-baimen integratua»; «ingurumen-ebaluazio»; «administrazio publiko» edo «administrazio publikoak»; «ingurumen-alarrean eskumena duen saila»; «udala»; «esparru-erregelamendua»; «dekretua»; «legea»; «eranskina»; «kudeaketako sistema erkidea eta ingurumen-auditoretzak» edo «titulu» (aurreproiektuak dituen 9ak aipatze aldera).
- 114. artikuluan koherenteagoa da idaztea «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra».
- Gomendatzen dugu epeen zenbakizko adierazpenak batzea, zeren batzuetan zifra bidez formulatzen da, esaterako, 37. artikulua lehengo eta bigarren zenbakietan: «6 hilabete» eta «3 hilabete», hurrenez hurren; 40. artikulua, 1. eta 2. zenbakiak: «9 hilabete» eta «6 hilabete», hurrenez hurren; 52. artikulua, 1. eta 3. zenbakiak: «4 hilabete»; 32.1. artikulua: «30 egun»; 34. artikulua: «15 egun»; 35.1 eta 39.1. artikulua: «30 egun»; 45. artikulua, 7. eta 8. zenbakiak: «10 egun»; 46.3. artikulua: «30 egun»; 50.2. artikulua: «30 egun» eta «15 egun»; eta, beste batzuetan, letretan agertzen dira (batzuetan, artikulua berean zenbakiak eta letrak erabiltzen dira), adibidez, 14.2. artikulua: «hilabete bat» eta «bi hilabete»; 21.3. artikulua: «hiru hilabete»; 29.2., 36. artikulua, 2. eta 3.

zenbakiak, baita 38. ere, 1. eta 2. zenbakiak: «hilabete bat»; 45. artikulua, 4. zenbakia, b) apartatua eta 9.: «lau hilabete»; 90. artikulua, 4. eta 5. zenbakiak: «4 hilabete» eta «bi hilabete», hurrenez hurren; 95. artikulua: «sei hilabete»; 97.3. artikulua: «hiru hilabete»; 115.2. artikulua: «hiru hilabete»; 39.2. artikulua: «hamabost egun»; 45. artikulua, 3., 4b. eta 6. zenbakiak: «hamabost egun», «hogei egun» eta «hamabost egun», hurrenez hurren; 49.2. artikulua: «hamar egun»; 51.3. artikulua: «hamabost egun»; 97.2. artikulua: «hamar egunetik beherakoa ez den eta hamabost egunetik gorakoa ez den» eta 97.5. artikulua: «bost egun».

- Azken Xedapenak indarrean «argitaratu eta hurrengo egunean» jarriko dela jaso behar du, eta ez «argitaratu eta hurrengo egunez».
- Bestalde, Lehendakariak, 1994ko martxoaren 18an, arauzko xedapenetan eta administrazio-dokumentuetan hizkuntza sexista desagerrarazteko emandako jarraibideei dagokienez, proiektuak haien betetze gorabeheratsua egiten du, eta batzuetan gaztelaniaz «personas» kontzeptua erabiltzen da, baina beste batzuetan, besteak beste, «promotores», «infractores» edo «registro de infractores» kontzeptuak erabiltzen dira (gaztelaniazko maskulinoan). Beraz, komeni da adierazpen horiek berriz aztertzea.

V. ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA ETA AZTERTZEA.

Gobernu-kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko eta 2012ko azaroaren 27ko erabakiak, Xedapen Orokorrek Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituenak, xedatutakoaren arabera, eta elektronikoki izapidetzeko jarraibideak kontuan hartuta, ekimen hau izapidetzeko, Lankidetzaren Juridikorako sareko espazioa (Legesarea) erabiltzeaz gainera, arau-xedapen orokorren izapide elektronikoetarako garatutako aplikazio informatikoa erabili da (TRAMITAGUNE). (Esp.: DNCG_LEY_479/18_05).

Gainera, aldez aurreko onarpenaren Agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, LEGESAREA lankidetzarako eremuan emango da argitara.

Espedientean orain arte bete egin dira Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean aurreikusitako baldintzak, jarraian adierazitako baldintzetan:

- ✓ **Hasiera-agindua:** Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko

abenduaren 22ko 8/2003 Legean (XOEPL) ezarritakoaren arabera, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko otsailaren 13ko Aginduaren espedientean dago. Agindu horren bidez Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea onesten da.

Dokumentu honen gehiengo edukia XOEPLen 5. artikuluan ezarritakora egokitzen da, artikulua horrek hau aipatzen du: «Arauaren gaia eta helburua aipatuko dira labur-labur, eta alderdi hauen guztien gaineko irizpen bat ere izango da: arauaren bideragarritasun juridiko eta materiala; antolamendu juridikoan izango duen eragina (gai beraren gainean indarrean dauden beste arauen artean berariaz edo zeharka aldaketa jasango dutenak adierazi gabe); eta arau horrek ukituko dituen administrazio publikoen aurrekontuetan izango duen eragina, arautuko duen gai horretan izango duen eragina nahiz dena delako jarduera-esparru horretan izango duena.

Era berean, gaia eta proposatuko den arauketaren edukia dela-eta bidezko irizitako izapideak eta txostenak zehaztu beharko dira, eta, behar balitz, xedapenak Europar Batasunean izapideren bat igaro behar duen edo ez; izan ere, helburua ez da Zuzentarauen trasposizioa, eta ez dio eragiten estatu kideen arteko eskumenari, eta ez dauzka diruz lagun daitezkeen programak edo deialdiak.

- ✓ **Aurrez onartzeko agindua eta aurretiazko jarraibideen izapideak:** XOEPLen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, «*xedapen-proiektu orokorrak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldeztu aurretik onartu beharko ditu, dagozkion negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideak egin aurretik*». Esparru honetan Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko maiatzaren 15eko Agindua onartu zen, zeinaren bidez aurretiazko onespina ematen zaion Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuari, eta horrek eranskin gisa du 2018ko maiatzaren 25eko Euskadiko Ingurumen Administrazio Legearen aurreproiektu-testuaren zirriborroa.

Aurreproiektua Gobernuaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da, haren bidez onartzen baitira

xedapen orokorrak ele bietan egiteko neurriak, xedapenok Lege, Legegintza Dekretu, Dekretu edo Agindu forma dutela ere.

- ✓ **Entzunaldia eta jendaurreko informazioa:** XOEPLren 8. artikuluan xedatuaren arabera, herritarren eskubideei eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Aurrekoa betetzeko, espedienteari erantsi zaio Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren 2018ko maiatzaren 28ko Ebazpena, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektua jendaurreko informazioaren mende jartzen duena (EHAA, 106. zk., 2018ko ekainak 4).

Kasu honetan ez dira beharrezkoak XOEPLen 7.2 artikuluan aurreikusitako negoziazio-izapideak, bertan ezartzen diren kasuetako bat ere ez delako gertatu.

Jasotako alegazioen emaitza eta proposatzen den arauketak eragin diezaiekeen Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde instituzionalei egindako kontsultak, espedientean adieraziko dira alegazioei buruzko memoria-txosten batean.

Bestalde, hasiera-aginduan adierazten den bezala, gobernu-kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartutako Erabakiarekin bat etorritik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulta egin da, egoitza elektronikoa, LEGEGUNEAN eta Irekian, gune horietan argitaratuta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua landu aurreko jendaurreko kontsulta.

Kontsultaren edukia bat dator 133. artikuluan aipatutakoarekin eta jaso egiten ditu ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, legearen premia eta hori onartzeko egokitasuna, arauaren helburuak eta arauzkoak diren eta arauzkoak ez diren konponbideak.

Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 56.1 artikulua arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak aldatua, xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrari igorriko zaio, hasteko agindua eman duen organoak aurretiaz onartu ondoren.

Gainerako izapideei dagokienez, Aginduak izapide-prozedura honetako txosten hauek adierazten ditu:

- ✓ **Justifikazio- eta ekonomia-memoria;** azken horretan, enpresen sorreran, abian jartzean eta funtzionamenduan arauak daukan eraginaren azken ebaluazioa sartuko da.

Aurrekoaren arabera, espedientean dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektuaren Justifikazio eta Ekonomia Memoria, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak sinatua 2018ko maiatzaren 25ean.

Memoria honen justifikazio-zatiari dagokionez, ikusi dugu ez dagoela aurreko apartatuetan.

Zati ekonomikoari dagokionez, XOEPLren 10.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, izapide-espedientean memoria ekonomikoa jaso beharko da. Memoria horrek bete beharko du, gutxienez, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan xedatuta dagoena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dira. Dagokion memoria ekonomikoa espedientean jasota dago.

- ✓ **Generoaren araberako inpaktuaren alde aurreko ebaluazio-txostena,** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19. artikuluan jasotako xedapenen arabera. Espedientean daude Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektuaren Genero Inpaktuari buruzko txostena, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak sinatua 2018ko maiatzaren 25ean.

Gainera, proiektuak igortzeko dauden nahitaezko txosten hauek izango ditu:

- ✓ Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak egindako txostena.
- ✓ Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005

Legeko 21. artikulua arabera egina.

- ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Administrazio Publikoetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren (xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenaren) arabera egina.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordearen txostena Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 10. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- ✓ Ingurumenerako Aholku Batzordearen txostena, Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ✓ Naturzaintzaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ✓ EAEko Ur Kontseiluaren txostena.
- ✓ Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikulua arabera, bere funtzioen artean esleitzen baitio politika ekonomiko eta sozialarekin erlazionatutako nahitaezko Lege-proiektuak jakinaraztea.
- ✓ Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.
- ✓ Enpresa-txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko 2012ko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezartzen denaren arabera.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Gobernu Batzordeen txostena, Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen ezarritakoarekin bat etorritik.
- ✓ Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren txostena.
- ✓ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.
- ✓ Prozedura osoari buruzko memoria labur bat, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, eta hori guztia Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio, onarpena eman diezaion.

IV. A) Ondorengo izapidea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 12. artikulua ezartzen du ezarritako prozedura amaitu ondoren, xedapen orokorra organo eskudunak onartu beharko duela zioen azalpenarekin batera, eta bertan adieraziko dira labur-labur lantzeko arrazoia eta lortu nahi den helburua. Eranskin gisa joango da, hala dagokionean, indargabetutako edo aldatutako xedapenen zerrenda.

Halaber, egin diren nahitaezko txostenak erantsiko zaizkio, eta 10. artikuluan aurreikusitako memoriak, bai eta xedapenaren premiari eta egokitasunari buruz erabakitze behar diren aurrekariak ere. Zehazki, 10.2 artikulua adierazten du espedientean hau txertatuko dela: *«8/2003 Legearen 10.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, espedienteari prozedura osoaren memoria labur bat erantsi behar zaio, bertan honako hauek zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, emandako txostenen ohar eta iradokizunetara egokitzearen —batez ere nahitaezko txostenetan egindakoetara—, proiektuaren testuan sartutako aldaketak. Behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharra, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua zergatik den ordenamendu juridikoaren arabera»*.

Legearen 13. artikulua adierazten du lege-aurreproiektuak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaizkiola, azter ditzan; aztertzen diren bilkuran bertan erabakiko du haiek behin betiko onartu edo ez, edo, bestela, azken idazkera egiteko kontuan hartu beharko diren irizpideak ezarriko ditu, bai eta, hala balegokio, behin betiko onartu bitarteko bidean egin beharreko jarduketak ere.

Kontuan izanda Legearen aurreproiektuak proposatzen duela LHL berariaz aldatzea, bereziki aipatu behar da Euskadiko Tokiko Gobernu Batzordearen txostena, Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen ezarritakoarekin bat, gobernu-kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen erabakian ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez xedapen orokorrak egiteko jarraibideak onartzen diren, xedapen orokorraren sustatzaileak eskatu egin beharko du lege- edo dekretu-proiektua onartu aurretik (KEBren eta ABJren txostenak baino lehen).

Gainera, espedienteak Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) kontrol kontu-hartzaile ekonomiko-arauemailearen mende egon behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontrol Ekonomiko eta Kontabilitatearen Legearen testuategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintza Dekretuaren

25.1 artikulua arabera. Artikulu horrek hau ezartzen du: *«Kontrol ekonomiko-arauemailearen helburua izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo eskudunek egin behar dituzten izaera ekonomikoko lege-aurreproiektuak eta arauak ezartzeko proiektuak fiskalizatzea».*

KEBren txostena egin ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman beharko du.

Gogoratu behar da, gardentasun, jendaurreko informaziorako sarbide eta gobernu onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 7. artikulua (BOE, 295. zk, 2013-12-10) ezartzen duela garrantzi juridikoko informazioa dela eta, beraz, publiko egin behar dela publikotasun aktiboari buruzko 2/2016 Saileko Zirkularrean ezarritakoaren arabera *«Lege Aurreproiektuak eta Legegintzako Dekretuen proiektuak zeinen ekimena baitagokie, irizpenak dagozkien aholku-organoei eskatzen zaizkienean»*, baita *«Testu arauemaileak egiteko espedienteak osatzen dituzten memoriak eta txostenak» ezarritakoaren arabera ere.*

VI. ONDORIOAK

Aurrez adierazitakoa kontuan hartuta, Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua dela-eta egin da txosten hau, baina horrek ez du eragozten zuzenbidean hobeto oinarritutako beste bat egitea.

Vitoria-Gasteizen,

SINADURA ELEKTRONIKOA:

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

ZERBITZU-ZUZENDARIA